PABLO SASTRE

Henriren irudia

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2000 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2000ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

OSTATUA

Xoferrak hots eginda esnatu zen Xan. Azken bidaiaria zen. Ja kanpoan, zenbait pauso trakets egin zituen, espaloiaren segurtasuna bilatuz. Hala ere, geltokian ziren ibilgailu guztiak argiak eta motorrak itzalita zeuden. Xoferra markesinaren atzean ezkutatu zelarik, Xanek, bistaz kale bazterrak korrituz, bakarrik zegoela ikusi zuen.

Non ote zegoen? Ez baitzuen inguru hura ezagutzen; denbora asko zuen hirian izan gabe zela. Guztiaz ere, ez zuen Benta Zaharretik oso urruti behar. Izan ere, bere ezkerrean, han goian, mendi-hegiko etxeetako argiak ikusten ziren, eta Benta Zaharra, hain zuzen, hiriaren beheko aldean izan.

Izan balu nori galdetu. Ez zen inor, ordea. Gaua zen, noski. Ez zuen harritu horrek: bazekien hirira gauez ailegatuko zela. Gauak berak harritu zuen: iluntasun hura, argi bakan haiek; bakardade hura.

Hiriko kaleak, bere gogo barrenean hain jendetsu, hain zarataz beterik gelditu zirenak. Ez

baitzuen, haatik, oso berandu behar. Noski geltokia hiritik apartexko zegoen. Bazetozkion urrundik motor-hotsak, marmar bezalako bat, ez baitzitekeen hots bat beste batetik bereizi.

Baiki, hotz egiten zuen; ez izugarria ere; bazen behintzat hezetasuna giroan. Zintz egin zuen, mukiak painuelora bilduz.

Kalean auto bat pasatu zen; gero moto bat. Kale hark hiri-erdira zeramala suponituz, bera zegoen hartatik abiatzen zen beste kale batera jo zuen. Intuizioz egin zuen: ez arras zekielako hura zela bidea.

Espaloiaren zabalak pixka bat aztoratu zuen. Sumatu zuen baldar zebilela. Arbolen lerroarekiko, zango bat erabat kontrolatu ezinda, apur bat sigi-saga zebilen. Saiatu zen akatsa zuzentzen, zango okerrari diziplina bat ezartzen. Aldi batez zuzenago ibili zen. Kruzatu zituen zenbait kale txiki. Ikusi zuen gizaki bat. Aditu zituen intziri batzuk.

Ez zuen kale hura ezagutzen. Etxe altuak, ladrillo gotorrez eginak, zementoz lixatu gabe. Aparkatutako autoak, hauts kapa mehe batez estaliak, parabrisetan zenbait euri-ttantta. Eta

hala ere, ez zitzaion ingurua erabat arrotz. Bazeukan ustea, oso aurrera gabe, trabeskako kale txiki haietako batean behera eginda iritsiko zela Benta Zaharrera. Zierto, kale haietako batzuek ez zuten aterabiderik: baziren debekuzko seinaleak, baziren zakurren itzalak. Beste batzuk berriz, kondizio deplorableetan zeuden. Azkenean hala ere, karrika estu baina printzipal samar batera heldu zen, emekixe behera egiten zuena. Hartara jo zuen Xanek, bertan ibili minutu batzuez. Ikusi zituen zenbait eskaparate, aditu zuen klaxon bat, ixten ari zen pertsiana baten hotsa. Aitzinago argiak eskasagoak, etxe txikiapalagoak ziren. Ate-leiho gorri ilunak, pareta zuri-grisak, pintada batzuk.

Zihoan espaloian aurreraxeago, atari baten ondoan zutik, hiru emakume gazte ikusi zituen: elkarrengana bilduta, zigarroak erretzen. Beraiei galdetzeko asmoz hurbildu zen Xan. Altuak ziren oso, morenoak, ile-adats beltz ederrekoak, eta gerrirainoko zamarrak eta galtza estuak zituzten. Ez ziren, agian, bertakoak izango. Eta hala ere, aise aski, imintzio lasaiak eginez berba egiten zuten. Haietako bat bestalde, Xanek aurpe-

gia erabat ikus ziezaiokeen bakarra, Xani so gelditu zen bere begi handiez. Emakume hark, hain inprebisiblea zirudien. Eta, beraiengandik oso gertu zegoela, beste emakume batek, apur bat itzuli, lurrera ttu egin zuen, estilo bikainez. Eta, begi handiko neskak berriz, ez ote zuen bada, beti berari begira, irribarre bat azaldu? Xan durduzatuxe zegoen. Behintzat ja hiru nesken aldamenetik igarotzen ari zen, ja igaro egin zen, ez baitzitzaion ahora berbarik etorri... Aditu zituen bere gibelean barretxo batzuk. Kalean behera segitu zuen.

Ez zen askoz geroago izan, beti kale berean, beti malda gozoan behera, nabaritu baitzuen bazetorrela nonor bere atzetik. Buru itzuli batean ikusi zuen gizon sendo, korbataz eta beroki ilunaz jantzitako bat zela. Hari galdetzekotan, bere parera hel zedin denbora ematearren pausoa moteldu zuelarik, baina, iruditu zitzaion gizonak ere pausoa moteldu egiten zuela. Eta, erabat gelditu zelarik, gizona ere gelditu egin zen. Orduko baina, elkarrengandik metro gutxira zeuden. Hartan Xan arras itzuli zen eta: «Barkatu», esan zuen; gizonak, ordea, ez zion jaramonik

egin; ez zion begiratu, ez zuen, menturaz, ikusi; ile urdinak atzeraka orraztuak, eskuak berokiko poltsikoetan sartuta, arrunt bere baitara bildua, lurrera begira zegoen; ez zen, ausaz, hura galde egiteko pertsonarik egokiena; alabaina, ez zen besterik inguruan; zer nahi zen ere, bere isilean, bere bilduan, edo agian, bere gorrean, bere despistatuan, hala ere bertakoa behar zuenez, Xanek, harengana urrats bat emanik: «barkatu», berriz esan zuen; gizonak bista jaso zuen; begi argi, lausotuak zituen. «Benta Zaharrera, ondo al noa hemendik?», galdetu zuen Xanek. «Benta Zaharra?», esan zuen gizonak. Galderak, nonbait, ustekabean harrapatu zuen. Ezpainak estutu, pixka bat okertu zituen. Agian ez zuen Benta Zaharra ezagutzen. Edo, isil-keinu hartaz, Benta Zaharra handik oso urruti zegoela esan gura zuen. Zain zegoen behintzat Xan, gizonak zer esango. Gizonaren begietan, berriz, burla distira bat agertu ote zen. Hain segur, dibertitzen ari zen: noski, Xan kanpokoa zelakoan, hirian galduta zebilela imajinatuz. Menturaz ergela zen. Non ez zen eroa.

«Lo egiteko toki bila zabiltza?», esan zion, azkenik, korbatako gizonak; eta, esan zuen moduagatik, erantzuna biziki interesatzen zitzaiola zirudien. «Agian bai», esan zuen Xanek, zuhurki, hartara hala ere gizonak informazio baliagarriren bat emango ziolakoan. «Benta Zaharra itxita dago», esan zuen gizonak, eta Xani haren doinuan erdeinu pixka bat nabaritzea iruditu zitzaion. «Hala ere», esan zuen Xanek, «benta bera ezik, bere izena duen auzoa da bila nabilena». «Benta Zahar auzoa?», korbatadunak begietan berriz ere burla-distira hura zeukan: bazekien noski Xanek ez zekiena. «Badago, noski, izen horretako auzorik?», galdetu zuen Xanek. «Badago, noski; hauxe da Benta Zaharra». «Hau al da?». «Hauxe», esan zuen gizonak; isilune bat izan zen, eta gero: «Ikusten dut», esan zuen, «ez zarela hemengoa». Ez zuen Xanek hartaz klarki pronuntziatu nahi izan. Agian, hala ere, komeni zen zerbait esatea. «Ez al dago ostaturik auzoan?», galdetu zuen. «Ostaturik? Hor dago bat». «Non?», galdetu zuen Xanek, espaloiaz bestaldeko etxe hartan, ate-leihoak itxita zeudela, ez baitzen argirik ikusten. «Hor; hori da sarrera». Hiru

ate zeudenez: «Zein?», galdetu zuen Xanek. «Erdikoa», esan zuen gizonak. «Azula?». Beltzez jantziriko hiru gizaseme heldu ziren orduan, hain zuzen ere ate azula zabaldu, sartu ziren ostatu barrura. Espaloian gizaseme gehiago, emakume batzuk ere pasatu ziren. Kale-juntan auto bat gelditu zen: bazetorren beste talde bat atzetik. Denak beltzez jantzita, zenbait atso negar-xopinka. Xan oro pasa zain gelditu zen. Begiak apur bat hezetuta zeuzkala, korbatako gizona berriz, trabeska, berari begira zegoela iruditu zitzaion. Xanek hura laburzki despeditu, kalea kruzatu zuen. Masailean ttantta bat sumatu zuen; gero beste bat esku-lepoan. Ate azula ireki zuen.

Ostatuan argi motela, kea eta solas-marmarra zegoen. Bi mahai luze alde batean, zutabe bat erdian, fondoan barra bat: elementu haiek definitzen zuten espazio murritza. Barra atzean kortina berdekara bat; ezkerrera komunaren atea. Mahaietariko batean, paretaren kontra, gizon-emakume batzuk eserita zeuden. Beltzez jantzita haiek ere, txiki-sendoak ziren, edadez abantzatuak. Aurpegi beteak, ile-adats tindatuak emakumeak; kartoizko larrua, ile-muilo zilarrez-

koak gizonak. Begiak bizi-bizi, bazirudien pixka bat dibertitzen ari zirela: basoak altxa, baten bat goraipatu, barre egiten zuten. Espainolez ari ziren, jai-berbak eginez. Mahaipe hartan neskatila txiki-txiki bat zegoen: soineko gorria, xagumuturra, begi biribil eta bihurriak.

Beste mahaian hiru gizaseme zeuden: lehentxeago, Xanek ikusita, sartu ziren haiexek noski: kafe ketsuak, puru piztu berriak. Haietako batek, hain zuzen Xanek, barrara zihoala, parez pare zuenak, aurpegi luze, zupatua zeukan. Hark ere jarraitu zion apur batean Xani, bere begi beltzez.

Neska ile-beltz, aurpegi-zuri, elastiko urdin ilunaz jantziriko batek atenditzen zuen barra. Xan harengana heltzen ari zela, hark berari begiratu arin bat eman eta, barratik irtenda, hiru gizasemeengana joan zen, kopa bana eramaki. Handik atzera barrara heldu zelarik, aurpegi zupatuko hark bere begi beltzak neskaren ipurdian tinkaturik zeuzkala drolekeriaren bat esan, hiru lagunek barre egin zuten. Neskak, aparientziaz jaramonik egin gabe hari, ja bere tokitik Xani begiratu zion. Begiak ere beltzak, sudurraren hegalean zakar ttiki bat zeukan. Xan dudakor gelditu

zenez, eta neska, begiradaz, zerbait nahi al zuen, galdetzen ari zitzaionez: «Ateraidazu... zerbeza bat, agian». «Agian?», esan zuen neskak, eta haren doinuak, haren irribarre sotilak Xan apur bat aztoratu zuten. «Zerbeza bat, bai», esan zuen Xanek. Neskak kamaratik botila txiki bat atera zuen. «Basoan?». «E...? Ondo dago, basoan», esan zuen Xanek. Neskak emeki-emeki zerbitu zion. Esku delikatuak zituen, ez agian lanean oso usatuak. Eta, bazuen neskak baso eta botilarekiko halako atxikimena, eta bazuen era berean halako distantzia. Xanek beretik, ustez naturalki jokatu zuen: basoa jaso, zurrut txiki bat egin zuen. Neskak besoak barra gainean kruzatu zituen. Zierto, ez zen Xanen aurre-aurrean; ez zen haatik oso berex ere; alabaina Xanek, basoa laga zuelarik eskuaz neskaren elastikoa rozatu zuen. Haren usaina aditu zuen: usain sarkor, ezezagun bat. Xan xarmatuxe zegoen; eta, beldur zen, neskak suma zezan hura. Hartara, hurbiltasuna zela-ta zerbait esan beharrez, agian; baina, arestian duda huraxe buruan erabili zuelako ere: «Ostatu hau berria da, ala?», galdetu zion. Neskak, esku-keinu zabal batez ile-adatsa

atzeraka eramanik: «Ez da berri-berria izango, nik uste», erantzun zion. Hitz haiek Xan apur bat deskolokatu zuten. «Ez bainuen ezagutzen; nola izena du?». «Ostatu berria, esaten diote», esan zuen neskak. «Ez da, beraz, oso zaharra izango». «Ez dakit noizkoa izango den», esan zuen neskak, «ni ez bainaiz hemengoa». «Ez al zara hemengoa?», galdetu zuen Xanek; «hala ere, baduzu bertakoen azentua». Neskak, pausaldiño baten ondotik: «Hori bertan eman dudan denboragatik da»; eta, jarrera pixka bat aldatuz, orain eskuaz kokotsari eutsiz: «zuk ere ez duzu berbertakoa ematen», esan zuen. «Aspaldi etorri gabe», esan zuen Xanek. «Nola ez zaitudan inoiz ikusi». Interesantea zen neskak azken hori zelan esan zuen: begien distira, axola-doinu hura. Guztiaz ere, ez zion Xanek jarraitu nahi izan hizketabide hari. Trago bat edan eta: «Zuek», esan zuen, «ez duzue afari-legerik emango?». «Bokatak ematen ditugu», esan zuen neskak. Edozeren bokata bat eskatu zuen Xanek.

Anartean sartu ziren ostatuan gizonezko batzuk, barra ondoan plantatu ziren. Ardoak eskaturik, neskak basoak aski desberdinki bete ziz-

kien. Menturaz aresti ezkero arduratzen zen ostatuaz, menturaz aldi bateko zegoen.

Gizon sartu berri haiek, aurrena, txaketa beltzez jantzita zeudenez, hila behar zuen auzotar haren hileta-lagunak izango zirela pentsatu zuen Xanek. Gero berriz, bat-batean haietako bi kopla-kantari hasi ziren; ez bederen dolu-koplak, ezpada kopla arin eta burlazkoak. Alde guztiz, ez ziruditen oso kopla remarkableak, kuadrilako gainerako gizonei berriz, grazia handia egiten zieten, esku-zartaka eta barre-zoroka hartu zituzten. Arte hartan haranzko mahaiko gizonemakume txiki samarrek euren solasa arrunt apaldu, haien animoak arrunt erori zirela zirudien; bildu ziren korro batean emakumeak, gelditu ziren apartexko gizonak, komentario lakonikoak eginez. Beste mahaira jarrita zeuden hiru gizasemeak berriz, solas bizian ari ziren, hainbat esku-keinu, hainbat begi-ñika.

Neskak plater batean, serbilleta batekin estalia atera zuen ogitartekoa; eta, baso hustua jasoz: «Beste bat?», eskaini zion. Baietz, Xanek, eta: «Badut hor esertzea?», galdetu zion. «Noski», esan zuen neskak. Xan hiru gizase-

meen mahaian, haiengandik bakantxo jarri zen, ateari begira, zutabearen kontra.

Sasoi onekoak ziren hiru tipo haiek. Patxarana edan eta, nonbait ardo-hizketa zerabilkiten. «Hobeagorik behintzat ezin duk atzeman»; hori esan zuena, begibeltzaren aurrean, paretaren kontra zegoena, lepamotza zen; mahai gainean apur bat konkortuta zegoen; berak segitu zuen: «nagusiak zokondo batean baitauzka jasota botilarik onenak. Behin haraino iristen saiatu ninduan, baina iluna zegoan eta, barrika baten kontra muturrekoa hartu nian»; berak fuerte mintzo, besteek barre lasaiak egiten zituzten; lepamotzaren aldamenean, Xanen alderaxeago zena sudurmako, hortz-maketsa zen; egun pare bateko bizarra, lepoan, txaketaren azpitik, zapi gorri bat ageri; «zazpi barrikatatik eman ziguan edatera», segitzen zuen lepamotzak, «mozkortu baikinen ederki!»; urdea esan eta alua esan, puruetatik erre eta kopetatik edaten zuten; «Eli!», hots egin zuen lepamotzak; «ixurtzan beste ttantta bat hona, kopa hustu egin dun-eta». Barrako neska botilarekin etorri, hiru kopak bete-xamartu zituen, hiru gizonek bozkariozko irrintziez alabatu

zutena. Berbetan segitu zuten. Xani baina, ernexko bazegoen ere, haien solasa gero eta entendigaitzagoa egiten zitzaion. Alde batera, barran zirenen builek galarazi egiten zioten. Bestera berriz, nahiz hiru lagunengandik hurbilxko egonik haien hitz gehienak aditu, doi-doia zertatik zertara ari ziren ezin zuen asmatu. Ari zireneta oso gauza konkretuez, bai denboran bai espazioan biziki gertukoak, hainbat izen aipatuz, hala toki-izenak (haietarik bat edo beste hala ere Xani ezaguna zitzaion) nola lagun-izenak, Xani gogora inoren bisaia edo arrasto zehatzik ekartzen ez ziotenak. Haien solasaldia, bestalde, geroz eta etenagoa zen, elkarri hitza kenduz eta farfailaka mintzo ziren-eta. Halako batean Xanek sustoa hartu zuen, nabaritu baitzuen igurtzi arraro bat hankan. Begiratu eta, neskatila begi-bihurria zen, zaharrengandik aldenduz, Xanen azpietara jolastera heldu zena. Neskatilak, zapata bateko lokarria askatu ziolarik, orobat egin asmo zuen beste zapatakoarekin. Halatan, bada, Xanek ostiko txiki bat jo zion saihetsean; neskatilak ordea, irri txirtxil bat eginda, tira egin zuen lokarri-muturretik, bere trastekeria kontsuma-

tuz. Hainbatenarekin etsi egin zuen Xanek, esperantzarekin, bere indiferentziak neskatila pixka bat atsekabetu, aldeginaraziko ziola. Ez zen hala izan. Han heldu zen behintzat haren xagu-muturra, Xanen izterretik gora. «Nahi al duzu?», galdetu zion Xanek, ogi zati bat eskainiz. Neskatilak irribarre egin zuen; ez zuen, agian, ulertu. Espainolez errepikatu zuen Xanek; neskatilak zerbait esan zuen; espainolez, akaso, zena zela Xanek ez baitzuen ulertu. Xanek ogitartekoa bukatu zuen.

Bazetorren Eli. «Vete con la abuela», esan zion neskatilari; izan ere, adineko emakume haietako bat: mottoduna, ezpain gorri-gorriekin, beraiei begira zegoen, Xani begira orduantxe, irribarre errukarrizko batekin; behar ere Elik bista apartarazi zion; «kaferik?», eskaini zion. «Mmm...», duda egin zuen Xanek. «Kortado bat, *agian*?», esan zuen Elik. Baiki, bazuen grazia neskak. Hala ere, bazeukan bere barnean halako xagrina; bazeukan inondik ere zerbait ezkutukoa, Xan intrigatu egiten zuena.

Kafea ekarri ziolarik, Eli ogi apurrak batzen pixka bat entretenitu zenez: «Agi denez», esan

zion Xanek, «entierro batetik heldu da jendea». «Hala da; gizon inportante bat zen...»; oso bere ondoan, apur bat mahai gainera makurtuta zegoela: «ikusi zaitudanean, pentsatu dut harengatik etorria zintezkeela...». «Ez behintzat», esan zuen Xanek; kafeari eraginik, begi-erdiz Eliri begiratu, lepo-zerrenda bat ikusi zion; apur bat aztoratu zen; zerbait esan nahi izan zuen; alta, bere ahotik berak espero ez zituen hitzak atera ziren: «lagun baten bila etorri naiz». Eli, beragana jiratuz: «Emakume bat?», galdetu zion. «Ez», esan zuen Xanek, irribarre oker bat eginez; «lagun zahar bat da...». «Auzokoa?». «Bai», esan zuen Xanek; matrailak estutu zituen. «Auzokoa bada», esan zuen Elik, «agian ezagutuko dut». «Agian bai», esan zuen Xanek; «Henri. Henri izena du».

Ez zirudien izen hark Eli bulbersatu zuenik. Agian begiak apur bat kristaldu, agian Xanen ezpainetara begira zegoen. «Henri?», esan zuen; hatza masailean zuela, pentsakor eman zituen segundo batzuk; «entzuna dut, bai; hemen ibiltzen zela uste dut... denbora batean». «Orain ez?», galdetu zuen Xanek. «Ez dut uste», esan

zuen Elik; ez zen, bistan da, bertakoa; enkas bertakoa izan balitz, dudagabe ezagutuko zuen; «hala ere», segitu zuen Elik, «lagun hauek jakingo dute...»; Xani deus esateko betarik eman gabe, hiru gizasemeengana bueltatuz: «zuek», esan zien, «Henri ezagutuko zenuten, ezta?». «Henri?», esan zuen lepamotzak; «bai; zer ba?». «Lagun honek galdetzen du», esan zuen Elik; eta ja bazihoan, barratik deitu zuten.

Jakinminez, agian mesfidantzaz begiratu zioten Xani hiru gizasemeek. Xan ordea, zer esan ez zekiela zegoen. «Haren laguna al haiz?», galdetu zion sudurmakoak. Xanek buruaz baietz egin eta: «Orain etorri naiz», esan zuen, «barruan bolada bat eginda». Beheitixko esan zuen, hala ere besteek aditu egin zioten, orain haien aurpegietan harridura antzeman zitekeen, agian errespetoa. Hala ere, sudurmakoak, begiak apur bat txitxilduz: «Non egon haiz?», galdetu zion. «Motan», esan zuen Xanek apalki. Ez zioten galde gehiagorik egin; onartu zuten, konplizitatez ez bada, bai diskretuki bederen, imintzio sotilez gonbidatu zuten beraiengana hurbiltzen. «Beraz Henriren bila habil», esan zion sudurma-

koak. Xanek baiezkoa egin zuen. Beste zerbait esan behar ote zuen: besteak beste zerbait esateko zain ote zeuden. Ez zekien, ordea, zer esan. Noski, tentuz ibili behar zuen: gizon haiek, Henri, beraz, ezagutzen zutenak, menturaz haren lagunak ere bazirenak, agian ez ziren hala ere berarekin erabat fidatzen; bera ere baina, fida ote zitekeen beraiekin? Osterantzean, jende leiala zirudien. Agian banan-banan aisago mintzatuko ziren. Orain berriz, Xanek zain egon behar zuen, haiek zer esango. «Berri zaharrak guk dakizkigunak», hautsi zuen begibeltzak. «Henri ez baita aspaldian auzoan ikusi», esan zuen sudurmakoak; pentsatzen zuen, bai, Xanek Henri ez zela auzoan ibiliko; aditu zuen eztanda izan eta gero ihesi ibili zela; alabaina, ezkeroztik hirian izan zela ere adituta zegoen; «gu ere auzokoak-eta», segitu zuen sudurmakoak, «adin beretsukoak-eta... batzuetan elkarrekin ibili gintuan». «Denbora batean...», hasi zen begibeltza; bazirudien zerbait kontatu behar zuela; Xan eta besteak zain gelditu ziren; begibeltzak, ordea, bere puruari ke-bafada pare bat atera eta: «nahi al duk kopa bat?», galdetu zion Xani; «patxarana,

ondo?»; bera barrara joan eta laster oso kopa bat eta patxaran botila zekartzala zetorren; botila husteraino kopak betetzen ari zela: «denbora batean...», berriz hasi zen; ordea, fit-fat: «nola duk izena?», galdetu zion. «Xan». «Xan? Bien»; ez zuen komentariorik egin, ez ziren besteak ere itxuraz harritu; gerra-izentzat hartu zuketen; «denbora batean», ekin zion begibeltzak, «egunero ez zakiat, askotan behintzat ikusten genian. Hura bere kuadrilarekin ostatuz ostatu ibiltzen zuan... gu bezalaxe». «Baina haiek», esan zuen sudurmakoak, «gehiago ibiltzen zituan Deporren-eta». «Martinezen ere bai», esan zuen lepamotzak. «Han? Ez diat uste», esan zuen begibeltzak. «Kuadrilarekin ez», esan zuen lepamotzak, «baina bai bera bakarrik; hara sartzen omen zuan esanez: Arratsalde on! On egin dizuela! Euskaraz-eta, hangoei ez ziean grazia handirik egingo baina». «Jendeak hari ez zioan txarrean hartzen», esan zuen sudurmakoak, «bera denekin etortzen zuan ondo». «Denekin ez», esan zuen lepamotzak, zerbait sujerituz. «Ja ja», konprenituz bezala, sudurmakoak, «batzu-batzuekin beharbada ez, baina jende korrientearekin, ber-

din bateko edo besteko, gaztea izan edo zaharra izan, edozeinekin ikusten zuan hura». Une batez isilik geratu ziren. Xanek zurrut bat edan zuen. «Urte haietan», esan zuen begibeltzak, «auzoan zatiketa handia izan zuan. Gure kuadrilan ere, ordura arte bat eginda ibili ginenak zirt-zart bereizi gintuan. Gero ja...». «Hemen», esan zuen sudurmakoak, «Olasok egin zuena izan zuan determinantea. Hark jendea eramaten zian-eta. Hark esan zian: autonomia da gure bidea, eta... Askok hari jarraitu ziotean». «Eta beste batzuek... burrukan segi», esan zuen begibeltzak. Haietarikoa zen Henri, entendituta zegoen. Sudurmakoak berriz, bere begiradaz, Xani nolabait: noski hi ere..., adierazten ari zitzaion. Bazirudien hartaz zerbait esan zezan, zain gelditu zirela. Xanen gogoan berriz, denbora zahar haiek lanbro artean ezabatuxe zeuden; hargatik soil-soilik: «Bai», esan zuen, «urte nahasiak izan ziren haiek». Alta, bazirudien hiru lagunak komentario sinple hartaz konforme zirela; masailak gorrikara, begiak diz-diz, bazuketen bestenaz ere kontu gehiago esateko gogorik. Anartean beste gizon mordoxka bat sartu zen ostatuan, aurrekoak be-

zalaxe txaketa beltzekin jantzita, barra ondora joan, lehen ziren haiekin juntatu zirenak; haietako bi hala ere, haiek ere puru bana errez, Xanen ondoan jarri, Xan apur bat desplazatu zuten begibeltzaren alborantz.

«Urte buelta hartan», esan zuen lepamotzak, «sarritan ibiltzen gintuan elkarrekin. Zuekin ez (bere lagunei), baina gero preso izan zen Joxirekin, Totorekin eta lagun haiekin. Aldi batez, larunbatero irteten gintuan elkarrekin. Bazuan beste bat, Lakartekoa, batzuetan hona etortzen zena, mutil sendo bat, ile gutxi zuena, nola zuen izena...?». «Pitita?», galdetu zuen sudurmakoak. «Pitita, hori duk», esan zuen lepamotzak; apur batean Xani begira egon eta: «Pitita esaten genioan. Harekin zegoan Henri nik ikusi nuen azkenekoan. Inauterietan izan zuan. Plazan oilaskojana egin genian, eta xanpainarekin busti. Henri xanpainzalea zuan. Bestela poteoan-eta, berak ardoa eskatzen zian beti». «Poteozale amorratua zuan», esan zuen sudurmakoak; «plaza-mutila, arrunt eskuzabala. Diruak ez zian batere balio harentzat. Barra-izkinan jarri eta, sosak ahitu arte berak pagatzen zitian erronda guztiak. Eta,

bazekian edaten». Bere begi kixkorrez lepamotzaren onespena bilatu zuen; honek, ordea: «Jakitea, zer den», esan zuen; «behin baino gehiagotan gaupasa eginda dinbi-danba, kamiseta baten bati emanda bularrutsik heldu zuan etxera. Deporren behin, zepelin ederrarekin, demasako botila-txikizioa egin zian. Gogoratzen nauk», segitu zuen, «ikusi nuen azken egun hartaz. Bagintuan bera eta Batis, Toto ere bai, ez zakiat zein beste... eta neu artean. Plazan oilasko-jana egin, gero presoentzako tabernan izan gintuan. Han Pitita eta Lakarteko beste batzuekin juntatu gintuan. Aspaldiko, etzakiat-zer. Henri kasu egin gabe ez zuan bada egongo. Haiekin kalimotxo pare bat edango zian. Gero esan ziguan: ba al zatozte Lakartera zuek? Lakarten zer dago? Ez zakiat zer zegoen. Guk ezetz. Hara zihoala, bera. Ez baitzen joan, azkenean. Goizaldean behintzat han ikusi nitian Pitita eta biak. Nik esan nioan: etxera joango gara ala? Nik neukaan-eta kotxea. Espuela hartuko diagu, esan zidaan Henrik. Ezin erretiratu behintzat. Eguna argitzearekin salda hartu genian, gero zortziak aldean, Henrik lanera joan behar

zian-eta, bueltan gentozela, Pitita atzean lo gelditu zuan eta, autobian mantso-mantso, istripua izan zuan-eta, gure ondo-ondoan gaseosak zeramatzan kamioneta bat gelditu zuan. Arrimatu hadi pixka bat, esan zidaan Henrik. Zer ba? nik; ez nioan kasurik egin. Orduan Henrik, ateratzen ez dik ba gorputz erdia leihotik kanpo, besoa luzatu eta kamioneta hartatik gaseosa botila bat hartu zian. Erresekoa kentzeko, esan zian... Batzuetan halakoxea zuan. Eta, hura izan zuan bada, elkarrekin atera ginen azkeneko aldia». «Pitita hori», esan zuen begibeltzak, «ez al zen gero berarekin ibili...?». «Bai», esan zuen sudurmakoak, halako misterioz, halako segurantzaz.

Noizko kontuak ote ziren haiek. Hain segur, eztanda baino lehenagokoak, ezen gero Henri ihesi edo behintzat ezkutatuta egon zen. Eta hala ere, bazitekeen eztanda izan eta gerokoak izatea. Zenbat denbora egin ote zuen berak Motan, gero Etxezurian, eta urte haietan Henri zer eta nondik nora ibili zen? Denboraren erreferentziak oso galduta zeuzkan. Zenbat urte igaro ziren...? Eta bera, zer ari zen han? Henri. Bai, Henriren bila heldu zen hirira. Eta espero zuen,

lagun haiek argibideren bat emango ziotela. Ordea, haiek ere isildu ziren: beharbada, berriz ere berak zerbait esateko zain. Berak baina, ez zuen zer esanik, eta horrek mikaztu egiten zuen. Gero begibeltzak, botilan likorerik ez zela-ta, enborra jiratuz: «Eli!», hots egin zuen; «non sartu da hau?». Ez zen behinik-behin hura barraz beste aldean.

Beltzez jantzitako gizaseme-olde bat sartu zen orduan ostatuan, haiek ere nonbait hildakoaren lagun, edo menekoak; eta, bazetozen haiekin hiru-lau emazteki ere. Artean, paretaren ondoko mahaian ziren gizon-emakume txiki-adinekoak jaiki, batek neskatila lo zegoela zeramala, atera ziren. Alta, ja sartu berri ziren haietako batzuek okupatu zituzten joandakoen aulkiak. Giroa latz kargatzen ari zen. Eta, deus esatekorik izan ez eta, hala ere lagun gisa eta moldezki hartu zuten lagun haiei bere oniritzia erakutsi beharrez, zutitzen hasi zen eta: «Neuk aterako dut», esan zuen. «Hago», heldu zion besotik begibeltzak: berak aterako zuela. Alabaina, Xan ja zutunik zegoen. Lepamotzak, konfiantza gehiagoz: «Lau atera itzak», agindu zion.

Xan barraraino heldu zen. Asko ziren txaketa-beltzak, hala ere tokitxo bat atzeman zuen barraren izkinan. Gizon haiek, gehienak behintzat, Xan bera baino aise handiagoak, aise sendoagoak ziren, edonola ere Xan, kikildu gabe, ukondoaz ondoan zuenari bultz pixka bat egin eta, beso biak barra gainean ipini zituen, toki zabalxeagoa eginez. Gizonak Eliren zain, neska berriz, nonon airatuta zegoen.

Zegoen hartatik Xanek ikusi zuen gizon gazte bat, jertse gorri, arrunt batekin jantzia, sartu zela ostatuan, oso mozkor edo behinik-behin drogaren baten edo batzuen oso efektupean, oso pasa-pasa eginda. Gaztea bazen ere ilea urdintzen, bakantzen hasita zeukan. Bajoxka eta tximino aurpegia zuena zen, eta begiak bizi-bizi kinatzen zituen, mueka garratzak eginez. Barra alderantz bilin-balanka heldu eta, han zenetako bati basoa eskutik kendu, zurrut batean hustu zuen. Gero, Xanen alboantsu zen emakume gazte baten atzean jarri eta haren mugimenduak baldarki irudikatzen hasi zen. Emakumeak berriz, eta harekin ziren gizonek ere, ez bide zuten hura ikusten, ez zuten erreparatzen. Burlak haa-

tik ezin ez-ikusizkoak ziren. Xan hari begira zegoela, bada, bat-batean ohartu zen, emakume gaztearekin zeuden gizonezkoak, jertse gorrikoari ez baina, berari begira zeudela: zorrotz eta lazki. Esan ere, batek zerbait esan zion; euskaraz, dudagabe, oso azkar, oso sisibasaka, ordea, Xanek ez baitzuen ulertu. Bere konfusioa ezkutatuz, duintasun itxurak eginez Xanek bekainak goititu zituen eta barra aldera jiratu. Eli ez zen oraindik ageri. Pasa zen denbora pixka bat. Xanek, barra gainean makurturik, zango-besoak txindurritzen ari zitzaizkiola sumatu zuen. Giro kargatua burua zurruntzen, betazalak itxiarazten ari zitzaion. Lokartzen ari zen. Hura ebitatzearren enborra saihetserantz okertu, lepoa luzatu zuen: Eli ikusten ote zuen sukaldean. Hantxe zen, bai, neska, kortinaren zirrikitu batetik ikusi zuen, aulki altu batean eserita, telefonoz ari. Alta, Elik ere ikusi zuen bera. Ez ote zion, gainera, berari eskuaz keinu bat egin. Bai eta, seguru aski keinu hura hala interpreta zitekeen. Elik insistitu zuen. Hartakoz, Xan barrapetik pasa zen eta sukaldera sartu. Sukalde handitxoa zen. Argia ostatuan baino ere motelagoa, lurrean

xikin-farrasta batzuk, inguru-inguruan armario bat, fregadera, frigorifikoa eta beste makina bat, kamantza bat, mahai bat aulki birekin, edari-kajak, ogi zorro bat zeuden. Eli telefonotik eta kaier batean zerbait eskribitzen ari zen. Une batez mikrofonoa estaliz: «Baduzu minutu bat?», galdetu zion Xani; Xanek baietz eta, Elik aparatuan: «aizu», esan zuen, «ostatuan jende asko daukat. Lagun bat dago hemen, berak hartuko dizu nota». Xanek, neskak libre utzitako tokian eseriz: «Bai?», esan zuen. «Bai? Nor zara?», galdetu zion kableaz bestaldetik gizon baten ahotsak; erantzuteko betarik emateke: «igual dio», esan zuen; «non ginen? A bai...». Izen bat, zifra bat aipatu zituen; oso segidan, beste izen bat, beste zifra bat... Xanek nola-hala apuntatu zuen; izen haiek, ordea, hain arraroak ziren; baiki, Xanek batzuk adituta zeuzkan: edari-izenak ziren, noski, kaja-kopuruak, agian, aldean; alabaina, ezagutzen zituen haiek ere ez zekien xuxen idazten. Bestalde, aspaldi idatzi gabe zegoen eta, letra eskerga, txit makurra, txit eskasa egiten ari zen. Kableaz bestaldekoari polikiago esateko eskatuko zion, baldin eta hartarako be-

tarik utzi balio; hark esan eta esan, Xanek hitzak arras osatu gabe, larrikara, letraz letra idazten.

Igaro ziren minutu batzuk, osatu zuen behinik-behin zerrenda gaitz hura; despeditu zuen ahotsak. Kezkaz begiratu zion zerrendari Xanek: letra txar hura... errenkada makur hura, goian ezker-ezkerrean hasi eta behean marjen itzelarekin amaitzen zena... Xan lotsatuta zegoen. Hargatik laga zuen, zuhurki, apal batean kaiera; alabaina, orduan etorri zen Eli. «Eskerrak hor zinen», esan zuen eta, kaierari gain-begiratu bat emanik, Xan beldur zen bezala burla adierazi gabe: «ederki», esan zuen eta, orain keja-doinuz: «koinatua zen; beti deitzen du ez-garaian»; ilea atzean biltzekoa egin zuen, axolagabe tripaxka, zilborra erakutsiz; «harena da ostatua», erantsi zuen; Xanek, nahastuxe oraindik, isilik zirauenez: «nahi duzu kafesne pixka bat?», eskaini zion. Xanek onartzearekin, Elik kazo bat esnez bete, sutan ipini zuen. «Hortaz, familia negozioa duzue?», esan zuen Xanek. «Berea du», esan zuen Elik; «normalean ahizpa egoten da; orain hura bajan dago eta, aldi bateko nago ni». «Banengoen ba», esan zuen Xanek, «ez zela hauxe

zure profesioa». «Zer ba?», galdetu zuen Elik, bekokia zimurtuz. «Ez dakit... bueno... igual oker naiz», duda egin zuen Xanek. «Ez», esan zuen Elik, «ez da nire profesioa... Ez daukat profesiorik, ez naiz inongoa, ez dakit ezer. Hori esaten dit amak». Xan pixka bat konsternatuta zegoen. «Ez nuen hori esan nahi», esan zuen. «Noski», esan zuen Elik; «inork ez du ezer esan nahi»; Xan mutututa zegoen; bista jaistean, ohartu zen zapatetako lokarriak askatuta zeuzkala; lotzekotan eseri egin zen; Elik esnea baso bitan zerbitu, gainean kafe sorta bana isuri, gero, ostatura behako bat emanik Xanen parean, hankak zabalik zituela jarri zen; minduta bazegoen ere, ez zuen behinik-behin ematen; koilaratxoarekin azukrea disolbitzen ari zelarik: «ikusi dut», esan zuen, «lo gelditzen ari zinela barran». «Bai... nekatuta nago», aitortu zuen Xanek. «Beharra baduzu, lo pixka bat egitea duzu... hortxe», esan zion Elik, kamantza erakutsiz. Tentazio bat zen; alabaina, bere situazioa zein zen kontsideraturik, ez zitzaion egokia iruditu. «Eutsiko diot», esan zuen; bere baitan, geroko, kamantzaren aukera baztertu gabe; Eli bere galtzetatik hatz mamiez

xakar bat kentzen ari zela, Xanek aurpegia begiztatu zion; bekain fin eta luzeak, begizuloak, arin makillatuta zegoen; «hemen bizi zara?», galdetu zion. «Hemen, han... Ez dakit», esan zuen Elik, berriz ere betosko; basotik edan zuen, gero, Xanen aztoratzearekin dibertituta bezala: «bai, hemen... hurbil bizi naiz», esan zuen, hortz zuri-zuriak erakutsiz, eta: «nobioarekin», erantsi zuen; eta, bazuen istant hartan zerbait bihurrikeria begietan. «Hori ere pentsatu dut», esan zuen Xanek, «alegia, nobio gabe ez zinela izango». «Zer ba?», galdetu zuen Elik, muxindu gabe orain. «Ez dakit... zaren bezalakoa...». Elik bere baitako jaso zuen irribarrea. «Hala ere», esan zuen, «ez dut askotan ikusten»; Xan begira zuela-ta: «kanpoan da», esplikatu zuen. Pena zuen? Axola zion? Existitzen zen, hala ere, nobio hura? Eta, existitzen bazen, guztiarekin sinetsi behar zuena, maite ote zuen Elik? Orain, hatz artean ile-adatsaren puntak erabiliz, beraiei begira distraituta zegoen. Bestalde, haren belaunak Xanena ia-ia ukitu egiten zuen. Xanek eskua pixka bat luzatu zuen. Elik ez ohartua egin zuen. Ilea lisatuz, zain bezala, eta aldi berean, bere mun-

duan, urruti bezala zegoen. Bat-batean, ostatutik dei-hotsak etorri ziren: era lehorrean, Eliren presentzia galdeginez. Xanek harantza begiratu zuen. Kortina pixka bat zabaldu eta lepo luxeko tipo bat, betaurreko biribil, lodiak zituena, beraiei begira zegoen. Eli jaiki zelarik ezkutatu zen hura. Xanek kafesnea bukatu zuen.

Eli aurrean zela, irten baino lehen ostatura biak, neska itzuli, hatz biz bere ezpainak ukitu eta, hatz bi haiexek Xanen ezpainetan paratu zituen. Xan harritu zuena baina, musua bera baino (hain azkar izan zen, ohartu orduko Eli ja barrara zegoen), hatz haien hotza izan zen: metalhotza, sentsazio arraro bat... Inertziak irtenarazi zuen sukaldetik. Barran, gizonskila itsusi bat (alde batera, lehengo mozkorraren guztizko antza zuena, berau ere jertse gorriarekin jantzita, baina honek, hark ez bezala, ile motz-motza zeukan) iuramentuka, barran zaflakoak jotzen ari zen. Bestalde, ostatua mukuru beteta, abarrots handia zegoen. Xan agertzearekin berriz, momentu batez abarrotsa apur bat apaldu, marmar sendoa bilakatu ote zen. Eta, ez oso zuzenean begiratu arren, ez ote ziren batzu-batzuk

behintzat berataz ari. Ez baitzen gauza segurua; berehalaxe ahotsak goititu, zalapartak bere lehengoan segitu zuen. Bazitekeen hala ere orain-dik ere berataz, agian Eliz ere aritzea. Guztiaz ere, bazirudien ikusiagatik sukaldetik elkarrekin-tsu irteten, jakinagatik ustez zekitena, ebitatu egiten zutela zuzen begiratzea. Soilik gizonskila presentagaitz hark begiratzen zion berari inso-lentki, eta Eliri, zatarki, arin birra bat ateratzeko, eskatzen zion. Eli ordea oso trankil, situazioa kontrolpean zeukala zirudien. Xanek bere lagu-nak, hiru gizasemeak bilatu zituen. Han ziren, ba: ez, ordea, lehengo mahaian, ezpada pareta-ren kontrakoan, nahiz bakoitzak besteekiko bere posizioari eutsi. Bere soa lepamotzarenarekin kruzatu zelarik, nahiz unetxo bat izan, huraxe askia izan zen Xani haren begiradan distira arra-ro bat sumatzea iruditu zekion. Zena zela Xan ja barratik kanpo, ja bere lehengo izkinan, ja Elik hiru kopak zerbitzeko zain gelditu zen.

Hiru lagunek beso zabalik hartu zuten; antza kopengatik zen; idorrago ziruditen gaineratiko-an. Euren aldean aulki librerik ez izan eta, ez zuten hargatik kezkatzeko itxurarik ere egin.

Beraz, zutik zelarik: «Galdu al haiz?», esan zion begibeltzak, burla-doinuz, ez arrunt gaixtoki hala ere. Sudurmakoak, irribarretxo batekin: «Kontuz ibili beharko huke», esan zion eta, eskuaz Xani hurbil zekion seinale arin bat eginez, xuxurlo batean: «hor duk bere nobioaren anaia»; Xanek begiratu zuen; «altu hori». «Lazaro handia», esan zuen burloso begibeltzak, «Henriren karrika berekoa». Azken informazio hura interes handikoa zitekeen. Xan ordea, minduta zegoen. Uste ote zuten bada, Elirekin irrika-asmorik izan zuela? Bestalde, halaxe zen, noski. Haiei berriz, zer axola zien? Familiakoak al ziren? Ez, begi-bistan zenez. Zierto, auzotarrak ziren. Horrek, ordea, bere aferetan sartzeko deretxorik ematen al zien? Ez zuten hala ere kikilduko. Ezin zenez haiekin eseri, bestalde ja nahi ez zuena, apartexko egongo zen, zutik. Kopatik zurrut bat egin, Eliren nobioaren anaiari begiratu zion. Tipo luze, ile-urdin, esku ikaragarri handiak zituena zen. Tipo latza behintzat. Beltzez jantzita bera ere, txaketako mahukak ukondoraino bildurik, une hartan barrarantz hurbildu, Elirekin hizketa pixka bat egiten ari zen. Agian harengana behar zuen.

Hark jakingo zuen, agian, Henriren berri. Bederen-bederen handik goiti Xan, apurka-apurka mahaiko hiru lagunengandik bereizi, Lazaro harengana inguratuz joan zen.

Baziren haren inguruan gizon gehiago, batzuk solas bizi-bizian, buila handiak ateraz. Lazaro aldiz, Xani begira zegoen. Basoa eskuan, ezpainak droleki bilduta, haren begietan sinpatiazko distira bat ez ote zegoen. Agian Elik berataz zerbait esan eta zerbait hark grazia egiten zion, menturaz alkoholaren efektuz. Behinik-behin, aurrera pauso bat eman eta: «Xan», esan zuen; ezagutzen ote zuen?; «Xan, adiskide», esan zuen; bistan da, txerbelduta zegoen; «zer kontatzen didak?». Xan apur bat hurreratu zitzaion eta, kikilduta bazegoen ere ahots halabeharrez oso goitiz: «Hi», esan zuen, «Henriren auzokoa omen haiz». «Henri?», esan zuen Lazarok; «karrika berekoa»; beste zerbait esan zuen; Xanek ordea, ez zuen hura aditu; ez-aditze aurpegia paratu zuen eta, Lazarok orduan, eskutzarra Xanen lepoan ezarrita, bere belarriaren gainera makurtuz: «Henri eta biok...», hasi zen. Istantean ordea, beste gizon batek, gero beste batek, zer-

bait esan zioten Lazarori. Honek barre egin zuen. Solas nahasi batean trabatu zen bi lagun haiekin. Ez zuen haatik bere eskutzarra Xanen sorbaldatik kendu; aitzitik eta, orain lepatxokoa ferekatzen ari zitzaion. Belarria tentetuz, zertaz ari ziren entelegatzen saiatu zen Xan. Ez zuen ulertu ahal izan: bezperako edo egun bi lehenagoko, berari noski eskapatzen zitzaion zer-edo-zertaz ari ziren-eta. Bestalde Lazaro lagun haietako bati espainolez ari zitzaion. Bazitekeen hark ez jakitea euskaraz. Ez zen, hala ere, probablea, haren kolorea, haren sudurra ikusirik. Bazitekeen lagun arteko ohitura bat izatea. Xanek bere kopa hustu zuen.

Gero Lazarok, eskua tinki zarraturik Xan beraiengana hurbilarazi zuen; hurrean zituen bi lagun haiek nola-hala presentatu, zerbait galdetu zion. «Orain heldu haiz, ezta?», izan zitekeen galdera hura; hargatixe Xanek: «Orain, bai», esan zuen. Lazarok: «Ederra hori», esan ote zuen; Xani lepoan atximurra egin zion; aspaldi ikusi gabeko parranda-lagun bati legez ari zitzaion; segurrenik, bera Henriren lagun ona izanik, lagunaren laguna erabiltzeko modua beste-

rik ez zen; bestenaz ere Lazarok halakoxea behar zuen: umorekoa, bromazalea; bere besozuztar, tripa irten samar harekin, tipo espeziala behar zuen; halako batean, Xanen kopari erreparatu eta, mozkor-konplizitate arruntez: «zer behar duk?», galdetu zion. «Ezer ez», esan zuen Xanek; baina, Lazaroren aurpegi garratza ikusirik, amore eman zuen. Lagun haietako batek egin zuen barrarakoa. «Eta», esan zion Lazarok Xani, «zer dakigu Henriz?»; total eginda zegoen. «Hiri galdetu behar nian», esan zuen Xanek. «Zer?», esan zuen Lazarok. «Hemen ote zen», esan zuen Xanek. «Hemen?», esan zuen Lazarok; besoa Xanen lepagainetik kendu, trago bat edan zuen. Zerbait esan zuen. Berriz esan behar izan zuen, baten batek bultza egin eta, Xanek ez baitzuen aditu. «Henri ez duk hemen aspaldi», izan zen Lazarok bitan esan zuena. «Hirian ote zen», esan zuen Xanek. «Hirian?», esan zuen Lazarok; harridurazko espresioa ipini zuen; «balitekek hirian egotea», erantsi zuen, «hiria handia baita; balitekek beste auzo batean izatea»; ustez, horiek izan ziren Lazaroren hitzak; bazirudien mihia pixka bat trabatu egiten zitzaiola;

«nik behintzat ez diat aspaldian ikusi», esan zuen; azken hori, Xanek Lazaroren ahora begira igarri zuen; izan ere, handiak ziren inguruko abarrotsak; bestalde, Lazaro hain altua zen: zuhaitz bat zirudien, tente jarriz gero; alabaina, Xanek ez zion ohartarazi, ez zitzaion gisakoa iruditu, hain zuzen ere zeukan altueragatik bere hitzak espazioan galdu egiten zirela; alta bada, Lazarok berak konprenitu ote zuen, hurrengo hitzak Xanen gainera areago makurtuz esan zituen-eta; «lehengoan», esan zuen, «egundoko mozkorra harrapatu genian». Zertaz ari zen? «Henrirekin?», galdetu zuen Xanek. «Zer?», galdetu zuen Lazarok. «Henri. Henriz ari al haiz?». «Ha, ha», esan zuen Lazarok, «ez motel. Jaiez; jaiez ari nauk». «Jaiez?», esan zuen Xanek. «Ha, ha», esan zuen Lazarok, berriz ere Xani eskuzarra lepagainean ipiniz. Ondoan zeukan lagunari zerbait esan zion. Barre egin zuen hark. Beragatik ari ziren? Ez noski. Jaiez; jaiez ari ziren: pasadizo barregarri bat gogoratzen ari ziren. Ez zuen haatik orain ere Lazarok Xan bazterrera laga: berari ere ari zitzaion. Xanek berriz ez zuen deus esaten. Aztoratuxe, zorabiatuxe zegoen. Kopa berri-

tik trago bat edan zuen. Bazirudien gatxa izango zela Lazarorekin ere Henriren berri izatea. Noski auzoan ez zen. Hirian ote zen? Hala aditua zuen. Anartean, Lazaro isildu egin zen, begi grisak kinatzen zituen, zutik lokartu behar zuela zirudien; segitzen zuen, hala ere, Xani besarkatua; beso astuna zuen. Xanek, hark bakarrik aditzeko maneran: «Haren berri nork emango lidake?», galdetu zion. «Zeinen berri?», esnatu zen Lazaro. «Henriren berri», esan zuen Xanek. «Henriren berri?», galdetu zuen Lazarok; oso harritua zirudien; «neuk emango diat», esan zuen; «neuk emango diat Henriren berri»; bat-batean, serioplanta eginez: «zer jakin nahi duk?», galdetu zion; zurrutaldi batean hustu zuen basoa, barran laga zuen; «ba al dakik», esan zuen, «Henri eta biok ekipo berekoak ginela? Zera jakingo duk. Hago. Eli!»; Xani begia kinatu zion; Eli etorrita, harekin zerbait jardun zuen; Eli sukaldera zihoala: «la-ostia gintuan», esan zuen; luze gabe etorri zen Eli, ertzak kixkorturik zeuzkan aldizkari bat ekarriz; Lazarok bere hatz larriekin orriak farrasta-farrasta pasatu zituen; «hemen duk», esan zuen; foto batean kirolari batzuk ageri

ziren: mutil mordoxka bat, batzuk pikotxean, beste batzuk zutik, oro galtza motzetan, oro gris tono bereko kamisetez; alde batean, zutik, neska bat zegoen; «ezagutzen al duk?», galdetu zion Lazarok. «Nor?», galdetu zuen Xanek. «Ha, ha», esan zuen Lazarok; «nor, dio. Henri». Zigarro bat piztu zuen. Xanek arretaz begiratu zuen. Tantai hura Lazaro bera zen noski; baloia zuen hura... «Baloia duena», esan zuen Lazarok. «Bai», esan zuen Xanek. «Futbolean ari izan zela hiri ez zian esango», esan zuen Lazarok. «Ez...». «Izan ere, oso txarra zuan. Ha, ha. Hemen ez delako bazaukaat esatea. Hi: gogoratzen al haiz...?»; fotoaren ilusioan hiru-lau lagun arrimatu ziren, barraren kontra, Xan eta Lazaroren inguruan korro itxi batean; batek errebista hartu, beste bati erakutsi, foto hura zela-ta ele sunsun batzuk egin zituzten; «atzean jokatzen zian», esan zuen Lazarok; «beti zirikatzen, kontrarioa aspertzeraino; eta, baloia zuela, zelaiko punta batetik bestera lasterka zihoala, ez zegoan hura harrapatuko zuenik; hala zihoala baloia galdu ere bai, ordea, sarritan; regateoan baldar hutsa zuan»; zurrut egin eta: «alde, alde!», bere lagunak uxatu zituen;

Xan eta biak saihetsez saihets, berriz ere fotoari begira: «neska, ezagutzen al duk?», galdetu zuen Lazarok. «Mmm». «Bere neska-laguna», esan zuen Lazarok; Xani hura miresteko tartetxo bat eman eta: «gero hura laga zian», segitu zuen; «edo neskak laga zian bera, jakin zuenean... He! Henri beste batekin liatu omen zuan; hura... he! ari zen enpresako tipo baten emaztea izan! Handik alaba bat izan omen zian»; zigarroari azken ezpainkada bat eman eta, hura lurrera botatzearekin: «total», esan zuen, «gero gertatu zena gertatu zuan eta Henrik hura ere utzi egin behar izan omen zian».

Ja basoak hustu, ja batek ordaindu, ja beste batek: «Goazemak», esan zuen. Hartan Lazarok: «Ba al daukak non lo eginik?», galdetu zion Xani. «Ez, baina...». «Gurean egingo duk», esan zuen Lazarok; eta, berriz ere Xan bere besapean hartuta, ate alderantz arrastratu zuen; saiatu zen Xan erresistitzen; ahulki, baina: igo zitzaion patxarana burura, ez zen arras bere baitakoa; alde batera noski, ohea behar zuen; bestera berriz, gustura gelldituko zen... Eliri begiratu zion; neskak ordea, basoak garbitzen ari-ta, ez bide zuen

bazihoazela ikusi; guztiaz ere, apur bat gibelera egin zuenez: «iup!», esan zuen Lazarok; «ba al gara edo ez gara?»; eta, Xanek ezbaia egin zuenez: «Henriren lagunak nire lagunak dituk», esan zuen; arrazoi akabaila; «hator, familia ezagutuko duk», erantsi zuen; nahi bazuen ez bazuen, ez zion behintzat beste biderik utzi: ja ateraino eraman zuen; alta... kontsumitu zuena ordaindu behar zuela-ta, Xanek patrikatik sos batzuk ateratzekoa egin zuen, barrara joatekoa; Lazarok, ordea: «eginda zagok», esan zuen. Begiratu zuen, bere aztoramenean, barra aldera berriz ere Xanek. Eli, irribarrezka, begira zeukan: figura maitekorra, figura atxikigaitza. Beren txokotik begibeltzak, lepamotzak eta sudurmakoak, eskuak altuera ezberdinetaraino jasota diosala egiten zioten.

Bazihoazen lagun batzuk karrikan gora, bazihoazen beste batzuk behera. Azken haiekin abiatu ziren eurak. Kaleak bustita, eurixka ari zuen. Alda-maldaka zebilen talde luze, inkonexo, barreiatu bat zen. Zazpi-zortzi lagun ziren hastapenean, gero batzuk lanbrotan atzendu, lau gelditu ziren. Lazaro, Xan, eta beste bi tipo. Haieta-

ko bat rubioa, gizenkara, hartz-tankerakoa zen; bestea berriz musu-luze, ile-beltz, basamoxal-idurikoa. Eta hala ere, bazuten biek-ala-biek aire bat, mozkor-izate bat batu egiten zituena. Ibilera ere bazen: biak baldar, biak botatzarrekin, metro beteko zankadak eginez. Zabor-pila batetik arratoi bat atera zelarik ile-beltza espantuka hasi zen; rubioak inprekatu zuen ozenki. Gero biak pote huts bati ostikoak jotzen aitzinatu ziren. Han aitzinetik, oihuka eta uluka despeditu zituzten.

Lazaro zigarro bat pizteko gelditu zen. Gero segitu zuen. Haren ondoan, isilik, gibelatuxe jarraitu zuen Xanek. Puska batean hala ibili ziren. Halako batean Lazarok, pertsiana ertitxita zeukan ostatu baten aurrean, Xani egotekoa eginda, makurtu eta atean tok-tok egin zuen. Berriz egin zuen. Atea zabaldu zelarik, Lazarok, lauzangoka, nonorekin solas labur bat izan zuen. Gero, nekez bada ere jaiki, Xanengana etorriz: «Ez dik nahi. Fuera!», esklamatu zuen. Nahi zuen, beraz, beste ostatu batera sartu. Xan berriz, erdi-loan, zapatak herrestaka zihoan. Segitu zuten. Lazarok orain tarteka-marteka Xanengana itzuli, hitz

erdi bat esan, begiratzen zion halakoxe estimaz. Noski mozkortuta zegoen. Xan ere edanxka zegoen; horrek esplikatzen zuen bere zabarkeria. Hain zuzen ere, ez ote zezakeen, Lazaro bertan lagata, bere bide propioa egin: ostatura itzuliz? Ez, ez zezakeen, Lazarok hain adiskideki bere etxea eskaini zionez. Sikiera Henrigana eramango balu. Deus ez zen inprobableagoa une hartan. Agian, seguru aski Lazarok bazekien, ez bazen non zen, bai behintzat nola harengana heldu, hartaz zeini galde egin. Ez zion, ordea, berehalakoan esango. Hala ziren hiriko legeak. Eta hala ere, hitzak hitz, Xanek Henri auzoan ez zela garbi atera zuen. Edo bazen, guztiarekin, inork ez zekiela, etxe haietako batean? Bere gogoan gelditu ziren bezalakoxe etxeak: etxe jaso, hits, arima ikusezinez poblaturiko etxe hauts kolorekoak. Karrika luze, ez oso zuzen haiek. Honatharat, gizakien zurrumurruak, gizakien itzalak.

LAZAROREN ETXEKOAK

Berriz ere gora, ez ote ziren buelta bat egiten ari; Xan hankan min gaizto bat sumatzen hasi zen. Kale zabal batean zebiltzan orain. Alde batera parke txiki bat, beste aldera banakako etxeak. Lau estaiko etxe estu baten aurrean gelditu ziren, Lazarok patrikatik giltza-sorta bat atera zuen. «Henriren etxea?», galdetu zion Xanek. «Henrirena?», esan zuen Lazarok; Xan kale erdira eraman eta: «han kale-kantoian ikusten duk ba, leiho gorri ilunekiko bat? Hura zuan Henriren etxea». Hormak huntzaz estalita, leihoak zarratuta zeuden. «Hutsik al dago?», galdetu zuen Xanek. «Hala uste diat; badik denbora pixka bat hara kristorik sartzen ez dudala ikusi», esan zuen Lazarok, ja giltza bere atariko sarrailan sartzeko makurtuz. Xani, beti hara begira, parkean itzal iheskor bat ikustea begitandu zitzaion.

Bebarrua estua zen: paretara hertsiki arrimatu behar izan zuen Xanek, itxi ahal izateko atea. Goian, argi dardarati bat. Gorantza, eskailera zu-

rezkoak. Hara gabe, parez pareko atea ireki zuen Lazarok.

Haren atzean, haztamuka sartu zen Xan; mahai batekin topo eginda, han gelditu zen, Lazarok mahaiaren gainean zegoen argi txiki, motel bat piztu zuen arte. Tetxo oso bajuarekiko gela zabal bat zen, errektangulu formakoa: sukaldea, mahaiak eta aulkiak alde batean, bi ohe eta armario handi bat bestean. Gelako alde hura aski ilun bazegoen ere, Xani ohe biak hartuta zeudela iruditu zitzaion. Lazaro txaketako poltsikoak husten ari zela, Xan zain gelditu zen, hark nora behar zuen esan ziezaion. Ez zirudien, ordea, etxean beste gelarik zegoenik. Bestalde Lazarok, sukaldetik bi kopa eta botila bat ekarriz, aulki batean jartzeko gomit egin zion. Elkarren ondoan jarrita, topa-legea egin, edan egin zuten. Kup batez edan zuen Lazarok berea. «Ederra», eta: «Bai», komentatu zuten. Oheetariko batean norbait remobitu zen. «Etxean egina», esan zuen Lazarok harroki; norbait hura jaiki, bazetorkien bata bat erdi-jantzita; «gabon, emazte», esan zuen Lazarok, halakoxe umorez; emakumeak zerbait esan zuen; apika hizkuntza atzerriko ba-

tean, Xanek ez baitzuen ulertu; eta Lazarok, hain zuzen ere: «zer diñozu, emazte?», jaurtiki zion; «hitz egizu klaro, komeni denez»; ez zion emazteak jaramonik egin; sukaldera joaki, baso bat ur edan, fregaderaren kontra apoiatuta, besoak antxumaturik so gelditu zitzaien; «Xan, Luzi; Luzi, Xan», esan zuen Lazarok; jaiki zen apur bat Xan, Luziri eskua luzatu zion; Luzik laxoki estutu zion; ez zegokeen bestalde emakumea txit umore onean; bistan da, ez ziren orduak; mazelezur handia, ile rubioak nahastuta, begiak ondo ireki ezin zituela zegoen; Lazarok zigarro bat piztu zuen eta: «Henriren laguna da», esan zuen. «Henri?», esan zuen Luzik; izen hark apur bat iratzarri ote zuen. «Itzalpean bolada bat eginda gaur arratsean etorri da-ta, gurekin egingo du lo». «Baai», esan zuen Luzik jentilki; hala ere, ez zitzaiokeen iruditu egundoko idea. «Ivanekin», esan zuen Lazarok, adieraziz-eta, normala ez ezik, ezin egokiagoa ere zela. «Ni...», hasi zen Xan. «Hi lasai», moztu zion Lazarok; «beste kopa-erdi bat edango diagu»; bere kopa erditik gora bete eta: «Henri ikusi nahi du», esan zion Luziri. «Ikusi?», esan zuen harrituta Luzik. «Esan

diot», esan zuen Lazarok, «ez dabilela hura begibistan; esan diot. Nahiz-ta... zuk igual ikusi duzu?»; gaixtoki esan zuen. «Nik?», esan zuen Luzik espantuz. «Bere kuttuna zian», esan zion Lazarok ahapeka Xani; eta, Luziri: «ez duzu ukatuko». Luzik zerbait marmarkatu zuen; agi denez, beste hizkuntza hartan; tartean baina, «kirtena» hitza aditu zuen Xanek. Lazarok barrekarkara egin zuen. «Ixo», agindu zion Luzik; haurra ohean zela-ta; gero, Xani: «ba, niri esan, Henri hirian dela». «Hik ba al dakik ukranieraz?», galdetu zion Lazarok Xani; honek buruaz ezeztatu eta: «segi'zazu euskaraz», esan zion Luziri. «Esan, bakarrik», esan zuen Luzik. «Esan, esan... Gauza asko esaten da», esan zuen Lazarok; «suetena dela-ta... he! Noiz artekoa ote da? Eta, presoek, zer esaten dute? M'kabuen...». «Zure anaiak, igual jakin», esan zion senarrari Luzik. «Anaia? Hura mendian beleei begira dago, hura ez da ezerekin enteratzen»; trago bat edan eta: «ateraiozu, Luzi, Xani jateko zerbait; bide luzea eginda etorri da-ta». Xanek ez zuela behar adierazi zuen. Alabaina, ja Luzik nonondik gazta zati batzuk, ogi puxka bat atera zituen. Bizkitartean

Lazarok, Xanek protestatu arren, kopa baztertu gabe, eskueran baso bat ardo ezarri zion. Xan pentsaketa gogorrean murgilduta zegoen. Beraz, su-etena zegoen. Noiztik ote, eta zein kondiziotan? Zena zela ere, agian horrek Henriren bilatzea erraztu egingo zion; izan ere, bazitekeen burkideek, egoera berrian, oraintxe ez bazen laster batean, emeki-emeki beren gordelekuak utzi, argitara irtetea. Xanek gazta zati bat eraman zuen ahora. Luzi kutxara bat garbitzen ari zela, Lazarok berriz, uzkurtxo zirudien. «Agian», esan zuen Xanek, «gerra amaitzen ari da». Lazarok bafako bat egin eta, buruari poliki eraginez: «Gerra galdu diagu», esan zuen; Xani tinki begira zegoen; Xanek ordea, ez zuen deus esan; kokoloaren aurpegia zuela susmatuagatik, hala nahiago zuen; alta bada, Lazarok: «orain», esan zuen, «jakin behar diagu derrota administratzen»; buru urdinean hazka pixka bat egin eta: «hori ordea, ez baitago gure esku», bukatu zuen. Handik pixka batera: «Zenbait gauzak», aitortu zuen Xanek, «ihes egiten dit». «Niri ere bai», esan zuen Lazarok; hainbesterekin, isildu ziren; Xanek beste gazta zatitxo bat hartu zuen;

gazta latz eta gogorra, ogia ere gogortxo zegoen; Lazarok, zigarroa ezpainetan zuela, burua jirabiran ibili zuen; «Luzi», esan zuen, «egidazu masaje pixka bat hementxe». Luzi otzanki hurreratu, esku biez senarraren lepoaldea igurtzi zuen. Xani ahoa zabaldu egin zitzaion; beste zer eginik ez zuela, ardo trago bat edan zuen. Laster berriz, burua alde batera makurtzen, betazalak batzen hasi zitzaizkion. Hartaz Luzik: «Zure laguna», esan zion Lazarori, «lo dago». Oihartzun gutxi izan zuten hitzok Lazarorengan; begiak itxita zeuzkala: «Ederki gara», esan zuen; «ezta, Xan?». «Ederki, ederki», esan zuen Xanek, apalxko. Egin zuen bere jarrera erorkorra zuzentzeko ahalegina, plantatu zituen beso biak mahaian. Hartan, begiak irekiz, Lazarok ardoz bete nahi izan zion berriz ere basoa. Ezetz eta, Xanek basoaren ahoan paratu zuen eskua. Lazarok hala ere berean eta, ardo xorta bat isuri zen kanpora, mahaian putzu txiki bat eginez. Xan desolatuta zegoen. Luzik, isurkina trapu batekin xukatu eta gero, Xani besotik helduta: «Etorri», esan zion. Xan zutitu eta: «Zer?», harritu zen Lazaro; «dagoeneko erretira?»; bazen gaitzeste pixka bat

galdegite hartan. «Bihar...», hasi zen Xan. «Segi ezak, segi ezak», esan zion Lazarok: konprenitzen zuela. Xan pot eginda zegoen. Logaleak bentziturik, zinez ari zen erortzen.

Luzik Ivan txikiari pareta aldera bultza egiten ziola: «Hor egin dezaket», esan zion Xanek, alfonbra seinalatuz; agian absurdoa zen: Luzik, ulertu bazuen, ez zuen behintzat deus esan; agian irribarre egin zuen. Ivan txikia bestalde, apenas higitu zen. Ile luzexka, ahoa zabalik, antza lo gogorrekoa zen.

Lazaro eta Luzi urrun-urrun zeuden orain. Lazarok segitzen zuen erretzen, Luzi haren buruan zerbait bilatzen ari bide zen. Xanek begiak itxi zituen... Loak hartzea ez zen, haatik, hain erraza izan. Baziren, alde batetik, Lazaroren eta Luziren estalikako irriak. Ez ote ziren berataz ari? Seguru aski ez, seguru aski ez esnatzearren ari ziren irri-estalika. Bazuen, beste alde batetik, gosezirri bat. Noski soberaxko edan, gutxixko jan zuen. Eta, jan zuen gazta hark, ase barik, gosea arrabiztu zion. Gainera bat-batean zakila oso gogor jarri zitzaion. Eta, jarrera aldatu zuelarik, ez ote zuen Ivan pixka bat esnatu; ez ote zituen

mutikoak begiak pixka bat ireki. Une batez hala izan bazen ere, Xanek ondo begiratu zionean, itxita zeuzkan. Azkenerako, lokartu ote zen. Izan zitekeen geroxeago, izan zitekeen handik ordu batzuetara, atzera esnatu, Lazaro eta Luzi beren ohean zirela ohartu baitzen. Ilunean iuramentu bat, geroago hasperen batzuk aditu zituen.

Esnatu zenean, bakarrik zegoen. Horrek harritu zuen, bera, lo arinekoa izanda, nola ez zuten besteen jaiki-hotsek iratzarri. Hain aspaldi zen ez baitzuen bizkarpean halako ohatze gozorik izan. Zenbait txoriñoren kanta-hotsak aditu zituen, urrutitxo motor-hotsak. Lazaro eta Luziren ohean estalkia liso-liso paratuta, haren gainean bere arropak txukun aski tolestuta zeuden. Haraxeago berriz, aulki batean jarrita, mutiko bat berari fijo begira zegoen. Zalantza pixka bat egin eta gero, Xanek mantak alboratu, ohean jarri eta: «Ivan?», galdetu zion. «Hola», esan zuen Ivanek. Handik pixkatxo batera: «Bakarrik zaude?», galdetu zuen Xanek. «Bai», esan zuen Ivanek; jaiki gabe, lasai asko: «amatxik prestatu dizu gosaria», esan zuen. «Amatxi? Non dago ba amatxi?». «Goian». «Aita eta ama?». «Lanera

joan dira», esan zuen Ivanek. «Aita ere bai? Non egiten du ba aitak lana?». «Ez dakit... makina batean», esan zuen Ivanek. «Eta zuk, ez duzu eskolarik?». «Gaur ez», esan zuen Ivanek.

Mutikoa aurretik zihoala, zurezko eskaileretan gora, lehenbiziko estaian gelditu ziren. Giltzaz itxi gabe zegoen atea zabaldu, sabai altuko sala bat kruzatu zuten. Bazter batean gizon zahar bat pareta higatzen ari zen espatula batekin. Tripa handia, antiojoak, bizar pixka bat, Xan ikusi zuelarik: «Egun on», esan zuen, aztoratuxe, lanari une batez utziz. «Berdin», esan zuen Xanek, bat-batean eskuak nora sartu ez zekiela. Ivan sofan, telebistaren aurrean jarri zen, publizitate spot bati so. «Pasa, pasa», esan zion aitatxik, espatularekin sukaldea seinalatuz.

Sukaldean amatxi labadoratik arropak ateratzen ari zen. Emakume luzea, lasto koloreko soineko alai batekin. «Jaiki zara», saludatu zuen, eta: «ondo lo egin duzu?»; gero: «jarri, jarri», gonbidatu zuen; Xan jarritakoan: «Lazaro arratsaldean etorriko da», esan zuen amatxik; katilutik hurbil esne-kazoa eta kafeontzia lagata: «hemen egoteko esan du, gurekin bazkalduko

duzula»; zerbait objetatu nahi izan zuen Xanek; alabaina, su-gaineko lapikotik pir-pir ari ziren indaben usain gozo-gozoa zetorren; eta: «jan, jan», esan zion amatxik, labetik ogi xerra errearin batzuk ateraz, gurina eta mermelada ere Xanengana bilduz; «gaur ere euriantza dago», esan zuen, arropen baldea jasota, leihoz kanpora begira. «Mmm», esan zuen Xanek, ja ogi puxka bat ahoan. Kanpora zihoala: «Jan, jan», esan zuen amatxik.

Segitzen zuen, ikus zezakeen Xanek bere txokotik, aitatxik salan espatula jardunean. Berez, lan arina zirudien. Hura berriz nekez, hasgeldika, baldarxka ari zen; ez izaki, seguru aski, ofizio horretakoa. Edota, artega zegoen: hain zuzen, Xan begira zuela nabarituz; eta hartara, ahalegintzen zen lana hobeto egiten, are gehiago nekatuz. Afan hartan, hauts pila ateratzen ari zen. Oroz gain, Xani haren janzkerak eman zion atentzioa: mahonezko galtzak, baiki, txaketa beltz zabal bat ere bai, ordea. Agian hiriko moda zen. Agian berak ere lortu beharko zuen txaketa beltz halakoxe bat, nahi zuen bezala ez aperzibituan pasatzeko.

Xanek, katilukoak eginda, jaiki, leihoz kanpo begiratu zuen. Etxe aurreko parkean, zuhaixken artean, banku batean gizon heldu bat azpian egunkari orri batzuk zituela eserita zegoen: beroki ilun hura, ez ote...? Bai eta, bezperan berak ostatuaz galde egindako tipo hura bera zen. Zer ari zen han? Bere zain ote zegoen; bijilatzen ari al zen? Eta, hala ari bazen, berenez edo norbaiten aginduz ari zen? Zuhurki jokatu behar zuen. Eta, batez ere, lasai egon. Leihotik aldenduz: «Ilun da giroa», esan zuen. «Bai!», esan zuen salatik aitatxik; «beti dago ilun!»; gero, Xan ate-alboan baratu zela ikusiz: «jarri, jarri», esan zion, paletarekin sofa erakutsiz. Izan ere orain, espatula lagata, kapazoan masa preparatzen ari zen. Xan Ivanen ondoan jarri zen. Mutikoa telebistako marrazki bizidunei begira iltzatuta zegoen. Laster Xan, aldamenka, aitatxiri begira jarri zen. Hura ordea, zertan ari zen? Agi denez, pareta txukundu behar zuen: arraspatu zuen estreina, orain raseatu behar zuen. Hantxe zeukan kapazoan masa egin berria, hantxe igeltsuaren zakua, hantxe uraren baldea, lurrean brotxa, llana eta nibela. Orain berriz, paleta lagata, ez

zuen bada atzera espatula hartu, eskailerara igo, ez zen bada berriz ere pareta goian arraspatzen hasi? Akatsen bat ikusi zukeen. Berriz ere nahita-ezinean ari zen: kemenez, baiki, ez ordea txit abilki. Bistan dena, masa gogortu egin behar zitzaion. Eta, goian ari zela, pareta-zatitxo batzuk kapazo barrura erori ziren. Xan jaiki egin zen eta: «Gogortzen ari da», esan zuen, apalki. «Gogortu?», esan zuen aitatxik; larri baina, situazioa kontrolatu egiten zuela adieraziz: «ba!», esan zuen. Segidan berriz, eztul eraso bat izan zuen, ez jaustearren paretari heldu behar izan zion. Masa eta pareta seinalatuz: «Zer duzu, honako?», galdetu zion Xanek. «Horrako eta, honako ere bai», esan zuen aitatxik; «baina, zer ari zara?»; Xanek pareta brotxagaz bustitzeari ekin zion-eta; «laga, laga», esan zuen aitatxik. «Ofiziokoa naiz», esan zuen Xanek ezaxolaz, aise, ez zezan aitatxik alde makurrera hartu. Aitatxik temoso, lotsa-antzean begiratzen zion. Akitua zegoen, eta hala ere: «Ez da preziso», esan zuen. «Hala ere», esan zuen Xanek, orain masa paletarekin onduz, kolpe bizika eraginez, gero bizkor-bizkor llanarekin paretan hedatuz. Aitatxik

amore eman zuen; kritiko segitzen zituen Xanen desmartxak, amusaturik agian; hargatik, Xan kapazoko hondarrak batzen ari zela: «Hor», agindu zion eskailera-burutik, eta berriz ere: «hor», hartara garbi utzirik bera zela obrako burua; Xanek beheko aldeko husgune guztiak bete zituelarik: «hori da», esan zuen aitatxik; Xan paleta garbitzen ari zela: «orain lanik gabe egongo zara?», galdetu zion. «Hala nago bai», esan zuen Xanek; «non-han zeozer bilatu beharko dut». Aitatxik, berriz ere espatula-lanari ekin eta: «Orain etxe asko egiten ari da», esan zuen. «Batean edo bestean...», esan zuen Xanek. Sukaldera joan, kanilapean eskuak garbitu zituen. Handik itzulian, aitatxi eskaileratik erori ez erori zegoen: antiojoak lurrean zituela, bisaia zuri-zuri, kordoka ari zen. Xanek lagundu zion jaisten, aulki batean esertzen. Nekez hartzen zuen arnasa, begiak lanbrotuta zeuzkan. Xan beste aulki batean jarri eta kartoi-puxka batekin haizea ematen ari zitzaiola, atzera mintzatzeko kondizioetan zelarik: «Hark ere bazekien igeltsuan», esan zuen aitatxik. «Hark?», galdetu zuen Xanek. «Henrik», esan zuen aitatxik; beraz Lazarok haren bila etorri

zela kontatu zien; ez zen komeni, agian, berria hala-hala heda zedin; hotsa behar ez ziren belarrietara heldu zitekeen; alta, bazitekeen zaharrak datu berriren bat ematea; bazirudien zerbait esatekoa zuela; izan ere, antiojoak jarri eta, eskuaz apurtxo bat hurbiltzekoa eginez: «ixilpeko obra batzuk egin zituen», esan zuen; sekretuka, hurrean zen etsairen batek adi balezake lez; ordea beraiekin Ivan txikia besterik ez zen; esan zituen hitz haiek Xanengan sortzen zuten efektua ikustearren pixka batean isilik egon eta gero: «ixilpekoak ziren», esan zuen, «baina nik banekien ari zirela»; gero, bekainak jasota, apalkixeago: «orain baino orduan errazago jakiten ziren gauzak», aitortu zuen. Esku-gibelaz ahoa igurtzi zuelarik: «Nahi al duzu baso bat ur?», eskaini zion Xanek. Aitatxik lelo-lelo begiratu zion; gero, eskuaz ezezkoa egin eta, armario bat erakutsi zion. Xanek hura ireki, barruan botila bat ardo zegoen. Hau? esan gabe, erakutsi zion Xanek. Bai, orobat isilik, aitatxik. Xanek baso bat erditik gora bete, eskuratu zion. Aitatxik kulka-kulka edan, gero Xani basoa eta botila armarioan jasotzeko adierazi zion. «Beraz ezagutu zenuen?»,

galdetu zuen Xanek. Irribarre eginik, aitatxik hortz urrezko bat erakutsi zion. Ardoak bizkortuta, haren masailak pixka bat koloretu ziren. «Bizikletan etortzen zen hona», esan zuen; «esaten zigun: halako eta halako herrietan, mendi-lepoz lepo ibili zela... Gero Simca zahar batean zebilen. Orduan ja gutxiago etortzen zen hona. Bazituen noski beste egiteko batzuk. Beti zerbait buruan hark. Beti zerbait makinatzen. Gero jakin genuen lanean hasi zela. Olaben: enpresa handi bat, orain fuerte dabilena. Ez ote zuen gainera Henrik handik zetorrela behin auto-istripu bat izan. Hala ere ondo atera zenean...».

Amatxi sartu zen; paretako lanari erreparatu gabe, Xan eta bere gizona zokoan eserita ikusiz pixka bat harritua, laketua ere bai, Xani: «Ondo gosaldu duzu?», galdetu zion; baietz, eta: «nahi duzu beste zerbait: urdaiazpiko pixka bat edo...?». «Ez eskerrik asko», esan zuen Xanek, ohitura zenez. Amatxik sukaldera sar-atera egin zuen; handik heldu zela, nonbait zerbait antzemanik: «Edan duzu», esan zion aitatxiri: galdedoinu batez, erreprotxe apur bat eztituaz, menturaz Xan han zelako; aitatxik hatz birekin xorta-

ño bat baizik ez zuela edan adierazi zuen; amatxik isilik, buruari eraginez egin zion errieta; alabaina, ez zegoen aitatxi bere onik onenean; berriz ere zuri-antxa, berriz ere flakezak hartuta zegoen; amatxik Xani: «jar zaitez sofan». Xanek duda egiten zuenez: «Zoaz, zoaz», esan zion aitatxik. Joan zen behintzat Xan Ivan zuntzunduaren ondora. Geroxeago aitatxi ere jaiki, hurreratu zen urraska-urraska beraien aldera. Hain poliki zihoan, minutu pasea egin baitzuen besaulkiraino. Ez zuen batere planta onik. Xanek trabeska begiratzen zion, pena pixka batekin, zaharraren ziztrintzeaz alarmatuta ere bai. Aitatxik jarri eta bertan zen manta xingle batekin estali zuen bere burua; doi-doia sudurra eta begiak libre utziz; begiak telebistan finkatu zituen.

Hainbesterekin, legea hala zenez, orobat egin zuen Xanek. Telebistan une hartan, irudi latz batzuk ikusten ziren. Film bat izan behar zuen, non ez ziren albisteak, edo erreportaia bat. Espainolez ari ziren. Zer zen hura, baina? Emakumezko bati, bularrean zauri handi bat zuela eta hil-gogor zegoela, tipo batek, pasatzen zen batek edo polizia paisanozko batek, ez baitzen

esplizitatzen, buruan ostiko txiki bat jo zion. Detaile horrek pentsarazten zuen film bat izan zitekeela. Hala ere, izan zedin esatari bat, izan zitezen protagonista batzuk hain bertako itxurakoak, izan zezaten hain bertako azentua: bertako espainolaren azentua, horrek guztiorrek pentsarazten zuen, egiaz gertatua ez bazen, krimen, edo zigor baten errekonstrukzio bisuala zitekeela. Oraintsu gertatua ote zen? Ez zen probablea, su-etena egiazkoa bazen. Han gelditu zen behintzat, espaloian, emakumezkoa, eta harixe begira kamera, denbora luzean; orain hankak: zapatatakoinak, kanpai-galtzak; orain enborra: jaka motza, bularra gorria; orain burua: sudur zuzena, begiak erdi zabalik, oro arretaz erakutsiz. Amatxi albotik, pixka bat aurreraka kuxkurtua, eskua masailean zuela begira zegoen; iragarkiak hasitakoan aldendu zen, zintz eginik painuelotxo batean.

Orain pantailan neska-mutil lerdenak ageri ziren, honek kolonia bat, hark auto bat iragarriz. Bere besaulkian ernegaturik higitu zen aitatxi. «Ezin da telebista ikusi», esan zuen muxinduta; «kaka zahar bat da». Ez ote zen gelditu beste

zerbait esateko gogoz; ez ote zituen berba batzuk txitxibutxikatu. Ahoa okerturik, ordea, burua alde batera jausten ari zitzaion, betazalak ere ixten. Anartean amatxik salako aulkiak mahai gainera jaso, sukaldetik eskoba ekarri zuen. Hura ikusirik aitatxik erremuskada batez manta bazterrera bota, jaiki, emazteari eskoba kendu, obrako hauts eta zakarrak biltzen hasi zen. Amatxi apur bat apartatu zen. «Ene», esan zuen, ikaratuxe; aitatxi, kartsuki, muebleak lekuz aldatzen ari zen; arras makurturik, etenbeharrean lurretik igeltsu-pella gogor bat askatzen ari zela: «erotu zara?», galdetu zion erruki-turik amatxik; Ivanek ere jiratu zuen burua; galdera hura aditu eta aitatxi lurrera bere betean jaustea, biak bat izandu ziren; bizkor salto eginagatik Xanek ezin zuen ebitatu zaharraren buruak lurraren kontra kanka egin zezan; amatxi ere heldu zen fite, gizonaren burua bere magalera ekarriz; aitatxi dardarka ari zen; «zer duzu, zer duzu?», galdetzen zion amatxik, haren masailetan zaflaxkoak emanez; eta negar egiten zuen: negar mantso bat, etsipenezkoa, dagoeneko aitatxi hilda balego bezala; damuturik, agian, une

fatal hartan ero deitu ziolako. Dardarra baretzean kieto-kieto gelditu zen aitatxi. Ivanek haren eskumuturra hartu zuen; Xanek, zaharraren bularrean belarria paratuz, taup, taup, aditu zuenez: «Ari da, ari da», esan zuen. «Ene, ene», esan zuen amatxik; geroxeago aitatxik begiak ireki zituen; egin zuen irribarre drole bat; «zer duzu, Simon?», galdetu zion amatxik sinkulinka. Aitatxik, begirada harengana zorroztuz: «Badakizu», esan zuen, «badakizu zer dudan». Ivan atzera sofara zihoan; ez zen aitatxiren lehenbiziko atakea izan behar hura, ez ziren amatxiren lehenbiziko lamentoak izan behar haiek. «Nik ez dakit», esan zuen amatxik negar-ipaka. «Badakizu, bai», esan zuen aitatxik; eta begi hanpatuak Xanengan ipiniz: «zuk ere badakizu», jaurtiki zion. Xanek begiak oso zabaldu zituen. Alabaina aitatxik maitekiro begiratzen zion orain. Salaketa hura eginik indarrez hustu balitz bezala zen, areago, berak ez balu bezala inoiz halakorik esan; ez balu bezala, orain, Xan ezagutu ere egingo. «Lazaro hemen balego», esan zuen amatxik. «Eta medikuari abisatzea?», galdetu zuen Xanek. Aitatxik izututa begiratu zion; ederki ze-

goela erakutsi nahian, enborra pixka bat altxa, jaikitzekoa egin zuen. Ezin izan zuen. Amatxi berriz, ez baietz ez ezetz zegoen. Xan zutitu egin zen, hartara distantzia pixka bat markatuz: Nahi zuten egotea? Egongo ziren. Hala ere, bazirudien zinez aitatxi bere onera ari zela etortzen. Ez zen ja ahoa, ez ziren ja begiak bakarrik: berauen aurrean, eskuak ere mugitzen zituen, baldar, harriduraz. «Aber heldu hanketatik», esan zuen amatxik; ja bera, indar gaitza erakutsiz, heldu zion gizonari besapeetatik, ja Xan eta bien artean trinkili-trankala, erdi-herrestan eramaki zuten gizona sofaren ondora. Aitatxiri zeharrera begira baina, begiak telebistatik erabat kitatzen ez zituen Ivan txikia besaulkira igorri eta, Xanek eta amatxik eup! eginez jaurti zuten aitatxi sofaren gainera. Aitatxik protesta egin zuen. «Zergatik narabilkizue horrela?», esan zuen; eta bazen pena, eta bazen mina hitz haiexetan; gero berriz: «nor zarete zuek?», galdetu zien. Amatxik, bere aurpegia harenera hurbilduz: «Simon... ez al nauzu ezagutzen?», galdetu zion. Matraila estuturik, tinki begiratu zion aitatxik. Amatxik bere esku hezurtsua erakutsi zion, ustez-eta hura eza-

gutuko zuela; aitatxi begi-gogor; amatxi sotinka hasi zen. Hartan aitatxik irribarre bihurri bat egin zion Xani. Eta, xuxurlo batean, amatxik adituko ez zuelakoan, ustekunde zentzugabea, edo aitzitik, aditu egingo ziola ederki jakinda, eta beraz gaiztoki: «Tematia da, gaixoa», esan zion Xani; ez zituen aprezio handian emaztearen arretak; «lehengoan», segitu zuen, «edan xamartuta etorri nintzen eta, berak oheratu ninduen»; eta, kariñoz bezala: «gaixoa», errepikatu zuen. «Ez zenuke edan behar», esan zuen amatxik, gizonari papotik iletxo bat kenduz. «Ni asko edanda nago», esan zuen gizonak harroxko; «zuek ez dakizue, nik... mozkor handiak, eta ez aldian behin, ez zortzitik behin. Egunero mozkor. Hori, zu (amari) ez zinenean. Eta zu zinenean... ere bai»; eta, emazteak txit zoritxarrekoa izateko seinaleak ematen zituenez: «aire!», esan zuen, eta eskuan ez zeukan zerbait botatzeko imintzioa egin zuen. Amatxik besaurrearekin babestu zuen bere burua. Hartara Xanek: «Zer ari zara?», esan zion aitatxiri. Aitatxik fijo begiratu zion: zu nor zara? esanez bezala; hala ere, Xanen indarra hautemanik, apur bat kikilduz,

bere barkamena eskatuz: «Bizitza kontrolatu egiten dit», esan zuen, erruki-doinuz. Alabaina, arestian bere beste aurpegia, bere aurpegi latza erakutsi zuen. Tirano bat zen; edo, agian: banpiro bat zen, manka ezkero andrea, hil egingo zena. Hori, aitatxik berak bazekien ongi aski; eta damu zen, horregatik, oraintxe; eta, bere azkeneko ordu zitekeen honetan, barkamena eskatu nahi zuen. Begian malko bat zeukan. Amatxik ere bazeukan malko bat begian, Ivanek ere, nahiz pantailara begira, bazeukan malko bat begiaren ertzean. Hargatik, Xanek, bigarren aldikoz, orain amatxiri zuzenean: «Agian medikuari deitu beharko genioke», sujeritu zion. «Bai», esan zuen amatxik etsian. «Ez!», oldartu zen aitatxi; ezpainak dardarka, begietan sua berriz ere piztuta. «Zure on-beharrez da», saiatu zen amatxi. «Badakit zer nahi duzuen», esan zuen aitatxik; ez zuen prezisatu: arrotz baten aurrean (aldika, hala baitzen Xan, nahiz aldika etxekotzat ibili) ezin aipatuzko hitzak zirela ulertzera emanez. Noski uste zukeen, zor zioten begiruneagatik ez bada beldurragatik bederen, ez zirela ausartuko medikuari deitzen. Emazteak ordea, sa-

rreraren ondoan, mahaitxo batean zegoen telefonora jo zuen. Deitu eta baten batekin mintzatu zen. Orain dibertiturik kontenplatzen zuen Xanek aitatxiren aurpegia: apo-aho luzea, kopetan harridurazko zimur ilun kiribiltsuak. Amatxik komunikazioa etetearekin, aitatxiri kopeta atertu, ahoa zabaldu zitzaion. Lur-jota zegoen. Bestenaz amatxik beste telefono dei bat egin zuen; nonorekin solas animatuan jardun, irri egiten zuen. Agian ez zen inorekin ari, agian bere poz irudikoaz gizona zigortu nahi zuen.

Ivan bere ohiko ezaxolara itzuli zen. Noski telebistan futbola zegoen, hain segurki aitatxiren begirada erakarri zuena. Halako batean: «Ivan!», esan zuen, «igo bolumena!». Bat-batean arrunt piztu zen. Interesatu egiten zitzaion telebista, zeinaren kontra, ordea, lehentxeago net mintzatu zen. Arranguratzekoagoa zen orain salaz bestaldeko situazioa. Izan ere amatxi, telefonoa eskegita, makal-antxa lurrera begira, aulki luzean kuxkulduta zegoen. Aitatxi-ilobak lagata, Xan harengana joan, haren ondoan jarri zen. Errespetatu egin zuen amatxiren isila. Halako batean, burua jaso gabe: «Qué va a ser de nosotros»,

esan zuen amatxik; ez zedin hala tormentatu, Xanek hari eskua heltzekoa egin zuen; ordea, amatxiren esku bihurrikatuek goaitean zeuden piztiak begitandu zitzaizkion eta, atzera egin zuen; bere besoaz amatxirena apur bat loxinkatu zuen; agian lagun-erakuspen sinple hartaz lortuko zuen, ez zedin ez-une hartan amatxi bera ere zurrundu, nola baitzen aparientzia noiznahi gerta zitekeela; bitartean, aitatxi sofatik jaiki zen, xarraka-xarraka koarto ilun batera joan, handik kojin bat hartuta poliki-poliki etorri, berriz sofaratu zen; «zer egin du?», galdetu zuen, begiratu nahi ezik, kezkatuta amatxik. «Kojin bat hartu du», esan zuen Xanek. «A», esan zuen amatxik. Aitatxik ordea, ez nonbait kojin harekin gura zuen konfortik atzematen eta, berriz ere jaiki, berriz ere xirri-xarra gela ilunera joan, beste kojin batekin itzuli zen. «Beste kojin bat hartu du», esan zuen Xanek. «Ondo dago», esan zuen amatxik, esperantza poxi batekin; alabaina, armariora beste joan-etorri bat egin zuen aitatxik; koadro txiki bat zekarren oraingoan; sofan jarri zen, hura besartean zuela begiak itxi zituen; eta, Xanek ez baitzuen ezer esaten:

«orain, zer egin du?», galdetu zuen amatxik. «Koadro bat hartu du». «Ze koadro?». «Txikia da, eta badu marko bat urre kolorekoa». Amatxik hasperen egin zuen. Trankil gelditu zen behinik-behin aitatxi. Ez halaxe amatxi, isiltasun hark kezkatzen bide zuena. «Zer ari da?», galdetu zion Xani. Xanek lepoa luzatu zuen. «Badirudi lo gelditu dela», esan zuen. Lasaialdi bat izan zen. Amatxi ere lokartzen ari zatekeen; handik pixka batera berriz, dardar egin eta: «Lo segitzen al du?», galdetu zuen. Aitatxi geldi-geldirik zegoen. Zer zen ere, Xan harengana hurreratu zen. Gizona enborkia baino zurrunago zegoen. Xanek haren aurpegira gerturatu zuen berea. Aitatxik salto egin zuen. «E!», esan zuen espantuka; «zer...?». «Ni naiz», esan zuen Xanek; «uste nuen...». Ez zuen frasea amaitu. Aitatxik gogor begiratu zion. «Hilda nengoela», esan zuen; «hori uste zenuen».

Ezkilatxoa jo zutelarik, Xanek ireki zuen atea. Eskailera barrenean txuriz jantzitako bi gizaseme zeuden. Handia, sabel ederrekoa bata, txikia, meharra bestea. Handiak kamillari eusten ziolarik, txikiaren begiek diz-diz egiten zuten. Xan

asaldatu egin zen. «Hemen al da gaixoa?», galdetu zuen txikiak. Xanek alde batera egin zuen, bi gizonak sar zitezen utziz. Haiek sarreran amatxi ikusi zuten: ate ondoko aulkian, egur-puxka ihartu bat bezala kiribildua. Ja hari heldu behar zioten, ja handiak paratu zion esku mazoa gainean. «Ni ez», esan zuen sumindurik amatxik, «hura»; heldu ziren bada aitatxigana gizaseme biak; han eta hemen apur bat ukitu, errutinazko galdera pare bat egin, aitatxik hinkik esaten ez zuenez, kamillan ezarri zuten; laga zuen aitatxik eramaten; agian ulertu zuen kontra egitearen alferra, gizaseme lar sendo eta propio lan hartarakoxe entrenatuak ziratekeenez; guztiaz ere, nabari zen haren begietan izua, noski, etxea behinbetikoz lagatzeko izua, baina izu konkretuago bat ere, bertan behera erortzekoa: atera heldu-ta, orain zutik, kili-kolo zegoen amatxi ebitatzearren, kamilla apur bat okertu zutenez, aitatxik hanka bat paratu zuen lurrean; erizain handiak etzanarazi zuen; «suabe», eskatu zion amatxik. «Bazihoan-eta», defenditu zen erizaina. Hartan amatxik: «Egon», esan zuen; eta eskegitokitik beroki berde bat hartuta: «ni ere banoa», esan

zuen; manta arin batekin senarra estali zuen; Ivani deitu zion; Ivan txikia, Xanen ondora etorrita, beldurxko zegoen; ez zen, hala ere, aitatxiren suertearekin erabat indiferentea; izan ziren zenbait laztan eta musu; «Xan», esan zuen amatxik; ja erizainek bazeramaten aitatxi kanpora; «egingo bazenigu mesedea». «Nola ez», esan zuen Xanek. «Lazaro etorri bitartean», esan zuen amatxik, «okupatuko bazina mutikoaz». «Noski», esan zuen Xanek, eskua Ivanen sorbaldan ipiniz, bere kontra pixka bat estutuz. Amatxik, irribarre maxkal bat eginez: «Eramazu gora», proposatu zuen. «Gora?», harritu zen Xan. «Gora», esan zuen amatxik, «nire amaren etxera». Gero zalu-zalu irten zen, bere gizon matxuratuaren atzetik.

Ivan eta Xan eskaileretan goiti, mutikoa jauzika, Xan haren atzetik, pauso bakoitzean zurak krak egiten zuela zihoazen. Posible bazen, pentsatu zuen Xanek, amatxi zahar harekin utziko zuen mutikoa, segituko zuen bere bide propioa berak.

Ivanek txokoren batean atzemandako giltzarekin atea zabaldu, lasterka sartu zen korridore

ilunean. Xanek ez zuen deus ikusten. Egongo al zen amatxi zaharra etxean? Jakin gabe ezin aldegingo zuen behintzat. Hala bada, egin zuen berak ere barrura. Mueble txiki batekin topo egin zuen, paretetan koadro batzuk, zenbait apaingarri bitxi hauteman zituen.

Korridoreak sala-kamarote batera zeraman. Kortinak itxita, lanparak pizteke, eguerdi-aldea behar bazuen ere, ilunxko zegoen. Mahai apal, zabal-biribil batean kafeontziak, kikarak, pasta batzuk ere bazeuden platertxo batean. Bat-batean bizkarrekoa bordatu-lan batez estalia zuen besaulki batean emakume xahar-xahar bat ikusi zuen Xanek. Ximur-ximur egindako mahaspasa zirudien. Amatxi zaharra behar zuen. Hark, zerbait sumaturik noski, bere kristal lodiko betaurrekoak beragana itzuliz: «Lazaro?», galdetu zuen. «Ez naiz Lazaro», esan zuen Xanek, apur bat hurreratuz. «Henri?», galdetu zuen amatxi zaharrak. Xan gogor harritu zen; ez zuen beraz Henrik, ez denboran ez espazioan, handik hain urruti behar; ez baldin bazuen noski amatxi zahar hark ere koskaren bat buruan, familian bestalde korrientea zirudiena. «Ez», esan zuen

Xanek, amatxi zaharragana beste pauso bat emanez; amatxi zaharra apur bat inkorporatu zen, begirada lausoz, jakinminez: nor zara ba? galdetzen ziola; «Xan naiz». «Xan?», esan zuen amatxi zaharrak, harridura handiz. «Lazaroren laguna», esan zuen Xanek. «A», esan zuen amatxi zaharrak; «eta hori?», besaulkiaren atzean ezkutatu zen mutikoagatik. Pi-pi egiten zuen jostailu-makina txiki bat zerabilela, Ivanek irri egiten zuen. «Ivan da», esan zuen Xanek. «Ivan, horixe», esan zuen amatxi zaharrak, situazioa pixkanaka ulertuz; «baina, ez zaude hor; jarri, jarri», gonbit egin zion amatxi zaharrak Xani. «Ez, ni...». «Jarri, jarri», insistitu zuen amatxi zaharrak; «kafetxo bat hartuko duzu gurekin».

Orduan ikusi zuen Xanek, berari bizkar emanda, sofa batean beste bi emakume jarrita zeudela. Haietako batek, besoa luzatuz, Ivani burua laztandu zion. Haienganako erreberentzia txiki bat eginez, Xanek eskua ere emango zien, haiek predisposizio pixka bat erakutsi balute. Haiek ordea, irribarre distantez begiratzen zioten. Ivani burua ferekatzen ari zitzaiona, amatxi zaharrak Maria deitu zuena, amatxi zaharra bera bezain

zaharra zen, nahiz, potoloagoa izanik, larru lisoagoa zeukan. Bestea berriz, Lolita, bera ere zaharra baina, dudagabe gazteagoa zen; zehazkiago, haur zahartu bat ematen zuen; bere irribarre xaloaz, burutik eskas samarra menturaz.

Bero egiten zuen, Xanek zamarra erantzi, eseri egin zen. «Oraindik bero egongo da-ta...», esan zuen amatxi zaharrak, kafea zerbituz; beste bi emakumeak begira-begira zituela sumatu zuen Xanek: lotsaz eta bazterka, Lolita, disimulorik gabe, jakinmin apika gaiztoz Maria zeritzona. Azken horrek bere papardoan perlekiko lepoko bat luzitzen zuen, begiak eta ezpainak higuingarri pintatuta zeuzkan. «Ez zintudan behin ere ikusi, uste dudanez», ekin zion hark, elezuri. «Probablea da», esan zuen Xanek. Ez bide zuen zaharrak halako erantzun laburrik espero; isilalditxo baten ondoren: «Hemengoa zara?», galdetu zion. «Ez», esan zuen Xanek. Maria zapuztuta zegoen. Amatxi zaharrak, Xani kikara hartzeko seinale bat eginik: «Etzanala ernegatu», esan zion Mariari. «Nik ernegatu?»; Maria ofendituta zegoen; «zergatik dion?». Lolitak (probabilitate guztiz, Mariaren alaba zenak) bere basotik esne

zurrut bat edan zuen. Anartean, nahas-alditxoa profitatuz, Ivan txikiak Mariaren eskuen artetik aldegin, amatxi zaharraren gonapean jarri zen. «Aitatxi ospitalera eraman dute», esan zuen. «Ospitalera berriz?», esan zuen amatxi zaharrak; «nolaz izan da?». Alabaina Ivan bere makinatxora bilduta zegoen. «Zorabioa izan du eta», esan zuen Xanek, «zure alabak pentsatu du hobe zela ospitalera eramatea». Eskuek dardar pixka bat egiten bazioten ere, ez zirudien amatxi zaharrak lar inpresionatua. Burua kordokatuz: «Ospitalea», esan zuen, «ez da toki ona». «Zer esan ninan?», esan zuen Mariak; «minbizia behar din». «O», protesta egin zuen amatxi zaharrak, «ez esan holakorik». Mariak, koilaratxoarekin kafeari eraginez, ustez inozentki: «Gaur askok dutena da», esan zuen. «Badakit askok dutela», esan zuen amatxi zaharrak; «ez da, ordea, orain esatekoa». Mariak, Xanengana itzuliz: «Gaizki esan al dut?», galdetu zion; Xanek zirkunstantziazko bekain-jasotze bat egin zuen; «mutilak konfiantzazkoa zirudin», esan zion amatxi zaharrari Mariak: konfiantza hark bere hitz, hala ere, ebidentki, ez oso bihotz-altxagarriak esplikatuko

balitu bezala; eta zuri-zuri, berriz ere Xani beha, irribarre dultze antzeko bat eskaini zion. Xanek, solasa beste-bidera nahian: «Kafe ederra da», esan zuen. «Gustatzen al zaizu?», esan zuen amatxi zaharrak; «hartu, ordea, pasta bat ere»; Xanek hartu zuelarik: «Lolitak ekarri ditu», esan zuen txeraz amatxi zaharrak. Lolitak irribarre herabe bat egin zuen. Xanek: «Mm... ederrak dira» esan eta, estimaz bezain apetitu onaz beste pasta bat hartu zuelarik: «Jan, jan», esan zion amatxi zaharrak, «hola gustua ematen du»; gero, etsipenean apur bat eroriz, hasperen luze bat egin eta: «guk ere laster despeditu beharko dugu», esan zuen. «Zer esaten ari haiz?», errieta egin zion Mariak; despeditu beharko dugu!». «Tenorea heldu delarik», esan zuen amatxi zaharrak, «despeditu egin behar da». «Tontakeriak, esaten ditunanak», esan zuen Mariak; hala ere amatxi zaharra lasai asko zegoen; haren begitartea argitu ere egin zen; nonondik galtzerdi bat atera, marmolezko arrautza baten laguntzarekin, hari orpoaldean petatxo bat paratzen hasi zitzaion; «hola bai hautsiko dun bista», egin zion Mariak eraso; berriz ere Xanen apoioa bilatu

zuen; berari begira: «ilun honekin...», esan zuen. «Bai... lanbrosko dago», dibagatu zuen Xanek. Hain segurki Maria pikatuxe zegoen. «Zure euskara», esan zuen, «arraro samarra da». «Hala behar du», esan zuen Xanek; eta, kopeta belztuta: «kanpoan izan naiz-eta... denbora luzean». «Kanpoan izan al zara? Non? ez bada atrebentzia». «Emakumea... hiri zer inporta zain?», esan zuen, betiere goxoki, amatxi zaharrak. «Galdera bat dun», defenditu zen Maria. «Motan egon naiz», esan zuen Xanek. Isiltasun handi bat izan zen. Aditua zuten emakume zahar haiek dudagabe Motako berri; bazekiteken jendea hara zergatik eramaten zuten; harrituxe zeuden, ez biziki kontra, nahiz seguru aski partidarioak ez izan. Xani esana pixka bat damutu zitzaion. Zer ari zen, zer inporta zitzaion, izan ere, bere bizitza antigoaleko emakume lotsagabe hari? Alta, amatxi zaharra hain leiala zen; bere lanean aplikatuta, irribarre ezti harekin... Ez zion behintzat hari ja-ta bertan laga eta aldegiteko itsusirik egingo.

Hartan Ivanek, burua amatxi zaharragana jasoz, beheitixko, baina Xanek aditzeko mane-

ran: «Henriren bila etorri da», esan zion. «Ui», esan zuen amatxi zaharrak, «ze kasualitatea». Une batez galtzerdia magalean utzi zuen; berehala jaso, petatxoari ekinez, bazirudien hartaz hitz egitea ebitatu nahi zuela. Mariak, aldiz: «Henri ezaguna duzu?», galdetu zion Xani. Interes handiz begiratzen zion. Bazen behintzat giroan halakoxe misterioa. «Ezaguna dut, bai», esan zuen Xanek. «Ez zara zu... haren familiakoa izango», galdetu zion Mariak. «Ez behintzat». «Badu-zu aireño bat...», esan zuen Mariak. Amatxi zaharrak, bista jaso eta: «Sudurra», esan zuen; «Henriren sudur berbera daukazu. Hargatik nahastu bainaiz lehenago». «Gazteagoa izatea», esan zuen Mariak; bera, edo Henri, nor zen gazteagoa, Xani duda gelditu zitzaion. «Agi denez», esan zuen Xanek, «aspaldi etorri gabe dago». Bazuen esperantza ezetsi egingo zutela. Ordea: «Badu bai denbora pixka bat ez baita auzoan ikusi», esan zuen Mariak. «Urteak ere badira», esan zuen amatxi zaharrak. «Hortaz», esan zuen Xanek, «ez dut agian ikusterik izango». «Ez da noski hura hemen orain», esan zuen amatxi zaharrak; besteak isilik, berak hasperen bat egin

eta: «lehenago», jarraitu zuen, «maiz etortzen zen hona; Lazarok esango zizun. Mutil ona zen, baina hain bizimodu desordenatua zeraman... Joaten zelarik, nik sagar bat, edo bollo bat ematen nion biderako. Ez zuen hartu nahi izaten. Nik esaten nion: hartu geroko. Banekien-eta nola zebilen. Orduan hartu egiten zuen». «Gaixoa», esan zuen Mariak errukitsu, «pobre bat bezala zebilen». Amatxi zaharrak, betaurrekoak adabakitik jasota: «Ez zunan pobrea», esan zuen airatuki. «Ez dinat esan pobrea zenik», esan zuen Mariak, «azken aldian pobre bat bezala zebilela baizik»; eta, haren froga gisa: «zapatapetan zulo eder bana zeramazkinan; neuk ikusita»; amatxi zaharrak ez zuen estremo hura ukatu, muxin zen arren; Mariak segitu zuen: «esaten zuen: oinez ibiltzen naiz, ez dudalako trenerako sosik. Eta nik esaten nion: trenean ibiliko bazina, ez zenituzke zapatak xahutuko hola». Onean hartu zuen anekdota amatxi zaharrak. «Amets egiten zuen», esan zuen oroimentsu, «egun batean mendian etxe bat egingo zuela. Mendian, esaten zuen: Okupe deitzen den parajean. Eta, han bada urmael bat, eta: bertan igelak haziko zitue-

la, esaten zuen»; barre egin zuten hiru emakumeek; «irrizua zen», esan zuen amatxi zaharrak. «Bazituen okurrentzia batzuk», esan zuen Mariak. «Jatorra zen», esan zuen Lolitak, erromantizismo kadukoz; beste zeozer esan behar ote zuen; ordea, Mariak idor begiratu zion eta isildu egin zen. Bazioten bistan da hirurek ere Henriri halakoxe kariñoa. «Nobia bat baino gehiago izan zuen», esan zuen amatxi zaharrak; eta, honako hau behintzat ez-hain-ona zen bezalako doinuan: «neskak erakarri egiten zituen, gero ez baitzien eusten». «Berbalari ona zen», esan zuen Mariak. «Zertaz eta zeinekin ere», esan zuen amatxi zaharrak; «behar zelarik bazekien isilik egoten». «Jakina», esan zuen Mariak, «bazituen bere sekretuak, bazituenez». «Ez ezkutatzeko ezer zuelako», puntualizatu zuen amatxi zaharrak, «holakoa zelako baizik. Hitz gutxikoa, bertakoa. Hemen holakoak gara».

Alta bada, Ivanek, bere zokotik: «Egia da», galdetu zuen, «gizon bat hil zuela?». Amatxi zaharrari hartu zuen sustoarekin josgaien kutxatila lurrera erori zitzaion: arropa-txatalak, xingolak, orratzak eta kolore eta forma ezberdinetako bo-

toiak lurrean eta alfonbran barreiatu ziren. Haien biltzeari ekin zioten Xanek eta Ivanek. Kezkatuxe zeuden Maria eta Lolita, larrixko amatxi zaharra. «Kontuz», esaten zuen, «mina hartu gabe». Ivan eta Xan pixka batean aritu ziren, alfonbran eskua poliki pasata, orratz buru-ttikiak atzematen. Amatxi zaharraren besaulkiaren azpian azazkalak mozteko tresna txiki bat atzeman zuen Xanek. Amaitu zutelarik: «Orduan... hil zuen?», galdetu zuen Ivanek. «Hori esan zuten», esan zuen Mariak. «Beste batzuek», esan zuen amatxi zaharrak, «esan zuten gizon hura hil zutenean, Henri ez zela hirian». «Formalki salatu zuten», esan zuen Mariak. «Kia!», esan zuen amatxi zaharrak, «Henrik ez zuen halakorik egingo». «Orduan nork hil zuen?», galdetu zuen Ivanek. «Jainkoak bakarrik daki», esan zuen amatxi zaharrak; «garai hartan», segitu zuen, «jendeak jendea hiltzen zuen; kaserna hartan gizon hura hil zutenean, ba, Henri hemen ez zenez, bere burua defenditu ezin zezakeenez, ba... berari leporatu zioten». «Nor zen hildakoa?», galdetu zuen Ivanek. «Gizon pobre bat, kulparik ez zuena», esan zuen amatxi zaharrak. «Ez omen

zuten jakin», esan zuen Mariak; «eztandak txikitxiki egin zuen, ez omen zuten identifikatzerik izan». «Ekibokazio bat izan omen zen», esan zuen Lolitak. «Litekeena da», esan zuen Mariak; «dena dela, ekibokazioa edo ez, bonba jarri zuena Henri izan edo ez izan, kontua da bera orduan desaparezitu zela». «Bere atzetik zebiltzan-eta», esplikatu zuen amatxi zaharrak. «Zeozer egingo zuen», esan zuen Mariak. «Beldur zen», esan zuen amatxi zaharrak. «Esan zuten», esan zuen Mariak, «zera biltzen ibiltzen zela... nola esaten da? Informazioa. Hori biltzen zuelako segitzen omen zuten». «Ez zuten segitzen ezer bildu zuelako», esan zuen amatxi zaharrak, «gaizki nahi ziotelako baizik». Mariak hasperen egin zuen. «Oso denbora mugituak izan ziren haiek», konkluitu zuen. Ja ezpainak hertsi, ja biak isildu ziren.

Handik pixka batera: «Listo», esan zuen amatxi zaharrak. Josi-lana alde batera laga eta: «nahi duzu beste kafe-xorta bat?», galdetu zion Xani. «Ez ez», esan zuen Xanek, eta kafeontzia berak hartuta: «zuk nahi duzu?». «Bueno», esan zuen amatxi zaharrak, «jarridazu pixka bat». «Gehia-

go?», harritu zen Maria; alabaina, Xanek berari eskaini ziolarik: «tira, nik ere ttantta bat hartuko dut», onartu zuen; amatxi zaharrak soineko-pleguren batetik ogi-kurrusko bat atera, kafetan beratu zuelarik, Mariak arbuioz begiratu zion: «ez zakinat nolaz ahal dunan orain...». Amatxi zaharrak, fastidiatuxe: «Lata ematen didan», gaitzetsi zion. «Lata nik?», esan zuen Mariak; «zer pentsatu behar du mutil honek...?».

Xan pentsatzen ari zen bazukeela aldegiteko tenorea. Eskuak belaunetan paratuz: «Bueno», esan zuen, «utzi egin beharko zaituztet». «Ja bazoaz?», esan zuen amatxi zaharrak; sinzeroa zen bere atsekabean; ogi-kurruskoa barruan zela kikara mahaian utzi, Xani despedida ematearren jaikitzera zihoan; galarazi egin behar zion jaiki zedin Xanek; istant hartan atean jo zuten; une batez guztiak gelditu ziren para-para eginda; segidan amatxi zaharrak, lurrean botoiak sailkatzen ari zen Ivani: «ireki ezazu atea polit horrek», eskatu zion.

Ez zuen Ivanek salatik irteteko betarik izan. «Ba al da norbait?» esanez, neska bat sartu zen. Xanek nahastuta, ahapeka saludatu zuen. «Eli»,

esan zuen Mariak, «zer egiten dun hemen?». «Manuelari ilea moztera etorri naiz», esan zuen Elik. «Ez hidanan esan», kejatu zitzaion amatxi zaharrari Maria. Ja Elik bere berokia erantzi zuen, ja eskegitokian utzi, ja bazihoan, bere etxean balego bezala, salaz beste alderaino, gehixeago zabaltzeko kortinak. «Ilunpean zarete», esan zuen. Amatxi zaharrak: «Atzo esan nionan etortzeko», esan zion Mariari, «pixka bat arreglatzeko puntak».

«Ikusi duzu zein mutil goapoarekin garen», esan zion amatxi zaharrak Eliri; honek irribarre egin zuen. «Bueno, ni...», hasi zen Xan. «Orain al zoaz?», esan zion amatxi zaharrak. «Bai, ni...». «Ile nahasi horiekin... nola joango zara?», esan zion amatxi zaharrak maitagunez; gaizki ezin hartu eta, Xan aztoratuta zegoen; amatxi zaharrak Eliri: «zergatik ez dion berari mozten, momentu batean?». Eli prest ageri zen. «Baina, zu...», esan zion Xanek amatxi zaharrari. «Nik ez daukat presarik», esan zuen amatxi zaharrak, bere kikarari ber-helduz; «egin, egin zuek».

«Zatoz, ilea bustiko dizut», esan zion Elik. Komunean Elik lababoaren kontra aulkitxo batean

jarrarazi, igurtzi gozoak eginez ilea garbitu zion. Xanek begiak itxita zeuzkan. «Ikusi zaitudanean», esan zuen, «pentsatu dut: nobioaren bila etorri da». Elik barre sotila egin zuen. «Atzo esan nizun, hura kanpoan dela»; eta, isil-arte bat eginda: «Henriz zerbait jakin dut», esan zuen; Xanek begiak ireki zituen, Eliren kokotsean atziki zituen; «kale honetan, etxe batzuk harantzago bizi zen». «Bai, Lazarok esan zidan atzo», esan zuen Xanek. «Familiarekin bizi zen hemen», segitu zuen Elik; «gero, lanean hasitakoan, Erdira joan zen. Han zen, izan zenean istilu guztia». «Han bizi al zen?». «Alde Zaharrean...», esan zuen Elik, «Etxart izeneko pentsioan»; eta, ia xuxumuxu batean: «geroztik ere han izan ote den...»; gero, doinua berriz ere goitituz, bere burua zurituz bezala: «ez da, nik uste, dagoeneko sekretu bat izango», erantsi zuen. «Etxart», xuxurlatu zuen Xanek, begiak berriz ere itxiz, Eli hatz-mamiez burua marruskatzen ari zitzaiola. Nork esan zion Eliri...? Ez zen, agian, neska guztiz inozentea; bazuen, agian, posizio bat sasipeko borrokan. Ez zuten beste hitzik esan. Bigarrenez burua aklaratu ziolarik, Elik ileak pixka bat

lehortu, salara eraman zuen; korridorean zebilen mutikoari: «Ivan», esan zion, «ekatzu salara aulki txiki hori».

Familiaritatez, aulkitxoa leiho ondoan jarri, haren gainean kojin bat ezarri zuen Elik. «Jarri», agindu zion. Xan amatxi zaharraren atzean, argiari begira zegoen. Hiru emakumeak amano zituela, haiengandik berex hala ere, Elik nonbaitetik orrazia eta guraizeak atera zituen.

Orraziarekin kilimak eginez, aise eta trebeki ekin zion Elik ilea mozteari. Artean Maria, amatxi zaharrari nonbait egun batzuk lehenago hil zitzaion katu batetaz ari zen; Elirekin ari: «Esaten du», esan zuen, «horma gainetik erori zela. Gaixoa, horma gainetik nola eroriko zen. Eta handik erorita ere, nola burua hautsiko zuen? Geuk ikusi genuen: burua lehertuta, belarritik odola zeriola»; amatxi zaharrak mahukatik zapiño bat ateraz zenbait malko xukatu zituen; «egun hauetan», segitu zuen Mariak, «oso triste egon da. Beldur izan naiz ez-egitekoren bat egingo ote zuen». «Zer esaten ari haiz?», esan zuen amatxi zaharrak. «Ez naun serio ari», esan zuen Mariak; egiazki, umore estrainio bat zerabilen. «Igual»,

esan zuen Lolitak, «teilatutik eroriko zen». «Ze gauzak okurritzen zaizkizun», esan zuen Mariak; «katua teilatutik erori? Noiz ikusi da?». «Eta zuk», esan zuen Elik, «nola uste duzu ba hil zela katua?». «Bistan da», esan zuen Mariak, «norbaitek hil zuen, eta gero ezkaratzera bota». «Zeinek hilko zuen... eta zergatik?», galdetu zuen Elik. «Badakita nik!», esan zuen Mariak. «Igual inbidiagatik», esan zuen Lolitak. «Inbidia?», esan zuen Mariak; «inbidia zerena, maitea?». «Zuk zer esaten duzu, Manuela?», galdetu zuen Elik, guraizeekin Xanen lepoa ferekatuz, Xani bestalde hotzikara bat sentiarazi ziona. Amatxi zaharra txol makalduta zegoen. «Agian», esan zuen, ixilka, «goizean errieta egin niolako... bere burua bota zuen». «Ez esan horrelakorik», esan zion Elik. «Katuak», esan zuen Mariak, amatxi zaharraren ustekizuna ez hain ezin-halakotzat jota, «oso sentsibleak dira...». Elik ebaki zion: «Neuk ekarriko dizut beste katu bat, Manuela». Eta, orraziaz Xanen belarri gaineko ile batzuk jasota, guraizeez klis-klis egin zuen. Bestalde, buru gainean ari zitzaiola, hanka bat Xanen hanka bien artean ezarri zuen, eta bere

sabela Xanen besoaren kontra pixka bat estutu. Xanek, begiak ertirekian, haren eskuen jesto preziso, era batera inozenteak ikusten zituen; eta, usain hura aditu...

Halako batean: «Listo!», esan zuen Elik; eskuaz azkeneko ukituak, agian ukitu informalxeago batzuk eman zizkion. Kanpoan euria ari zuen. Xani parkean, ezpel-zuhaixken artean beroki iluneko gizona ikustea begitandu zitzaion. «Gizon hura...». Elik kanpora begiratu zuen. «Zein?», esan zuen; gizona, ordea, ezkutatu egin zen; haur-talde bat pasatu zen, andereño batekin; biak kanpora begira zeudela: «gero zer egin behar duzu?», galdetu zion Elik. «Ez dakit», esan zuen Xanek. «Nahi baduzu nire etxera etorri», esan zion Elik. Xanek begiratu zion. Hain espeziala zen.

PENTSIOA

Xan, trenean, lau lagunentzako konpartimentu batean jarri zen, bakarrik. Bertatik bagoiaren parte handi bat ikusi zezakeen. Jende gutxi zegoen, guztiak isilik. Ondoko, pasiloaz bestaldeko konpartimentuan gizon-andre zahar bi zeuden, luze-mehatxa gizona, sendo-bulartsua emakumea. Parekoan berriz, gizon txiki-lodi bat jarri zen; berehala egunkaria leitzeari ekin zion hark.

Hurrengo geralekuan igota, Xanen aldamenean emakume gazte bat: argala, zurbila, soineko beltz zimurtu batez jantzia, magalean haurtxo bat zuela jarri zen. Beroki gorri marrazkiekiko batez jantzita, haurra makila arrunt bat zupatzen, murtxikatzen ari zen. Bere begi kuriosoez Xani begira zegoela, Xanek moflete potoloan atximurka txiki bat egin, eskutxoa heldu zion; bide batez eta zenbait segundoz, bere umetxoari ama-harrotasunez begiratzen zion emakume argalari soinekoa, bularren aldean, pixka bat ukituz. Ez zen detaile hartaz agian emakume argala ohartu, alabaina pasiloaz bestaldetik emaku-

me sendoa berari, edo haurrari, bederen eszenari begira zegoen; txeraz, baiki, errezelo pixka batekin ere bai, menturaz, ordea. Xanek eskua erretiratu, kanpora begiratu zuen. Fabrika zahar baten ondotik ari ziren igarotzen; haren kanpohorma luzeetan pintada koloretsuak zeuden: letra ulergaitzak, su bat, zenbait aurpegi misforme. Trena, orain, oso poliki zihoan. Halako batean, kirrinka luze bat egin eta, erabat gelditu zen. Argiak itzali ziren. Ez zen, ordea, apeaderorik hantxe. Euren parean, bietatik hara, lan-kabina prefabrikatu baten ondoan, bi langile, borra bana erabiliz, iltze antzeko burdina erraldoi bat lurrean sartzen ari ziren.

«Zer da hau?», galdetu zuen emakume gazteak. «Ez dakit», esan zuen Xanek, «bia muerta bat dirudi». «Huelga izango da», esan zuen pasiloaz bestaldetik emakume sendoak. «Huelga?», esan zuen emakume gazteak; «ez dut ezer aditu». Xanek, haraxeago zeozer ikusten ote zuen, musua kristalaren kontra paratu zuelarik: «Zerbait ikusten al da?», galdetu zuen emakume sendoak. «Ez», esan zuen Xanek. Bizkitartean gizon txiki-lodia plataformara joan zen, atea za-

baldu eta, borradun langileekin solas pixka bat egin zuen. Laster berria ahoz aho hedatu zen bagoian: bonba abisu bat izan zen, zibilak trenbidea miatzen ari ziren. Hala ere, ez zirudien inor hartaz oso arranguratu zenik. Marmar batzuk aditu ziren; ahoak zabaldu, jarrerak lasatu ziren. Minutu batzuk igaro ziren. Komuneko atea blokatuta zegoela-ta, tipo batek protesta egin zuen. Amaren magalean begiak itxi zituen haurrak. Lo ote zegoen? Alta, hatzen eta zapataxken puntak mugitu egiten zituen. Haur hark, sudurra, begiak eta ahoa aurpegiaren erdi-erdian, mofleteen artean ezkutatuxe zituena, ez oso polita inondik ere, aurki emakume sendoa xoratu egiten zuen. «Ikusten duzu?», esaten zion berarekin zen gizon mehatxari, miresmenez; «potolo-potoloa da-ta»; gero, bere poltsatik karamelo batzuk ateraz, ama gazteari eta Xani eskaini zien; eta, bere eskuturreko erlojuari begira: «berandu iritsiko gara», esan zuen. Gizon mehatxak begiak itxi zituen. Xani ere betazalak ixten ari zitzaizkion. Ez ote zuen lo-kuluxka bat egin. Trenak klan-klan egin zuenean begiak ireki zituen. Borrako langileak tren azpietara begira zeuden. Han ote zen

bonba? asaldatu zen Xan. Ez noski, bidai-lagunak trankil asko zeuden. Trenak pixka batez gibelera jo zuen, nonbait bia ona hartu, aurreraka egin zuen, estreina poliki, gero arinago.

Bi geltoki haratago jaitsi zen Xan. Zerua oso goibel, gozo-gozo ari zuen euria. Xanek Elik laga zion aterkia zabaldu eta, trenbideak zeharkatu zituen. Hormigoizko trabiesa batzuk ebitatu zituen. Torloju larri batzuk lurrean barreiatuta zeuden. Tren-makina zahar bat geldituta zegoen.

Xanek aurrean ezaguna zuen bide bat, ezagunak zituen etxe batzuk ikusi zituen. Hala ere, etxe haiek beren tokian ez zirela, lekuz aldatu zituztela zirudien. Haien atzean autobia bat zegoen. Eta beste autobia bat ezkerrean, eta beste bat egiten ari zirela, zirudien, haraxeago. Puxka batean industria pabiloien artean ibili zen. Hankan min pixka bat zuen.

Alde Zaharra toki malkartsuan, hiru-lau mendixken gainean eraikita zegoen; sigi-sagakoak ziren harako karrikak; mendixka batetik bestera joateko berriz, hainbat zubi, hainbat tunel, hainbat eskailera elkargainka ipinita zeuden. Egitura, bide haietako batzuk Xanek ezagutzen zituenak

ziren, bere baitan atxiki zituenak, ezabatuxe, deformatuxe baldin bada ere. Beste batzuk aldiz, azken denboretan eginak izango ziren. Xanek kale zahar, luze bati ekin zion gora. Gazteluko bidea izan behar zuen hark. Pentsioa auzo hartan, aski goian zegoela esan zion Elik.

Ja kale hari ekindakoan ikusi zuen bere atzetik treneko gizon txiki-lodi hura zebilela: buruan egunkaria zuela, blai-blai jartzen ari zen. Xan, jaramonik egiteke hari, buru-makur, espaloira begira zihoan. Alta, kalexka batean eskuin, gero ezker berriz ere gora egindakoan, gizon ñarroak bere atzetik segitzen zuela ikusiz, Xanek pausoa mantsotu zuen. Ñarroa baina, apur bat inguratu bazitzaion ere, ez zen behinik-behin aurreratzera iritsi. Osterantzean, Xanek pausoa atzera bizitu zuenean, hark ere bizitu egin zuen, bien artean beti tarte bertsua zela. Horrenbestez, Xan ernegatzen hasita zegoen. Puxka batean halaxe jarraitu zuten. Gero bat-batean Xan gelditu egin zen: etxe-barru batera begira, han zeozer, han nonor ikusi izan balu bezala. Ñarroa berriz, bera ere gelditu zen. Xanek disimulorik gabe begiratu zion. Ñarroak egunkaria bota egin zuen eta, be-

giak erreskinaturik, oinaze espresio batekin euritara begira zegoen. Agian, isilka, Xani laguntza eskatzen ari zitzaion. Hartara Xanek: «Gora al zoaz?», galdetu zion. Ñarroak esku-seinale bat egin zuen: Xani, gora al zihoan, galdetuz bezala. «Zatoz, zatoz», esan zion Xanek.

Elkarrekin, isilik jarraitu zuten: kalean gora, laster gizon ñarroa arnas-estuka, Xan berriz, apur bat herrenka, biak pausoa bateratu ezinik, erabat elkarrengana gabe, eta haren ondorioz buruak apur bat okerka. Etxeetako leihoetan argiak pizten hasi ziren. Euria gogotik ari zuen: hark batzen zituen, haren hotsarekin entretenituta zihoazen. Halako batean, ñarroak Xani ukondotik heldu eta: «Hemendik», esan zuen; kale estu batean sarrarazi nahi zuen. Xan geldi-tu egin zen; agian ñarroak bere etxera eraman nahi zuen; agian, hala ere, inspektore bat zen; zena zela ere: «Bueno», esan zuen, «ni hemendik noa». Ñarroak duda pixka bat egin zuen; gero-berehala: «Hortik? Bale», esan zuen.

Hainbesterekin garbi zegoen jarraitu egiten ziola; edo, atertu bitartean, aterkiaren babesean segitu nahi zuen. Xan apuratuta zegoen; jakin

zuen, baiki, une batez ñarroari kontra egiten; ez zekien, ordea, orain nola harengandik aldendu. Bat-batean, airoski: «Goian bizi zara?», galdetu zion. «Harago, harago», esan zuen ñarroak. Eroxka al zen? Nora joan, berdin zitzaion? Bere ezkerrean eskailera batzuk ikusiz: «Bien», esan zuen Xanek, «ailegatu egin naiz». Euria bestalde, gutxixeago ari zuen orain. Gizonak konprenitu zuen. «Bien, bien», esan zuen. Xan eskaileretan gora zihoala bera han, kale erdian gelditu zen.

Eskailera luze eta pikoak ziren. Xan, aski nekez, goraino heldu zelarik, bueltatu eta, ñarroa ere gorantza hasi zela ikusi zuen. Arin-arin pasabide estu batean sartu zen; kale-kantoian emakume bat lurrera ia-ia bota zuen. Jende pixka bat zebilen kale adokinatu batera iritsi zen. Korri-korri gora egin eta, parke batean sartuta, bere burua zuhaixka batzuen atzean gorde zuen. Handik pixka batera, kale adokinatu hartan ñarroa eta beste gizon bat ikusi zituen; rubioa, zurpaila, perilla txiki bat zuena zen beste gizon hura. Beraz, bai; jarraitu egiten zioten. Pare hartan elkarrekin hizketa pixka bat egin, gero biek

kalean aurrera egin zuten, poliki-poliki. Haiek bistatik galdu bezain pronto, Xanek salto egin, etxe bateko patioan ezkutatu zen. Bazen patio hartan txabola bat, haren atzean aterpe txiki bat, bertan zen harri mokor batean eseri zen Xan. Ilun-iluna zegoen. Begi zorrotzekin gaueko itzalak miatzen ari zela, kaleaz beste aldean, etxe handi bateko ate gainean: Etxart, irakurri zuen.

Emakume argal, ez oso gazte, ez oso zahar batek ireki zion atea. Ile beltz motza, orrazkera zaindua, beso-hezur handiak, esku luzeak zituen. Apenas saludatzekoak egin eta: «Ba al duzue gelarik?», galdetu zuen Xanek. «Gelarik? Ai», esan zuen etxekoandreak, esku-txalo bat eginez, «sentitzen dut, denak beteta daude»; Xanek mihiarekin txask! eginez bere kontrariedadea, bere desolazioa azaldu zuenez: «sasoi honetan», esplikatu zuen etxekoandreak, «kanpoko jende asko izaten da»; bazirudien berak ere deploratu egiten zuela; Xanek, larrixko, begirada bazterkatu zuelarik: «zenbat denborako behar zenuen?», galdetu zuen etxekoandreak. «Gau baterako zen». «A, gau baterako?», esan

zuen etxekoandreak; «hemen behean badugu gela txiki bat...». Xani galdezka bezala begira gelditu zitzaiolarik: «Txikia...?», esan zuen Xanek. «Zatoz», esan zuen etxekoandreak. Korridorean, pareta-argi motel baten azpian, gizon heldu tripati bat, mahonezko galtzak, mahukahutsik, lurrean lanen bat egiten ari zen.

Gela txiki, txukun bat zen, ohea beste mueblerik ez zuena; ohe-buru gainean berriz, kristal lodiko, lore-formako lanparatxo dekadente bat. Etxekoandrea, bazter batean, Xani begira, nonbait bere onespenaren zain gelditu zen. «Ondo dago», esan zuen Xanek. «Ondo dago?», esan zuen etxekoandreak; leihora joan, leihatilak ireki zituen; «nire alabaren ustez, etxeko gelarik onena da hauxe: beroa da, tximinia paretaz bestaldean duenez... eta eguzkitsua ere». «Eguzkia», esan zuen Xanek, leihora gehiegi arrimatu gabe, «handik aterako da». «Ez, handik ateratzen da»: besoarekin beste norabide batera seinalatuz; «hura (Xanek adierazitako hura) hegoaldea da»; etxekoandreak leihoa ixtearekin, Xan fijatu zen gelako zorua nahikoa okertuta zegoela; ohol batzuk oso deterioratuta, kra-kra egiten

zutela zeuden; «oraintxe esango diot alabari ohea egiteko; nahi izanez gero, silla bat ekarriko dizugu». «Ez da beharrezkoa», esan zuen Xanek. «Gero, nahi baduzu afaldu...», ja zango bat korridorean zuen etxekoandreak. «Zerbait jango nuke, aukera bada». «Horixe; lo único, komedorea beteta dagoenez, sukaldean gurekin egin beharko duzu». «Ez dago problemarik». «Ederki»; hura bazihoala, Xanek atzetik: «Beste gauza bat», esan zuen; etxekoandreak eskua ahora eraman, izutuxe begiratu zion: Xanek ez-beharkeriaren bat esan beharko balio bezala; «dutxa bat hartuko nuke». «Dutxa bat? Bai noski»; ate bat erakutsi zion: «hori duzu dutxa. Zaude, toaila bat ekarriko dizut». Xan ate alboan zela, korridorean beharrean ari zen gizon tripatiak: «Pst!», egin zion; «eutsiok mesedez zintari hortxe»; korridorea neurtzen ari zela, metro-zintari eusteko eskatzen zion; «aber... hortxe... bale». Zinta bildu, ez zion eskerrik esan. Zer ari ote zen-edo, hitzen bat esango zion Xanek. Gizonak, ordea, berari bizkar emanda makurtu zen eta, galtzak apur bat bajatuta zeuzkala, ipurdiko erretena erakutsi zion. Etxekoandrea itzuli eta, Xani toai-

la emanik: «Gero nahi duzunean...», esan zuen, Xanen gelaren ondoko atea zabalduz, «hemen da sukaldea»; bera hara sartu zen. Korridorearen fondoan, neska bat oihal batzuk zeramatzala gela batetik irten, beste gela batera sartu zen.

Dutxatik irtenda, korridorearen puntan hirulau gizon ikusiz, eta bere gelatik berriz, atea pixka bat irekita zegoela, kantari ari zen ahots eme bat zetorrela adituz (dudagabe, etxekoandrearen alaba bere ohea egiten ari zen), zuzenean sukaldera sartu zen Xan.

Sukalde handi, ilun samarra zen. Bertan, ezkerrean, beheko sua, sofa bat; fondoan, fogoien aldean, sodiozko lanpara bat sabaian; handik eskumara, erdi-erdian kristal opako bat zuela, ate zarratu bat. Eskuman ere, ate hura baino bere alderaxeago, beheko suaz beste aldean, mahai sendo, luze bat zegoen; haren izkina batean, paretaren kontra, emakume zahar bat eserita zegoen; Xani begira baina, Xanek: «Gabon», esan zionean, hark ez zuen enteratu zen seinalerik eman. Fogoien aldean, etxekoandrea eltzekoari eragiten ari zitzaiola, beste emakume bat: emakume sendo bat, Xanek bizkarrez baizik ez zeza-

keena ikusi, entsalada bat atontzen ari zen. Sofan berriz, Xanek sartzean ez baitzituen bete-betean ikusi, bi mutil jarrita zeuden, haietako batek hanken gainean kuaderno bat zuela. Haiek berriz, xalo antzean, zain bide zeuden, Xanek begira ziezaien, egiteko kasu; begiratzean burua lañoki makurtu zuten, irribarre sinpatikoak eginez. Berehala beren kuadernora bildu, siuskamiuska mintzatzen hasi zirenez, Xanek egokitzat jo zuen haiengandik ez urruti zegoen aulki batean jartzea. Bista sutan pausatu zuen.

Pentsio diskretu bat zen, alde guztiz Henrirentzat egokia, bere semi-klandestinitateko aldi hartan behinik-behin. Geroztik han izan ote zen, esan zion Elik; noski, orain ez zen izango baina, emakume haiek, dudagabe gogoratuko ziren...

Halako batean, haranzko atea ireki (komedorekoa behar zuen ate hark; hain zuzen, kubiertoen zarata, boz batzuk aditu ziren), neska bi sartu ziren sukaldean. Batek entsalada fuentekada bi zeramatzalarik hara, beste neska, gazteagoa zena, ile gaztain kolorekoa, gaixto aurpegia zuena, etxekoandreari kontu batzuk esanda, suaren aurrean ziren bi mutilengana heldu, sofa-

ko besoan jarri, haien kuadernoan zer zen ikusi nahian bezala barrezka hasi zen. Xan pixka bat harritu zen, bi mutilek euskaraz egin zutelako: lehen, ikusi batera, atzerrikoak zirela begitandu zitzaion; ez zielako ondo aditzen, alde batetik, eta baita, beren izaera nolabait diferente, lotsakoiagatik, eta beren ile oso rubioak ikusirik ere. Mutilak enbarazatuta zeuden: ezkutatzen zioten neskari kuadernoa, defenditzen ziren; halako kuxkuxeroa, halako burlatia. Etxekoandreak hari: «Lagundu zure ahizpari», agindu zion; eta, neska biek komedorea atenditzen zutela, bera plater txorkon batekin emakume zaharraren ondoan jarri, hari koilaratxo batekin jana ematen hasi zitzaion. Ama-alabak behar zuten, nahiz fisikoan antz handirik ez izan: emakume zaharra, bibotea eta sudurrean garatxo handi bat izateaz aparte, buru-karratu eta begi-txirtxila zen, etxekoandrea berriz musu-mehar eta begi-irtena. Ama espantakoia, alaba kartsua. Eta hala ere, suma zitekeenez, ama ez zen beti halakoxea izan: halako kikildua, halako resignatua; eta oraindik ere, bere inpotentzian, bere paralisi partzialean, saiatzen zen ez erabat amiltzen, eta

hala zion alabari behatzen: buruzut; bere ziztrintze hura aldi batekoa eta oso funtzio konkretuei mugatua balitz bezala. Zenbat denbora egin zuen bertan Henrik, zein izan zen haren harremana emakume haiekin? Fidatzekoak al ziren? Seguru aski bai, seguru aski estalkirik gabe hitz egiteko modukoak izango ziren.

Etxekoandreak bere ama zaharrari jaten ematen bukatu zuenean, berak plater txorkona sukaldera zeramala, alaba burlatiak amona jaikiarazi, korridorera ematen zuen atetik hara, salatik ateratzen lagundu zion. «Esan osabari etortzeko», esan zuen etxekoandreak. Geroxeago beste neskak: morenoa, langidoa, erikara, serioxka, eltzea mahaira zekarrela: «Bele, Lupo!», deitu zuen. Lupo eta Bele salto batean jaiki, mahaiaren erdian, parez pare jarri ziren. Neskak Xani eskuaz, leialki, non jarri behar zuen adierazi zion: amona izan zen aldean ez, ezpada bestean, bi mutilen ondoan, bakantxo hala ere. Hirurak zopa hartzen ari zirela, amona nonon lagata itzuli zen neska burlatia aurrena, gero etxekoandrea, azkenik neska morenoa, amak June deitu zuena ere eseri ziren; handik aurrera beste

emakumeak, emakume sendoak, familiakoa izan behar ez zuenak egin zituen komedoreko beharrak.

Ama-alabak beren mahai izkinan, hitz eten eta iheskorrak erabiliz, solasean ari zirela, mutilek berriz, isil-antza jaten zuten, eta elkarri esaten zizkioten hitz bakanak, beragandik gertu izan arren, ahoa ertitxian eta erdibetean esaten zituztenez, Xanek ez zituen ulertzen. Azentuagatik hala ere, baina bai zuten jateko era basa samarragatik ere, mendiko mutilak zirela atera zuen; segurrenik, eguzkiaren aldeko erreka haietako batekoak. Lupo, Xanen ondoan, paretaren kontra zena, luzea zen, bizar motza zeukan eta, betazalak ia arras itxita zeuzkala, noiznahi lo jausi behar zuela zirudien. Bele berriz, suspertuago zegoen; bera izan zen, esate baterako, Xani, behar izan zuelarik, eskatu gabe ogi zati bat eskaini ziona. Bazuen Bele hark buru apepinatuaren tontorrean ile-muilo bihurri bat, eta aldian aldian, itxurazko motiborik ez zela, irri egiten zuen: ustez irri gaixto bat, beti azio txarren bat barrundatzen ariko balitz bezala; zeinerako, bestalde, guztiz inkapablea zirudien. Biak ere

herri koskorra atzean utzi duten mutilen legean, garbi, sinple, galtza bakeroez, koadroekiko alkandorez jantzita zeuden. Handia zen bien arteko konplizitatea, erraza tratua etxeko emakumeekiko. «Gatza falta zaio», erremarkatu zuen Belek, haurride baten atsekabe-doinuaz. Eta etxekoandreak: «Beti ari zara kejaka», errieta egin zion, laztantsuki, familiaritatez. Gero Belek berak, albotik saihetsak kitzikatzen ari zitzaizkion alaba burlatiari: «Zaude, ziraun hori!», egotzi zion. Guztiek egin zuten barre, Junek ezik, barre-irudi egin zuena. Bazirudien bi mutilek June halako begirunez, edo lotsaz, behinik-behin halako distantziaz zerabilkitela; bazirudien Junek, apika bere gaixoberaz, bere melankolikotasunaz, bi mutilak apaldu, apur bat kuxkurtu egiten zituela. Detaile hark pentsarazi zion Xani ez zirela etxekoak izango; baita, inoiz bizkarrak zelan tentetu, begiak zelan alboratzen zituzten, halaber eta guztiz gain, elkarri ahapeka zeukaten hitz egiteko moduak, horrek guzti horrek behintzat erakusten zuen beren eremu propioa, beren interes partikularrak zituztela, emakumesaldotik aparte. Gaineratikoan, familiakoak zire-

la pentsa zitekeen: postura haiek, konfiantza hura, janzkera bera ere: Belek, Xanek lehenago ikusi ahal izan zuenez, bragetako botoiak aske, Lupo berriz, etxeko zapatillekin; dudagabe bazeramaten pentsioan denbora puxka bat, nahiz egonaldi luzeak ez zituen arraski zabartu. Bestenaz, etxekoandreak naturalki, halako samurtasunez ere erabiltzen zituen; bigarren plateretik, sukaldetik berak ekarri baitzuen, beraiei eskaini zizkien xingar puxkarik onenak. Gero, afal ostean berriz, Xani yogur bat eskaintzean, gainerakoek ez baitzuten halakorik nahi, etxekoandreak nork-zer gura zuen: kafea, kolakaoa... Beleri, bere gibelean zela, bere esku luzeaz laztandu egin zion buru apepinatua; orduan Lupok atsekabetsu begiratu zion: noski berak ere nahi zuen etxekoandreak burua fereka ziezaion. Handik laster, etxekoandreak esne-kazo handia ekarri zuelarik, Belek bere atzaparrak bertan sano-sano sartu eta, esne-gaina jasoz, halako gurmandisaz zupatu zituen. Alaba burlatiak barrealgaraka hartu zuen egintzak Juneren aldetik irribarre soil bat merezi izan zuen; halako sotila, halako ernea... hari egingo zion Henriren galde

Xanek. Etxekoandreak beretik, hura zela-ta erreprotxezko hitz batzuk izan zituen Belerentzat: egin zuen haserre figura, esan zuen hitz xakarren bat; ez ziren, alegia, haiek jende aurrean erabiltzeko manerak. Bele, ez baitzuen halakorik espero, alaba burlatiaren barreek, etxekoandrearen hitzek, baina, batez ere agian, Juneren begirada lausoak, pixka bat aztoratu zuten, pixka bat gorritu zen, eta Xani istant batez, zeharka, lotsamenez begiratu zion.

Hartan ari zirela, korridoreko behargina sartu zen sukaldera: beso-hutsik, lan arropak aldatu gabe. Bera zen, beraz, osaba. Denentzat edo, zehazkiago, inorentzat ez zen saludo bat marmarkatu eta, mahaiaren buruan jarri bezain laster, Junek zopa platera ekarri zion. Bera zatekeen etxekojauna, edo behinik-behin etxeko gizona; kondizio hura berehalaxe erakutsi zuen, baso ardoa kolpe batez hustu eta, hatz potoloaren keinu batekin, Juneri gehiago zerbitzeko adierazi zionean. Uzkur jaten zuen, ezker besoa bere bularra eta plateraren artean mahaian apoiatua, lepoa oker, zurezko koilara bastoki erabiliz, bere legea eginez. Ez zen, handik aurrera, etxekoan-

drea eta alaba bien eta mutil bien artean detaile intimo gehiagorik izan; bazen, hala ere, moral suerte bat etxean.

Etxekoandreak eta Junek komedorea jaso (bazen han oraindik afaltiarren bat, adi zitekeenez), emakume sendoa berriz baxerakoak egiten hasi zen. Ama-alabek elkarri hitz praktiko batzuk esan zizkioten; urrun hala ere, lehenagoko laztan-girotik. Oro bat-batean zenbait urtez zahartu balira bezala zen; hain juxtu oraintxe, Xanen begi-bistan zahartzen ariko balira bezala. Bi mutilek ere beste atitude bat hartu zuten: biak ere serioago, Lupok zigarro bat piztu zuen, Belek berriz, bere irria moderatuz, gizon portatzen ahalegindu zen; ez zuen hura, hala ere, bere berezko modua; ez zegoen oso eroso. Bederen-bederen, giroan tentsio punta bat zegoen. Etxekoandrea sukaldean gelditu zen: ordena berrian hura izanik bere tokia, inondik ere. Alaba gaztea beretik, orain hegabera, tximiniaren aldean, sofan jarri zen, liburu bat zabalduz, haatik hari begiratu gabe, hankak laxoki zabalduak, pose erromantiko, meditatibo bat hartuta. Junek, osabak zopa bukatu zuen ber, zenbait jaki, zenbait gaziki zer-

bitu zion; osabak guztiak deboratzen zituen apetitu onarekin. Lupok, molde onean, zerbait aipatu ziolarik, osabak: «Bistan da», esan zuen, eta ahoa bete jaki zuela esplikazio nahasi bat eman zuen, Belek eta Lupok hala ere, arreta handiz aditu zutena; lan kontuak ziratekeen, kontu tekniko samarrak, ezin konprenituzkoak Xanentzat.

Junek kopa bat ekarri ziolarik, okasioa profitatuz, neska sotilki geldiarazi zuen. «Zaude», xuxurlatu zion, «gauza bat galdetu nahi dizut»; Junek, apur bat makurtuz, pixka bat izuturik begiratu zion; «zuk Henri ezagutuko duzu»; Juneren begietan distira bat izan zen; bai, ezaguna zukeen; ez zuen hala ere baiezkorik esan; aurpegia luzatuz, zuhurki, suspizione apur batez begiratu zion; «haren laguna naiz», esan zuen Xanek; Junek ahoa pixka bat ireki zuen; ez zuen hala ere deus esan; oharturik-eta osabak eta bi mutilek ez ziotela aditzen: «Motatik heldu berri naiz», erantsi zuen Xanek. Junek dardar txiki bat egin zuen. «Motatik?», esan zuen, ezinegonez, susmo txarra erabat kendu gabe. Xanek patrikatik paper bat atera zuen: bestalde, aldean zeukan dokumentu bakarra. Ez zen hartan bere fo-

torik; hartan bazen, aldiz, bere izena, letra larriz idatzia. Junek arretaz irakurri zuen. «Paper hau ez duzu Motakoa», esan zuen. Xanek hotzikara bat sumatu zuen. «Ez», esan zuen, «papera... ospitalekoa da»; alabaina Junek orain halako usteonez, halako errukiz begiratzen zion; «badakit hemen izan zela», esan zuen Xanek; «inportantea da»; June jarri egin zen; hala ere, hanka ipurdipean zuela, jarrera prekario samarrean; estututa zegoen; «soil-soilik, orain non den ote dakizun, galdetu nahi nizun»; Junek bekainak oso goititu zituen: hura jakin ezina zela, garbi adieraziz; «hemen azkenekoz, noiz izan zen?», saiatu zen Xan. «Hmm», esan zuen Junek, «aspaldi da oso». «Bolada bat egin zuen hemen», lagundu zion Xanek. «Hiru bat aste egin zuen», esan zuen Junek, «gero aldegin zuen». «Bakarrik egon al zen?», galdetu zuen Xanek. «Orduan bai; lehenago, pare bat alditan, beste mutil batekin etorri izan zen. Henri... gure aitaren laguna zen-eta». «Aita... ez da etxean?», galdetu zuen Xanek. «Hil zen». «Sentitzen dut». June lepotik eskegita zeukan zilarrezko gurutzetxoa ferekatzen ari zen; Kristo txiki-txiki bat zegoen bertan iltzatua. «Go-

goratzen naiz behin», esan zuen Junek, «nik Henri orduan ezagutu bainuen, berak eta beste mutil hark aitarekin mahai honetan bazkaldu zutela»; orain lasai, sekretu gabe ari zen, hartara bere hitzak, osabak ez noski baina, Lupok eta Belek hain segur adi zitzaketela; ez ote zeuden hain zuzen ere adiketan orduantxe; eta, Xanek begiratu zielarik, ez adituarena egin ote zuten. Lupok zerbait esan zion Beleri; edo, mintzatzen ariko bailitzango aho-keinu batzuk egin zituen, haren bozaren hotsa ez baitzen bederen Xanengana heldu. Beharbada harrituta zeuden Xan, etorri berritan, beraientzat apika hain heltzen gaitza zen Junerekin hala-hala ari zela ikusiz. «Mutil hura», esan zuen Xanek, «hitz egidazu beste mutil hartaz». «Hura?», esan zuen Junek; «Henri baino gazteagoa, ustez berarekin lan egiten zuena zen: mutil txiki bat... Gari; Gari esaten zioten». «Zertaz aritu ziren?», galdetu zuen Xanek. «Zertaz?»; Junek zalantzaz begiratu zion; «...igual ez da esatekoa izango»; Xanek zintzo begiratu zion; «ustez», esan zuen Junek, «gizon bati: enpresarioa, gure aitaren ezaguna zena, haiek diru kopuru bat eskatu zioten eta, hartaz

aritu ote ziren». «Gero zer egin zuten?». «Afalondoan, ba, haiek joan egin ziren. Gero beste behin mutil harekin berarekin etorri zen. Komedorean, eztabaidan aritu ziren; ematen zuen zerbait zelata ez zeudela ados. Nik ez nuen ulertzen. Ni orduan neskatila bat nintzen». Xanek irribarre mikaitz bat egin zuen; Juneren betertz eta ezpainxokoetan zenbait zimur ikusi zituen.

Bitartean osaba, afarikoa eginda jaiki, tximiniara bi egur ale bota, suari burdin-makoarekin eragiten ari zitzaion. Bele eta Lupo ere altxatu ziren: agian konbertsazio hartatik baztertuta sentitu, eta hala ere beren autonomia erakutsiz, ate aldera zihoazela, Belek Xani begi-ñika bat egin ote zion; agian Henriren izena aditu, berek ere ezagutu zuten; agian baina, bi neskekin gelditzen zelako zen: zuntzunkeria bat.

Alaba burlatiak sutondoa utzi zuen; berriz ere mahaira heldu, haren gainean liburua zabaldu, ikasi-itxura egin zuen; zinez noski, June eta kanpotar hura zertaz ari ziren, jakinminez arrimatu zitzaien. Alabaina Xanek: «Zuk ba al zenekien hura zertan ari zen?», galdetu zion Juneri. «Orduan ez nekien», esan zuen Junek; «etxean

gauza horiek ez ziren aitatzen. Noski zerbait nabari duzu baina... Joan zenean enteratu nintzen ihesi zebilela. Gero, atentatu bat izaten zen bakoitzean, ni harekin gogoratzen nintzen. Azkenean, armak isildu zirenean, haren izena entzun nuen irratian». «Zer zela-ta?», galdetu zuen Xanek. «Oraindik hirian zela esaten zuten». «Eta», esan zuen Xanek, «hemen egin zituen azken egun haietan, zer egiten zuen?». «Bueno, normal... Denbora gehiena bere gelan ematen zuen». «Kalera ez al zen ateratzen?». «Ez; gero aitak esan zuen, Henrik bazuela susmoa, jarraitu egiten ziotela eta... horregatik joan zela». «Joan zen egunaz... gogoratzen al zara?», galdetu zuen Xanek. «Goizean goiz izan zen; gizon bat bere bila etorri zen; nik leihotik ikusi nituen; kotxean joan ziren». «Gizon hura lehenago ikusita al zeunden?». «Ez... Tipo fuerte bat, bibotea zuena... Ez nuke ezagutuko oraintxe».

Ahizpa, burua eskuan apoiatuta zeukala, beraiei begira zegoen: erdi dibertiturik, erdi zapuztuta, bolalumarekin paper batean garabatoak eginez. «Gero», esan zuen Junek, «haren gutun bat hartu genuen. Ez zigun noski non zen esaten.

Gutun hori hor nonbait egongo da; nahi baduzu... Agur, osaba». Izan ere osaba, eskuan zaborpoltsa handi bat zeramala, irten egin zen sukaldetik. «Ez, utzi», esan zuen Xanek; «nahikoa esan didazu».

Artean etxekoandreak leka mordo bat ekarri zuen mahaira, alaba gaztea eta biak haiei hariak labanarekin kentzen hasita zeuden. June eztieztia jaiki, fregaderaraino joan, han zeozer egin, gero amaren ondoan jarri zen, lekak zatikatzeari ekinez. Etxekoandreak ez zuen oso kara onik egiten; alde batera, aurpegia zimeldu eta ilundu zitzaion: petraldurik, abereturik, oraintxe bere ama zaharra bezalaxe zurrunduta zegoen; beste alde batera berriz, Xanekin muturtuta, etsaituta zegoela zirudien: ez zion, hitzez edo begiradaz bederen, jaramon izpirik egiten. Agian oker juzgatu zuen Junerekin hitz egin izana; agian zertaz aritu ziren sumatu zuen eta beldur zen, handik konplikazioren bat etor zitekeela. Alta, Junek eta bere ahizpak ere ez zioten Xani begiratzen. Xanek zerbait esango zuen; ez zioten, ordea, aukerarik eman; bestalde, sobran ziren seguru aski esplikazioak. «Bueno», esan zuen, zutitu zen.

Baina, hartan ere, etxekoandreak ez zion irribarreño bat eskaini, ez zion begiratu ere egin. Junek berriz, begi garbiez begiratu zion, halako mirespenez agian, nahiz halako beldurrez ere, sinpatia poxi batekin bederen. Haren ahizpak ere begiratu zion; unetxo batez, ordea, bera ere beldurrez; berak ere helduagoa zirudien orain-txe. Guztiaz ere, inork ez zion esan: «Ba al zoaz?». Hori ere ez zioten esan. Espero zuten agian, Xanek hitz jator batzuk esango zituela. Xanek berriz ere dezepzionatu zituen. Laxotasunez, zorigabez: «Gabon», esan zuen. «Gabon», marmarkatu zuen etxekoandreak. «Ondo lo egin», esan zion Junek: mindu egiten zuen Xanen nahigabeak, bere zauria arindu nahi zion; begiradarekin ateraino lagundu zion; Xanek irribarre sotil batez eskertu zion.

Xanek bere gelako argitxoa piztu zuenean, bere ohean Bele eta Lupo zeudela ikusi zuen. Biak ahoz gora, Lupo lo, Bele lotsaz, berari begira. Gelaz konfunditu zelakoan, atzera egitera zihoala, Belek berriz, eskuarekin sartzeko, atea ixteko adierazi zion; eta bera altxa, hankak lurrean ipini zituen. Xanek keinu batekin zer gerta-

tzen ari zen galdetu zion. Belek, apuratuxe, eta hala ere lañoki: «Atea irekita zegoen», esan zuen; Xanek, harrituta, ateari begiratu zion, bertan bi mutilak bere gelan sartu izanaren arrazoia atzematen ote zuen; gero Lupogana hurreratu zen, gaixorik ote zegoen, zerbait ote zuen; «lo gelditu da», esan zuen Belek. «Lo?», esan zuen Xanek, berak ere isilka: nahigabean ere, lo zegoenaren begirunez; «oraintxe sukaldean zineteneta». «Ikaragarria da», konfirmatu zuen Belek, «ezin da sinetsi»; Xanek leihoko kristala zabaldu, leihatilak zuen ziloxka batetik kanpora begiratu zuen; hega-biraka zebilen saguzar bat antzematea iruditu zitzaion; bestalde gela barruan, lehenago ez bezala, mesanotxe bat zegoen; haren gainean, tarrotxo batean, lore-erramilleta bat zegoen; lore horiak, arantza zorrotzak, Xanek hatzarekin ukitu zuen haietako bat; «otea», esan zuen Belek. Xanek harri eta zur begiratu zion. Beleri kara emanez: «Zer egiten duzue hemen?», galdetu zion. Belek Lupori begiratu zion: beldur nonbait, hitz altuxko haiek ez ote zuten esnatuko laguna. Izan ere Lupok begiak pixka bat ireki zituen. Ez zirudien biziki estona-

tua Xan han zelako; buelta erdia egin, lo segitu zuen. Belek hitz batzuk xuxurlatu zizkion belarrira: kontu intimoak, bederen Xanek ez entzutekoak. Xan betosko zegoen. Dudagabe betoskeria hura Belek ere sumatu zuen, orain txepelduta zegoen. «Barka zure gelan hola sartu izana», esan zuen apalki. Haren buru apepinatuaren erdian, bi begiño beltzek diz-diz egiten zuten; alta, ez zen mintzatzera deziditzen. Xanek pauso batzuk eman zituen gelan. Gero, bat-batean geldituz: «Hemen zarete», esan zuen, eta bere boza, ez oso ozena, bazen aski bigorosoa; «hemen, nire ohean, lasai asko zarete. Zer pasatzen ari da?»; Belek burua makurtu zuen; agian zerbait esatera zihoan; hala ere, Xanek: «ez dut zuek bezala jokatuko», segitu zuen, «ez dut nahi dudana egingo, ez zaituztet di-da bidaliko hemendik; hala ere... hi, kendu zangoak ohetik!». Hori esanik, Lupori bultza egin, eseri egin zen bera ere ohean. Lupo kiribildu zen, agian hotzak, pilotatxo bat eginda gelditu zen izkinan. Bele ere kikilduta zegoen. Guztiarekin, ez zuen Xanek erabat izutu nahi, azken batean, seinale handirik ez eman arren, bistan baitzen mutilak zerbait esan

gura zuela; izan ere, azkenean, urdurixko: «Zu... zerbaiten bila etorri zara, ala?», galdetu zion Belek. «Zerbait?», galdetu zuen Xanek; ez zuen badaezpada erabat ukatu nahi. «Ez al zara... gauza baten bila etorri?», galdetu zuen Belek; Xanek galde-aurpegia jarri zuen; «barkatu», esan zuen Belek; «noski gaizki-aditze bat izan da. Kontua da gu... oraintxe, sukaldean Junerekin ari zinela, ba... ez ginen entzuten ari baina, aditzea iruditu zaigu... gure ezagun bat aipatu duzula»; Xan isilik zegoen, Belek zer besterik esango; «Henri», esan zuen Belek, eta Xani so gelditu zen. «Bai», onartu zuen Xanek, «Henriz aritu gara». «Noski zuk...», esan zuen Belek, «baduzu harremana harekin». «Orain ez», esan zuen Xanek. «Behintzat zu... haren laguna zara». «Mmm», erantzun zuen Xanek; komentario laburra, ez oso klaroa, eta halaz ere Bele, antza denez, pixka bat lasaitu zuena; bestalde, Belek norabait heldu gura zuela ikusiz: «denbora franko du», esan zuen, «ez dudala ikusi. Atzo heldu nintzen hirira. Bart bere auzoan, hemen izan zitekeela esan zidaten». «Hemen?», harritu zen Bele; «aspaldi da ordea, hemendik aldegin bai-

tzuen». «Aspaldi?», galdetu zuen Xanek. «Aspaldi», esan zuen Belek; «gu hirira heldu eta handik denbora gutxira; guk ere ezagutu genuen»; ez zen, beraz, hain aspaldi izango; edo agian bi mutilak euren bakuntasunagatik zirudiena baino zaharragoak ziren; «bestalde...», esan zuen Belek, «hauxe zen Henriren gela». «Hauxe?», asaldatu zen Xan. Bele pozik zen, informazio hark Xanengan izan zuen efektuagatik. «Egun haietan», esan zuen Belek, «harekin tratu pixka bat izan genuen. Hemen, egunero elkarrekin otorduak eta, gauez sukaldean gelditzen baginen edo... pixka bat lagun egin ginen. Gau batean gure gelan izan zen: zigarro batzuk erre-ta, ron pixka bat edan-eta... Gu ere erdi familiakoak eta, aise lotu ginen. Gainerako pentsiolariekin ez zuen ezer jakin nahi. Baina, etxekoekin ongi moldatzen zen. Batez ere aitarekin. June eta Goretirekin ere, lagun ona zen. Hau (Lupogatik) pixka bat zeloso zegoen...»; irribarreti begiratu zion lagunari; hura berriz, lo-korrokan zen; haren ezpain meheetatik barna hortz txiki, belzkara, xorroxkak ageri ziren; «June bere nobia baita», esan zuen Belek apalxko; «hala ere», segitu zuen,

«Henri oso kontuz zebilen. Bere posizioa ez baitzen... ebidentea, esaten baita. Baina hori guk jakin, azkeneko egunean jakin genuen. Gu harrituta geunden, inoiz ez zelako hemendik ateratzen; Goretiri egiten zizkion kaleko mandatuak, egun batean tabakoa ekartzea zela, beste batean gutun bat eramatea zela... baina guk ez genuen susmatu ere egiten... hala zebilenik. Beharrik ere ez, noski. Berak guri esan zigun: halako enpresan lanean ari zela, gero egia zela jakin baikenuen, eta negozio inportante baten zain zegoela. Eta, telefonoz sarritan hitz egiten zuen. Gu hemen ginela behinik-behin, afalondoan hortxe, beti dei bat edo bi izaten zituen; beti kanpotik hots egiten zioten. Bistan da, norekin eta zertaz ari zen guk ez genekien fitsik»; Belek Xani begiratu, gero bista jaitsi, begiak bere eskuetan tinkatu zituen; Xanek zerbait esatea espero zukeen; Xan berriz, oraindik Belek nora heldu nahi zuen ez zekiela zegoen; hartaz, Belek, burua jaso eta: «orduan, Henri ikusiko duzu?», galdetu zion. «Hori espero dut», esan zuen Xanek. «Bien. Dena dela... bada gauza bat...»; ezpainak listuaz hezetu eta jarraitu zuen: «hemen egin zuen az-

keneko gauean, hau da, joateko bezperan, Henrik hona, bere gelara ekarri gintuen. Orduan esan zigun: joatekotan zela eta... erakutsi zigun»; hori esan eta, Bele jaiki, gibeleko patrikatik nabala bat eta burdinazko palanka bat ateraz, lurrean belauniko jarri, nabalarekin bi oholen arteko juntan arraspatzen hasi zen; Xan isilik, Lupo lo, Bele enpeinu handiz, mihia kanpoan zuela aritu zen hantxe; azkenean, kontuz-kontuz ohol bat altxatu zuen; barrura begiratu zuen; hobeto ikustearren etzan egin zen; besoa zuloan sartuta, bazterrak haztakatu zituen; «ostias», esan zuen; jaiki egin zen, Lupogana joan, astindu egin zuen; «hi», esan zuen; aurpegia arrunt txurituta zeukan. «Zer??», galdetu zuen Lupok, lomoker. «Ez zagok», esan zuen Belek larri-larri. «Nola ez dagoela?». Lupori, ohean buelta erdia egin zuela, altzoan zuen laranja bat lurrera erori zitzaion. Laranja, pirika-pirika, Xanen zangoen artetik igaro eta gelaren beste alderaino joan zen. «Oholaren juntan zur-hauts pixka bat zegoan», esan zuen Belek; «norbaitek hartu dik». Lurrean zabar eseri zen. Dudagabe inpresio handi bat hartu zuten biek. Lupo, ohean jarrita, zigarro

bat piztu, begi gorrituak zabal-zabal eginda zegoen. Haatik, ez zutenez misterio hura argitzen: «Zer zegoen ba?», galdetu zuen Xanek. «Holakoxe pakete bat», esan zuen Belek; «gaileta-kaja bat, agian; paper zakarrarekin estalia, listarekin itxia». «Eta», esan zuen Xanek, «zer zen ba barruan?». «Hori guk ez dakigu», esan zuen Belek; «baina, ateratzeko garaian, kontu handiz ibiltzeko esan zigun. Esan baitzigun: lagun bat etorriko da bila. Gu pixka bat larritu ginen; gu ez baikinen... gu ez baikara erakundekoak, noski». «Bera ere bazela... edo bazitekeela, orduan enteratu ginen», esan zuen Lupok. «Eta», esan zuen Xanek, «denbora honetan, ez al duzue behin ere begiratu...?». «Ez; zain geunden», esan zuen Belek, «lagun hori noiz etorriko; eta, orain sukaldean Junerekin hartaz ari zinela, ba, seguru pentsatu dugu: bera izango da... M'kabuen...! Nork hartuko zuen? Guk ez baitiogu deus esan inori...». «Berak hartuko zuen», esan zuen Xanek. «Guri esan gabe?», esan zuen Belek: bazitekeela, are probableena ere bazela, baina bazela, gutxienez, harritzekoa. «Handik hona», esan zuen Lupok, «beste tipo batzuk izan

dira gelan, baina haiek... haiek ez ziren izango». «Labana saltzaile hura...?», galdetu zuen Belek. «Zera!». «Txiki makal hura, nola zen...?». «Ahmed? Zera, zera!». «Eta etxekoak? Osabak?», galdetu zuen Xanek. «Etxekoek ez zekiten. Berak esan zigun»; pentsakor gelditu ziren; handik pixka batera: «denbora nahasiak izan dira», segitu zuen Belek; «berak aldegin eta gero borroka handiak izan ziren: alde batean eta bestean hildakoak, egunero eztandak... gu geure larruan kabitzen ez ginela geunden. Gero, azken honetan, jaleo gutxiago zela-ta, lasaixeago geunden. Orain berriz ere zalantza dago, berriz ere kezkatzen hasita gaude; lehengoan horretaz aritu ginen: baten batek salatuta edo ezbeharren batengatik paketea aurkitzen badute, kulpak etxekoentzat izango dira; haiek deus ez dakitela gainera». «Alferrik duk», esan zuen Lupok; «orain tapa ezak hori». Bele ohola bere tokian jartzen ari zela, Lupo jaiki, hautsontzirik ez zelata, zigarrokina mesanotxe gainean tentexko paratu zuen. «Zuek», esan zuen Xanek, «Henri hemendik joan zenez geroztik ez duzue beraz haren beste berririk izan?». «Ezta kutsurik ere»,

esan zuen Belek; burua ari zenetik jasoz: «dena dela», esan zuen, «gu ez gara hemen izan». «Noski», esan zuen Xanek, «ez zarete izan»; Bele jaiki zela, ikusiz-eta bi lagunak joatekoak zirela: «Enpresa bat aipatu duzue», esan zuen Xanek. «Olabe», esan zuen Lupok. «Olabe», esan zuen Xanek; bere baitako bezala: «Garik han segitzen ote du...». «Gari?», esan zuen Belek; Lupori begiratu eta: «guk ez dugu hori ezagutu». «Urruti al dago?». «Joan nahi al duzu hara?», galdetu zion Belek; «bihar alde hartara joan beharrak gara. Kamionetan eramango zaitugu, nahi izanez gero».

...Kamionetan, Lupo bolantean zela, hura eta Beleren artean jarri zen Xan. Belek kaset bat jarri zuen. Rock musika zen, Xanek ez zuen hitzik ere aditzen. Isilik joan ziren, autobian sartu ziren arte. Orduan Belek: «Ikusten etxe haiek?», galdetu zion Xani; «iaz ez zeuden»; zeharka begiratzen zion, Xanen estonamenduaz amusaturik; «orain etxeak di-da egiten dituzte»; euria ari zuela, errepidean ur-balsak bazeuden ere, Lupok belozidade handian gidatzen zuen, Xan apur bat ikaratuta zihoan; «gu hor eta hor aritu izan

gara», esaten zuen Belek; «txatarrak biltzen, hori da gurea. Hirian burdina zahar asko dago. Ez dugu, alajaina, lan faltarik oraingoz»; Xani bere kuadernoa erakutsi zion; hura zifrez beteta zegoen; antza, horrek erakusten zuen negozio prosperoa zutela; gero Belek obra batzuk erakutsi zizkion: «hor nire lehengusuak lan egiten du»; harroxko zegoen. «Gogoratzen al haiz», galdetu zion bere lagunari Lupok, «Henrik zer esan zigun? Denek lana izateko, guk gurean ordu gutxiago sartu behar genuela». «Bai», esan zuen Belek, «hori nik lehendabizikoz berari aditu nion. Ordu gutxiago? Guk barre egin genion. Ez zitzaigun buruan sartu ere egiten. Guri esate baterako erakutsi digute: lan eta lan! Guk ez dakigu besterik. Kasu egin, kontrola zagok»; hori aditzean, Xan makurtu, Beleren hanken artean kukurrukatu zen; geroxeago: «lasai, istripu bat da», esan zion Belek. Xan atzera jarri, bide ertzean buelta emanda, zeharo matxakatuta zegoen auto bat ikusi zuen, haren inguruan pertsona batzuk kusketan. Autobian kilometro batzuk egin eta gero, bertatik irtenda, autoz beteriko bide makurgunetsu batean sartu ziren. Mendiaren

beste aldean ziren ja. Errebueltetan Xan Beleren gainean, edo Bele Xanen gainean, eta hau Lupo-ren gainean baskulatzen ziren. Xan alditxartzen ari zen. Eta, rock musika hura; eta kanpoan, ezer ikusten ez zuela; une hartan, bere nahikeria ba-karra Olabera lehenbailehen iristea zuen. Erne-gatuta zegoen, ikusten baitzuen bidea luzatu egiten zela. Momentu batean, arestian izandako toki berean zirela iruditu zitzaion; bueltaka ote zebiltzan; eta hala ere Lupo, bideak ederki eza-gutuko balitu bezala, abailan zihoan. Xan oso zo-rabiatuta zegoen, ez zuen deus esateko keme-nik. Hori ordea, bera gaizki egon zitekeela, ez zi-tzaien bi mutilei gogoratzen. Bele kaseteko kanta marmarkatzen ari zen. Lupok berriz, erre-tzeko eskaini zion; Xanek eskuaz errefusatu zuen. «Nik ere utzi egin beharko nioke», esan zuen Lupok. «Txarra da tabakoa», esan zuen Belek. «Rubioa txarragoa da», esan zuen Lupok, ke-bafada batez betez kamionetako kabina. Eta, bero egiten zuen. Xanek zeuzkan indar apurrak bilduta lortu egin zuen txamarraren eraztea. Larri-larri zegoen. Bide-gurutzeetako paneletan izen ezezagunak ikusten zituen. Hasperen handi

bat egin zuen. Lupok begiratu zion. «Gaizki al zaude?»; leihatila ireki zuen eta: «Bertan dago, bertan», animatu zuen. Xan ordea, geroz eta okerrago zihoan. «Hemen nonbait da...», esan zuen Lupok, enborra aurrera, bolanteari esku biez helduta, hartara bide egokia errazago antzeman ahal izango balu bezala. Auzo estrainio batean ziren. Auto gutxi, faroletik farolera ikurrina txikiak, kuadrila batzuk, gaupasa egindakoak bezala. Jai nagusiren bat izan behar zuen; Xanek ordea hilak zenbat zituen, zein jai zitekeen ideiarik ez zuen; negua zen, noski; aurkixeago udaberria etorriko zen. «Segi, segi», esaten zuen Belek, kuadernoaz Xani haize pixka bat emanez; bat-batean: «hi, hi!», esan zuen; plaza batean ziren, etxe bat goitik beheraino plastiko berdeez, aldamioz inguratuta zegoen; etxearen aurrean, zakarren artean tuberia zaharrak, egitura metalikoak pilatuta zeuden; «aparka ezak hor», esan zuen Belek, eta Xani: «segundo bat da. Zer den ikusi eta bagoaz». Biak kamionetatik jaitsi, burdina pila hartan begiraketan ibili ziren. Tutu luze batzuk zekartzatela itzuli, berriz ere abiatu ziren. Xan ere jaitsi zen, aterkiaren babesean, koska

batean jarri zen, apur bat bere onera etorriz. Gero berriz, Belek obretako hesia azpitik igaro, obra barrenetik kable batzuk atera zituen. Orobat egin zuen Lupok, kapazo batean lan-erreminta batzuk ekarri, kamionetan kargatu zituen: erreja batzuk, grifo andana bat, zenbait aulki txiki... Azkar lan egiten zuten: dudagabe komeni ez zenen bat etortzeko beldur; eta hartara, Xan ere kezkatan, alde batera eta bestera begira. Paseo-emaile batzuk begira gelditu ziren. Xanek, inguratu zen mutil zirtzil, gaupasazale bati, hots egin zion, ez zezan Belek ekarritako foko bat hartu. Situazioa hala ere, gazte zirtzil haren lagun batzuk, kamiseta zikinekin, kuriosidade ez sanoarekin hurbildu zirenez, laster Xanentzat oso inkomodoa izan zen.

«Horrela zabiltzate», esan zuen Xanek, kamionetaren atzea plen-plen eginda abiatu zirela. Mutilek ukatu egin zuten hura lapurreta zenik. «Inor ez zen-eta», esan zuen Belek. Orain bazirudien Lupo orientatu egiten zela; bistan da, obra haren bila ibili ziren.

ENPRESA

Pabiloi txikiz inguratutako eraikuntza zahar eta handi bat zen, hormetan bentiladore erraldoiak zituena, uralita beltz koskaduna gainean; hari erantsita, brikez eginiko bloke berriago bat zegoen, gainean lore-potoz apainduriko terraza bat zuena. Bloke hartan zegoen enpresako sarrera: ate sinple bat, gainean: Olabe, burdinazko letrez.

Korridore luzean, emakume gazte bat lurra garbitzen ari zen. Handia, ile-beltza, birristi-barrasta, brioz, apur bat lardaskan lan egiten zuen. Xanen atzean atea itxi zelarik, Xan une batez hantxe, lur fregatu berria zapaldu nahi gabe, aterkia non utzi, nora jo ez zekiela gelditu baitzen, emakumeak begiratu egin zion eta, eskuseinale bat eginik: «Pasa, pasa», esan zion.

Kontuz-kontuz, ertzetik korridorea aldez alde ibili, fondoan, goranzko eskailera bat eta edari-makina baten aurrean, kristalezko kabina ez oso txiki bat zegoen; barruan gizon fin, bata urdinez jantziriko bat telefonoz ari zen; hark eskuaz itxoi-

tekoa egin eta, kableko solasa amaitu zuelarik, atea ireki egin zuen eta: «Kaixo», esan zion; «lanagatik al zatoz?»; ja eskailera seinalatzen ari zitzaion. «Gariren bila nator», esan zuen Xanek. «Gari?», harritu zen atezaina; «hemen ez dago Garirik». «Hemen lan egiten duela esan didate ba... mutil txiki bat...». «A, Garijo izango da, mantenimendukoa. Pasa, pasa... hotza sartu gabe»; atzean atea itxi eta; «abisua pasatuko diot; nola zara zu?». «Ez», esan zuen Xanek, «berak ez nau ezagutzen». Atezainak telefonoz hitz egin zuen; gero: «Ahal baduzu itxoin... Oraintxe ezin dela etorri», esan zion Xani; «nahi baduzu eseri»; Xan aulki batean jarri zen; berriz ere telefonora: «bai...? Sí, espera que te paso»; aparatuan tekla batzuk sakatu, gero eskegi eta, metalezko mahaian zabalduta zeukan egunkariaren orrialde bat pasatu zuen; berehala beste bat, arin-arin, halako umore kritikoz oro pasatu zituen; amaitutakoan: «nahi?», eskaini zion Xani; Xanek hartu zuen; berriz ere telefonora, hark: «bai... Oui... Oui... Non, c’est pas ici... Non, appelez l’autre numéro... oui, voilà». Orain, eskegitakoan, Xani zerbait esateko bezala itzuli zen;

ordea une hartan, eskaileratik jaitsita, traje eta korbataz jantziriko gizon bi agertu ziren; atezaina paper batzuen gainean aplikatu zen, oso lanpetuta egoteko itxurapenak eginez. Gizon haiek, edari-makinatik kafe bana ateraz, kontu kontari, irri egiten zuten. Xanek egunkariko lehenengo orrialdeari behako bat eman zion. Titular handiak, euskaraz, bonbardatze batzuen berri ematen zuen; zehaztu ere egiten zuen bonbak non jausi ziren; ordea, leku-izen hura ez zuen Xanek behin ere aditu; fonetika, hala ere, ezaguna zitzaion. Osterantzean, notizia haren azpian, hizki txikiagoetan, beste titular batek honela zioen: «Poliziak beste arma-biltegi bat atzeman du»; eta, haren azpian: «Gobernuak arma guztien ematea exigitzen du». «Gobernuak», zioen informazioak, parrafo batean, «albistea pozarren hartu badu ere, erakundearekin edozertaz mintzatzen hasi aitzin, aurre-kondizio ezinbesteko gisa, behin-betiko su-etena eta arma guztien ematea exigitzen ditu». Atezainak eten egin zion: «Sartzeko, esan du», esan zuen; «bulegoan itxoiteko». «Aterkia...?», esan zuen Xanek. «Utzi nahi baduzu hortxe», esan zuen atezainak; «ez

dut uste gaur ahaztuko zaizunik». «Ez... Hemendik al da?». «Bai; segi ezazu fletxa».

Bulegoko sarreran, Xan zalantzakor gelditu zen. Hainbat bulegari, zein bere mahaian, bere ordenadorean, zein bere zereginari itsatsita zeuden. Batek edo bestek begiak apur bat jaso zituen, Xani begiratu distraituak, agian jakinmin pixka batekoak emanez. Neska bat etorri zitzaion: panpina aurpegia zuena, ile tente batzuk, zango luze bi gona laburretatik behera. «Aber, eseri hortxe», esan zion, eztabaidarik onartzen ez zuen doinu halaz ere arruntaz; Xanek kasu egiten ziola, bera berriz, bulegotik irten egin zen. Han-hemen beste zenbait ate-joko izan zen. Xan paretari begira gelditu zen. Laster neska etorri zen, mahaiaz beste aldean, bere aurrean jarri, inprimaki batean zerbait izkribaturik: «Zure izen-abizenak?», galdetu zion. Xanek harrituta begiratu zion. Agian formalitate bat zen, enpresan sartzen ziren orok bete beharrekoa. Agian enpresa hartan, Etxezurian bezala, edozein galdekizunek, bai berea bezalako xinple, ez-ofizialenak ere, bide jakin, bide luze bati jarraitu behar zion. Zena zela ere Xanek haiek esan, neskak

akats bat, gero beste bat egin zuenez, Xanek zuzenarazi zion. «Helbidea?», galdetu zion neskak. «Oraingoz ez dut», esan zuen Xanek. Neska zen orain harrituta zegoena. «Telefonoren bat?». «Ez, ez», esan zuen Xanek. Neskak paperean marra bi egin zituen. Gero: «Zein da zure espezialitatea?», galdetu zion. Xanek barrendu egin zuen: noski neskak ere pentsatu zuen lan bila joana zela hara, hargatik galdezka ari zitzaion. Edozertara ere, lan bat eskainiz gero, berak ez zuen ezetzik esango. Lana behar zuen, sosik gabe zenez, hirian ustez puska baterako gelditzekoa zenez. Hortakoz, keinu anbiguo bat eginez: «Ez daukat», esan zuen, «halako espezialitaterik». Neska, harritu baino, erantzun hark pixka bat dibertitu egiten zuela zirudien. Argi-tagarbi: «Zu zertara etorri zara?», galdetu zion. «Lagun bat ikustera etorri naiz», aitortu zuen Xanek; «...hala ere», erantsi zuen, «hemen nagoela, zerbait izanez gero...». Noski, desorduko gogokeriak ziren: zein lan egin zezakeen berak, zein izan zitekeen bere funtzioa han, enpresaren jardunbidea zein zen ere ez zekien-eta?; hala ere neskak: «Lana nahi duzu», galdetu zion; baldin

bazegoen, adierazi zuen Xanek; «eta, zer dakizu egiten edo...?». «Ez dakit... Edozer egingo nuke». Neskak zerbait izkribatu zuen. «Bale», esan zuen. «Orduan...», esan zuen Xanek, «agian...?». Neskak irribarre samur egin zuen. «Zure lana», esan zuen, «(lan bat izatera, garbi hitz eginda, inprobablea dena), seguru aski, mezuak eramatea izango litzateke». «Mezuak?», galdetu zuen Xanek. «Hortik hasi dira asko», esan zuen neskak; hain inprezisoa zen, hain ezin-halakoa; eta hala ere, satisfazio txiki bat zen bere izena paper hartan ikustea: gero batere lanik izango ez baldin bazuen ere.

Gizon gazte, txiki, musu gorri, sudur zapaleko bat inguratu zitzaien; zigarroa eskuan zuela: «Barkatu», esan zuen, «zu izango zara nire bila dabilena?». «Gari?». «Bai»; Xan zutitu egin zen; «barkatu pixka bat itxoinarazi badizut», esan zuen Garik, «sabaian itaxur batzuk atera dirata... Eta, zer nahi zenuen edo...?». Xanek, diskretuki: «Xan naiz», esan zuen; eta, izen hark Gari erreakzionarazten ez zuenez: «Henriren laguna...». Garik, zigarrotik errez, duda-mudan begiratu zion. Belarri batean zintzilikario bat zeukan.

Xan saiatu zen gogoratzen; ez zitzaion, ordea, adin ezin zehaztuzko aurpegi haren atzean, aurpegi gazteago bat gomutara etorri. Une bateko isila hautsiz: «Goazemak», esan zuen Garik, «toki lasaiago batera».

Bulegoa zeharkatu, eskailera kiribilkatsu batzuetatik barrena, pabiloi handi batera iritsi ziren; zementuzko zorua, forma eta tamaina guztietako kaja eta paketeak apaletan lerrokatuta, edo lurrean, elkarren gainean jarrita zeuden. Zenbait gizonek fardel boluminoso batzuk garraiatzen zituzten; urrunkara motor baten azantza adi zitekeen. Fenwich baten atzean, txoko gorde samar batean gelditu ziren. «Orduan», esan zuen Garik, zigarroari azken zupako bat eman eta lurraren kontra zapalduz, «Henri ezagutzen duk?». «Aldi batez... harekin ibili ninduan», esan zuen Xanek; pausalditxo bat egin zuen eta: «gero ni atzeman egin ninditean eta... orain atera nauk». Datu hark apur bat lasaitu zuen Gari; emeki-emeki zalantzatik errekonozimendura igaro zen haren espresioa. Kaja baten gainean jarri zen, eskuarekin Xani beste batean jartzeko adieraziz: «Hi... noiz atzeman hinduten,

ba?». «Kasernan, gogoan izango duk, bonba bat jarri zitean ba...». «A bai», esan zuen Garik; «suetena hautsi zuena... Henrik geroxeago aldegin zian; hik Pitita, ezagutuko duk». Xanek ezpainak tinkatu zituen. «Izen horrekin...». Berari zorrozki begira, beste zerbait gogoratu nahiz bezala gelditu zen Gari. Apur batean isilik egon ziren. Bazuketen zerbait elkarrekiko, bazekiteken zerbait, nekez aipa zezaketena. Ez zen Henri bakarrik. Beren historia ere bazen. Historia bat, hain segur, isildu behar zena. «Eta, orain atera haiz e?». Xanek barre samur, enigmatiko bat egin zuen. «Egun bi zeramaat hemen», esan zuen; «bart Etxartenean izan ninduan... Esan zidatean Henri eta biok han izan zinetela...». Garik ezpainak ertirekita entzuten zion; begiak dizdizka, kontu zahar haiek gogoratzen ariko balitz legez. «Bai», esan zuen, «behin edo bitan hara lagundu nioan». Beste xehetasunik ematen ez zuenez: «Gero...?», galdetu zion Xanek. «Gero? Bai; aldi batez ikusten segitu nian. Orduan lana ere utzi egin zian baina, auzoko etxe batean gordeta egon zuan». «Hik ba al dakik», galdetu zuen Xanek, «Henrik Etxarten utzi zuen pakete baten

berri?». «Pakete bat?», esan zuen Garik, kokotsa luzatuz; «ideiarik ez»; gozo-gozo buruari eraginez, apenasko irribarre batez: «nik gauza horietaz ezer ez jakitea nahiago nian. Nik Henri, bera lana zela-ta auzora etorri eta, bertatik ezagutzen nian. Gero, auzoko mobida batzuetan ibili gintuan... Bestela zer zebilen nik ez nekian ezer; zerbait ote zebilen... baina nondik-nora, ez jakitea hobe... Bera gainera gauza horietarako oso reserbatua zuan. Baina bai, gorde eta gero ere ikusi izan nian; beti etxean, hori bai; ez zian handik irten nahi izaten; eta hala ere, etxean ere bijilatuta zegoela susmoa zian. Behin leihotik begira-begira gelditu zuan eta: Ez al duk ikusi?, esan zidaan. Zein?, galdetu nioan. Ile txuriko hori..., esan zidaan. Neuk begiratu eta... inor ez zegoan!». Garik besoei kartsuki eraginez, adorez hitz egiten zuen; «ez zuan askoz geroago izan», segitu zuen, «kontzejal hura pinu-kaja batean eraman baitzuten. Orduan badakik: kaleak bete egin zituan kontra zegoen jendez. Auzoan gure jendea potortuta zegoan. Nora gindoazen? Inork ez zekian. Goian batzuek jakingo zitean... guk ez behintzat»; ilunki gogoratzen zituen Xanek ger-

takizun haiek; Garik beste zigarro bat piztu zuen; «hura izan eta handik egun gutxira Henrirekin eztabaida izan nian. Berak esaten zian, egurra ematen segitu behar zela, eta aldi berean gure aldera indarrak bildu. Nik kristoren kontradikzioa ikusten nian horretan». Xan izu-larri zegoen. «Arestian gertatuak uste nituen gauza batzuk», esan zuen, «nonbait oso aspaldi gertatu zituan». Garik txundituta begiratu zion. «Batzuetan», onartu zuen, «lehenean gehiago pentsatu, eta gehiago nahasten dituk gauzak». Pausa bat izan zen. «Orduan hik», saiatu zen Xan, «Henri azkenekoz noiz ikusi huen?». «Ostiral batean hona deitu zidaan», esan zuen Garik: «igandean mendira zihoala-ta, aber posible nuen berarekin joatea. Zerbait bazela konprenitu nian. Muga ondoko borda bateraino lagundu nian. Elurra ari zian, dena zuri-zuri zegoan. Han lagun bat zian zain: Pitita, nik lehenbizikoz eta azkenekoz orduan ikusi nian. Elkarrekin egin genian hamaiketakoa, gero ni jaitsi, haiek arratsaldean segitzekotan han gelditu zituan... Harrezkeroztik... esamesa franko: Henri hemen, Henri han, Henri ez zakiat non... Aspaldi ez dela, lagun batek seguru esan

zidaan, auzoan ikusi zuela; zitekeena, noski. Ihesi dabilela: horixe gauza seguru bakarra. Orain hik, beharra baduk, hura atzematea behintzat, gatxa ikusten diat... Anaiarekin hitz eginda, igual... Haren helbidea emango diat... Ez zagok hemendik urruti».

Gari isildu egin zen. Tipo potolo, bizar-gorri bat pasatu zen. Elkar saludatu zuten. Garik erre zuen. «Henrik hemen lan egiten zian», esan zuen. «Hemen?», galdetu zuen Xanek. «Paketeak ekarri eta eraman; hori egiten zian. Askotan kanpoan, hemen ez zuan askotan ikusten». «Ez zen ba... mezularia izango?», galdetu zuen Xanek. «Ez. Bera garraiozalea zuan, furgonetarekin ibiltzen zuan. Mezulariak motoarekin ibiltzen dituk. Beste kategoria bat duk. Zer ba?». «Ezeta, atenditu nauen neska horrek esan zidak balitekeela enpresan mezulari gisa lana izatea niretzat». «Mezulari gisa?», harritu zen Gari; «ahal baduk, beste zerbait bila ezak». «Zer ba?». «Penagarri pagatua duk. Kontraturik gabe ari dituk gainera». «Eta... ez al dute protestatzen?». Garik irri meharra egin zuen; noski drole zitzaion Xanen ezjakina; ulerkor hala ere: «Gauzak asko

kanbiatu dituk. Orain, esan ezak zerbait; kalea hor duk, esango diate». Xan pentsakor gelditu zen; gero: «Hori al da legea?», galdetu zuen. «Legea, dagoena duk», esan zuen Garik. Xan zurpaila zegoen. «Ezer ez bagina bezala duk», esan zuen. «Ezer ez gaituk», esan zuen Garik; intrigaturik begiratzen zion Xani; agian lagundu nahi zion; bere mundua, ordea, hain aparte zegoen. «Beldurra ematen zidak», esan zuen Xanek. «Beldurra?»; Garik ez zuen ulertzen. «Izan nahi dudana ezin izateko... izan nahi ez dudana izateko beldurra. Beldurra... ez izateko». Garik stupefakto begiratu zion. «Hemen denbora-rekin», esan zuen, «nork bere txokoa bilatzen dik; nork bere taldea. Taldeak babestu egiten dik». Xanek irribarre goibel bat egin zuen. «Hi ere», esan zuen, «bahaiz, beraz, talde batekoa». «Noski», esan zuen Garik; «zein taldetakoa, ordea, inork ez zakik»; zigarrokina lurrera bota zuelarik, Xan pixka batean hura zelan kontsumitzen zen begira egon zen; pi-pi-pi bat aditu zen; Garik gerrian zuen mobila zen; nonbaitetik erreklamatzen zutela-ta, jaiki eta: «etorri», esan zion

Xani; ironia aire batez: «Bonifazio ezagutuko duk».

Zenbait langile makina handi baten inguruan, beste zenbait hor eta han lanean ari ziren tailer ilun batera ailegatu ziren. Baziren makina-hotsak, baziren boz etenak. Trajedun gizon burusoil batekin elkartu ziren. «Non sartu zarete?», galdetu zien hark. Bera aintzat hartzeak apur bat harritu, apur bat harrotu zuen Xan; hala ere, Gari eta burusoila kalapitan hasi zirenez, Xan han ziren langileei begira gelditu zen. Bi gizon sabaiko zulo batetik kable batzuk ateratzen ari ziren. Makina handian ari zirenek berriz, ernerik, ardura handiz lan egiten zuten. Makina berria zatekeen, langileek eurek zorrozki, harriduraz begiratu, kontuz ukitzen zuten-eta. Langile zahar bat, makinapean kukubilduta, hipaka ari zen. Agian mozkortuta zegoen; hori zen seguru aski besteek pentsatzen zutena, horrexegatik mespretxatzen zuten, ederki ikusiagatik inor ez zeneta hartaz axolatzen. Guztiarekin, probableagoa zen negarrez ari zedin. Xanek, ez urruti zegoeneta, hitzen bat esango zion; hark berriz, ustekabeko konplikazioetara eraman zezakeen; eutsi

egin behar zion hala ere bere balizko posizioari, bestalde hain dudagarria zena. Gaineratikoan, hiru-lau mutil zebiltzan tailerrean uxkurka: zeregin fijo bat gabe, morroi-lanak edo behintzat, ez hain lan inpreszindibleak eginez; beharbada berak mutil haiek bezala bukatuko zuen; bazitekeen hura izatea bere sinoa; eta, hala bazen, isilik onartuko zuen. Handia zen bere diru-beharra; handia, baita, bere bakardadea. Eta hala ere, bere lanak hain azpikoa izan behar bazuen, bere zereginak horren ezereza, asmatuko zuen, asmatuko zuenez, ihesbide bat: besterik ez bada eskailerape hartan, edo biltegiko pakete-lerro, kajatzar haien atzean, tarte-bitarteka ezkutatzen, Etxezurian usaia zuen bezala, eta bestalde, bertan beste langile batzuek, batzuk han, besteak hemen, disimulo handiz, egiten zutela iruditu zitzaionez.

Komunera joateko premiaz, seinale bat egin zion Gariri. Garik begia kinatu zion: misteriosoa zena edo, behintzat, era batera baino gehiagotara interpreta zitekeena. Pareta higatua, matxuratua zuen korridore ilun batean ibili zen. Komunean, kanpoan, hiru lagun zeuden, erretzen; ba-

rruan berriz, emakume garbitzailea, lehen ezagutu zuena, bere fregonarekin, eta beste tipo bat, lababo bateko xukabidea askatu eta garbitzen ari bide zena. Xan, txiza egiten ari zela, une batez gizon haren zapo-aurpegiari begira egon zen. Gero, ja bragetako botoiak lotzen, itzuli zelarik, emakume garbitzailea bazterretik, erreze-loz txizontziari begira zegoela ikusi zuen. Xani, linterneroari begira zegoela, txiza xorta bat ixuri egin baitzitzaion txizontzitik kanpo. Diskulpazko hitz batzuk esango zizkion emakumeari; hala ere, gizon hura han zenez, lotsakizunez, saiatu zen besterik gabe joaten. Alabaina, emakume garbitzaileak: «Hori da kuxidadea», marmarkatu zuen, zorrozki. «Barkatu», esan zuen Xanek, «ezin izan dut...». «Ezin?», esan zen emakumeak; «oker al duzu ba?». Xan tieso gelditu zen. Emakumea korridorera irten zelarik, linterneroak, Xani zeharka begira: zer egingo diogu!, esan nahizko aurpegia paratu zion. Xanek, eskuak garbitu eta aurpegia freskatu beharrez, keinu batez hari, beste lababoa erabiltzea ote zuen galdetu zion. «Bai bai», esan zuen linterneroak; ura, ordea, zikina zetorren; «auzo guztian da»,

esan zuen linterneroak; «ura: atzo ezkeroz auzo guztian heldu da zikina». Xanek hala ere xapa-xapa busti zuen aurpegia. «Ez da edatekoa izango», galdetu zuen. «Ez dakit edatekoa den», esan zuen linterneroak; «guk botila horietakoak erosten ditugu». Paperezko toailen ontzia bere aldean zuenez, haietako bat luzatu zion Xani. Xanek aurpegia lehortu, irten egin zen. Istant hartan bazetorren Gari korridorean; erremintakaja zeramala, larritxo zirudien. «Ba al hator?», esan zion; «joder, ez diat nire jefea aurkitzen...»; gero, korridorean zebiltzala: «teilatutik ura sartzen ari duk», esan zuen. Beste korridore bat, eskailera estu batzuetatik gora jo zuten. Eskailera haien buruan lore-poto batzuk zeuden, eta ate bi parez pare: bat zurezkoa, erdian eguzki-lore bat zuena, bestea metalezkoa, bastoa. Garik gako batekin bigarren ate hura zabaldu, azoteara irten ziren biak. Euria gogotik ari zuela, matxura ikusi zuten: haizeak uralita bat altxa, uralitak teila batzuk lekuz mugitu zituen. Gari eskailerazulora sartu, zurezko ateko txirrina jo zuen. Handik pixka batera emakume batek ireki zion: emakume heldu samar bat, txandaleko galtzak, jer-

tse batekin jantzia. Garik situazioa azaldu, eskailera luze bat eskatu zion.

Azotean Xanek eskailerari eutsi, Gari igo, zenbait minutuz han aritu zen, giltza ingelesarekin uralita tinkatzen. Xan egurra txukun-txukun pilatuta zegoen estalpe txiki batetik begira zegoen. Gero, nonbait mobiletik beste dei bat izan zuen eta, teilatutik zalu-zalu jaitsi zen Gari. «Hi, behera joan behar diat», esan zuen, «biltegian ura sartzen ari duk-eta; hik jarriko al dituk teilak...?». «Nire kontu». Gari bazihoala, Xan teilatura igo, teilak nola-hala paratzen hasi zen. Teila zaharrak, zanpatutakoan bat apurtu zuen. Izkina batean teila berri meta txiki bat ikusiz, harantza zihoala, irrist egin zuen; oso gutxi egin zuen, ez baitzen amilka karrikaraino jausi. Euria bestalde, biziago ari zuen. Xanek alde guztietara ura besterik ez zuen ikusten; kalea, handik antzeman zitekeenez, aintzira bat zen. Tximista bat izan zen, oso segidan trumoi bat, Xanek dardar egin zuen.

Eskailera ematekotan, bere atera deitu eta, emakumeak, ikusi zuelarik: «O la la!», esklamatu zuen; Xan, ura goian-behean xurrupitan, zurrun eta zozotuta zegoen; «utzi hortxe», esan

zion emakumeak; «nora zoaz?; sartu, sartu, pixka bat lehortuko zara»; azentu arraroa zuen, frantsesa zen agian. Xanek ez zuen etxea busti nahi, emakumeak ordea, insistitu egin zuen. Komunera lagundu zion, besoan zauri bat zuela ikusi zion. Noski hura garbitu behar zuen... Aurrena baina, lehortu behar zuen, ezin zen arropa haiekin egon...

Komunetik kamiseta eta galtza garbi, lasa samarrekin, etxeko zapatillak jantzita irten zenean, salan, aulki batean jarrita, zain zeukan emakumea. «Sutondoan zabaldu dizkizut arropak», esan zuen; «berehala lehortuko dira; jarri, jarri; tori»; kafe antosin bat eskuratu zion; Xan sofan jarri zelarik, emakumeak lanpara bat piztu zuen; giro gozoa zegoen; leiho zabalaz hara berriz, euria txurrustaka ari zuen; emakumeak diskretuki begiratu zion; «uste dut», esan zuen, «ez zintudala inoiz ikusi». «Probableena da». «Nola duzu izena?». «Xan»; ez zen bera galdetzera ausartu; alabaina, hark: «Ni Raissa naiz»; bat-batean besoko zauria gogoratu zitzaion, ikusi nahi zuen; marruskatze bat zen, aski zabala, ez ordea batere sakona; odol-ttantta batzuk ageri ziren;

«mina emango dizu». «Pixka bat... ez da ezer», esan zuen Xanek, serbilleta batekin odol-ttan-ttak xukatuz; Raissak ez zuen insistitu; Xanek, kanpora begira: «urak bazterrak hartuko ditu», esan zuen. «Hartuko ditu», esan zuen Raissak; «hona behinik-behin, ez ahal da sartuko; iaz tei-latu berria paratu genuen». «Ohartu naiz, bai, alde hau berrituta zegoela». Xanek zurrut ttiki bat egin zuen, antosina mahai gainean uztean, bertan zen burdinazko dortoka bat ukitu zuen; hark segurtasun pixka bat eman zion, nahiz be-rehala zalantza pittin bat eragin. «Zer zaude, tai-lerrean?», galdetu zion Raissak. Xanek barreaza-la egin zuen. «Oraindik ez dakit... lana izango dudan ere»; Raissak jakinminez begiratu zion; Xan aise mintzatu zen orain: «nire lagun batek lan egiten zuen hemen... Zuk agian ezagutuko zenuen... Henri». «Henri?», esan zuen Raissak; «bai, noski. Aspaldi joan zen. Esan zuten... ihes egin zuela. Laguna zenuen?»; Xanek baiezkoa egin zuen; Raissaren begirada kristaletatik hara, euritan galdu zen; «mutil guapoa zen», esan zuen; «haren neska ere oso guapa zen»; haren ezpainetan irriño bat zen; ezaxola irudiz: «oso...

lagunak zineten?». «Baginen... lagunak», esan zuen Xanek, isildu egin zen; Raissak gehiago jakin nahi zukeen, Xanek ordea ez zuen besterik esan; kanpora begira, sor-sor gelditu zen; samurtu egiten zuen euriaren hotsak; salako koloreek, Raissak ere samurtu egiten zuen; bere begiak hezetu ziren; Raissak agian nabaritu zuen, hasperen egin zuen; bera ere samurtuxe zegoen, eta hori agian beragatik zen, Xan apur bat aztoratu egiten zuena; halako kuraiaz: «etxe ederra duzu», esan zuen. «Nire bizitza dut hemen», esan zuen Raissak; isilaldi baten ondoren, oroiminez: «sofa horretan hil zen gure aitatxi». «Hemen?». «Bai; hor hil zen»; Xan, artega, sofan remobitu zen; «noski», esan zuen Raissak, oroitzapen tristea burutik uxatuz, «nire semealabak ere badira; nagusia ja lanean hasi da, bestea txikitxoa da oraindik...». Raissak neskatila xalo, zimurtu samar bat ematen zuen. Xanek alboan zuen kojina ferekatu zuen.

Ate baten ireki-itxi hotsa, pasiloan neskato baten boz alaia aditu zen: «Ama, ama!». Raissa jaiki, salako atean besarkatu zuen. «O la la!», esan zuen, «nola zatozen...!»: urez blai-blai egin-

da zetorren. Raissak berokia erantzi, besoetan hartu, musu eman zion. Gizon zahar bat agertu zen atean. «Eskerrak botak genituen», esan zuen hark, «sartzeko komediak ibili ditugunak!»; Xan ikusi zuelarik: «Fabrikako teilatua konpontzen aritu da», esan zion Raissak. Xan pixka bat jaiki, agian beharrezkoa ez zena, zaharrari eskua xokatu zion. «Errekak gain egin du», esan zuen zaharrak, eta Xani: «uholde izugarria zatorrek!». Raissak neskatila Xanen ondoan jarrarazi, botak erantzi, bera atera zelarik, hala neskatila, lotsagabe, nola zaharra, disimulo gehiagoz, Xani begira gelditu ziren. Zaharra betosko zegoen; noski Xanek jantzita zeuzkan arropak ikusi zituen, harrituta zegoen. Raissak, heldu zelarik: «Kendu bota horiek», esan zion zaharrari, «dena bustitzen ari zara-ta»; alabatxoari galtzerdi lehorrak, gero zapatillak, janzten ari zela, eskolari buruzko galdera batzuk egin zizkion. Alabak labur-labur arrapostu; zapatillak jantzi bezain fite, lasterka joan zen salatik hara; segituan bueltan zen, zurezko zalditxo batekin. Alfonbran jarri, harekin jolas egiten zuela, tarteka Xani begiratzen zion, jolas haren funtsa zein zen konprenitzen ote

zuen. Xanek, isilka, konprenitu egiten zuela adierazi zion. Neskatila moko-meharra, ile beltza, haren belarriak, fijatu zen Xan, parpailarik gabekoak ziren: Raissarenak ez bezalakoak, fijatu zen; bereak, Xanenak bezalakoak, bestalde. Raissa etorri, Xanen aldamenean jartzera zihoala, alabatxoak: «Ura», eskatu zuen. Raissa berriz ere atera, baso erdi-betea ekarri zion, orain bai Xanen aldamenean jarri zen. Alabatxoak esku biez basoari eutsiz, zurru-zurru edan zuen; ura, arintxo edan zuen eta, aho ertzetatik isuri, kokotsetik behera ttanttaka zihoan; nahita egin zuen noski: basoa musutik apartatuz, Xani so, barre egiten zuen. «Etorri zikin hori», esan zion amak; musua painuelo batekin garbitu zion, alaba magalean hartzeko hankak zabaltzearekin, bere izterraz Xanen izterra tinki ukitu zuen. Ama-alabek elkarri zenbait mimo egin zizkioten; gero neskatilak, eskua luzatuz, Xani besoko zauria ukitu zion; Xanek eskua hartu ziolarik, neskatila, harroturik, enborra okertu eta, jolasguran, bere gainean luzatu zen; hatz bihurri batez petxua korritu zion. «Sorgina», esan zion amak, «sorgina

zara-ta...». Orain besoa ere besoaren kontra jarrita zeuden.

Pasiloan zaharra kantu kantari zetorrela adituz, Xanek mugimendu txiki bat egin zuen Raissagandik bereizteko; Raissak ordea, bere alabatxoari buruan laztan eginez, naturaltasunez, apur bat gehixeago hurreratu zitzaion. Zaharra, dagoeneko atean, betiere kantari, beraiei begira, harrituta zegoen; ez sobera ere, kantatzeari pixkanaka utziz irribarre amultsu, eta hala ere oker samar bat egiten zienez. «Hau ez da igual bazkaltzera etorriko», esan zuen, azkenean; Raissak ez zuen berehalaxe erantzun; alabatxoari kasu egiten zion, bidenabar, beharbada, Xani; zaharrak, egonarriz: «eltzea jartzeko sutan», esan zuen. «Badago denbora», esan zuen Raissak, axolagabe. Zaharra beraiei begira, Xan larritxo zegoen; pixka bat titubeatu eta gero: «Ze kanta zen?», galdetu zion. «E?», esan zuen zaharrak. «Kanta...», esan zuen Xanek. «A... ba!», esan zuen zaharrak. Raissak barre egin zuen. Zaharrari buru soila pixka bat gorritu zitzaion. Agian lotsa, agian haserre; seguru aski ozpinduta zegoen, Xanek hain denbora gutxian, etxean halako

posizioa hartu zuelako; eta Raissari, galde-keinu bat eginez, hala nola: hau nondik atera duzu? esan nahiz bezala. Baiki, keinu hura Xanentzat ofentsiboa zitekeen; Xanek ordea apal hartu zuen. Dudagabe zaharrak bere etxean permititzea zeukan horrelako desaireak. Alabatxoa, Xanen magalean, bakar-kontuak esaten ari zela, Raissak: «Idorra zara», esan zion zaharrari. «Ba!», esan zuen zaharrak; besterik gabe joan zen pasilotik hara. «Haserre dago?», galdetu zuen Xanek. «O! Pasako zaio», esan zuen Raissak eta, alabatxoaren atzetik, honek ikusi gabe, Xani zerbait kentzeko bezala, masailean laztan txiki bat egin zion. Bat-batean jaiki, atera egin zen. Xan, neskatila gainean zuela, konfuso zegoen. Neskatilak zurezko zalditxoaren isatsa erakutsi zion, zerda gogorrez egina; bere besoen artean katutxo bat bezalakoxea zen, soil-soilik ronron egitea falta zitzaion. Laster Raissa etorri zen atzera. Azal koloretua zeukan; aztoratuxe agian: «Zoaz, maitea», esan zion alabari; «eskuak garbitu, laster bazkaldu behar dugu-ta»; neskatilak obeditu zuen; orduan Raissak, Xanen aurrean zutik, begiak distiratsu zeuzkala, bere esku bat

hartuz, hatz muturrak estutu zizkion; Xanek begiak haren begietan atxikita zeuzkan; Raissak, pixka bat aldenduz: «ez», esan zuen, «ridikuloa da». «Ez!», esan zuen Xanek, haren gerria besarkatuz; hura zatekeen Raissak espero zuen hitza, desio zuen tendresiazko laztana; une hartan, hain bolublea zirudien; Xan sukartuta zegoen; «Raissa...», xuxurlatu zuen; baina ja Raissa apur bat urrundu zen, ja bereizi zen, ja bazihoan bere besoen artetik. «Ez», esan zuen Raissak, irribarre maxkal bat eginez; ja suak utzi zuen, ja baretu zen; aldi berean triste eta alegera zegoen; «ezin dut», esan zuen. «Zergatik...?», esan zuen Xanek, desesperazioz. Raissak irribarre mikaitz bat egin zuen. Pasilotik alabatxoa zetorren. Raissak, Xani eskuan azken laztantxo bat eginez: «Orain joan egin behar duzu», esan zuen.

Xanek, bere arropa oraindik ere hezeak kamiseta gainean jantzita, dagoeneko pasiloan, bertako leihotik kanpora, eztikiago ari zuen euriari begira zegoen zaharrari, albotik pasatzean, sorbalda pixka bat ukituz: «Gero arte», esan zion. Hitz haiek zaharra pixka bat hunkitu zuten. Jiratu zen, bere begietatik lanbroak pixka bat airatu

ziren, Xani beso bietatik heldu, goitik behera begiratu zion. «Gero arte, bai». Eskrutagaitzak ziren haren pentsamenduak. Amaren besoetan, neskatilak esku potoloaz agur egin zion, Xan eskailerako zuloan ezkutatu zen arte.

Eskailera ilun zegoen, elektrizitateak joan behar izan zuen. Erdiko pisuan, korridorean, emakume garbitzailea lurra fregatzen ari zela, Xanek, ohartu gabe, zoru bustia zapaldu zuen. Emakumeak bizkar ematen ziola, ez zuelarik beraz ikusi, eta susmatuta noski, ikusiz gero nekez zuela berriz ere barkatuko, Xan zenbait segundoz kortina lodi baten atzean egon zen. Ordea, bi tipo behetik heldu eta une batez korridorearen erdian gelditu zirela, eta emakumeak, ikusiagatik, ez baitzien haiei erremuskarik egin, eta bestalde, bera gordean atzemanez gero askoz ere okerrago, edo behintzat oso trago txarra izango zela pentsatuz, Xan kortina atzetik atera zen. Emakumeak ikusi egin zuen; ez zen, izan ere, oraingoan haserretu, baina ezta harritu ere, Xan han zelako. Zeren, nahiz eta egiten ari zen lanerako Xan, eta beste bi tipo haiek, oztopo ez baziren, ernegagarriak bederen izan, bazu-

ten, onartzen zuen isilik, beren eskubidea edo arrazoia ere, bertan ibili, bertan egoteko. Eta gainera: bi sujeto haiek, katiuskak jantzita, bulego handira sartu zirelarik, lurra dezente basitu zuten. Horregatik: «Segi, segi», esan zion emakumeak Xani; eta Xan, hala ere, hanka puntetan zihoala: «lasai», esan zuen emakumeak, «arrasto bat gorabehera». Esan zuen bezala, situazioa behean, ura zela-ta, larria behar zuela ulertu zuen Xanek. Eta halaz eta guztiz, Xan pasa eta gero ere, emakumeak fregonarekin bere aztarnak ezabatu zituen.

Bulego handian jende asko zegoen: leihoaren ondoan, kanpora begira edo talde txikitan, solas animatuan. Estoldek, aditu zuen Xanek, gain egin zuten, poligono guztia urpetuta zegoen. Bertako biltegian urak metro bateko altura hartu zuen eta bonberoei hots egin zieten. Xan leiho batera arrimatu zen. Berarekin hiru-lau bulegari zeuden: espektakulu festibo batean legez, zuhaitz-adarrak eta era guztietako zaborrak zeramatzan uholde azkarrari begira. Kaleaz bestaldean, mendikume batean, lagun talde bat zegoen. Beste lagun batzuek enpresa txiki batetik

makina bat ateratzeko ahaleginak egiten zituzten. Gizon bat, kaleko pobre bat akaso, galtza motzetan, makila batekin ur-lohiari eragiten zion, zerbait ere bila. Leihotik berriz, bulegariek tipo hartaz, edozertaz barre egiten zuten. Bazen hondamenarekiko halako kezka-eza, halako distantzia. Zenbait lagun hala ere: agerrituenak, edo espreski misio hura zutenak, bazihoazen enpresa barrenera, katiuskak jantzita, braboki. Haiek balizko soluzioak aportatzen zituzten, komentario ausarditsuak egiten. Xanek kontsideratu zuen, ez ote zen hura bere egitekoa ere izango. Erabat ez zen saiatuko noski: momentuz bere interesak enpresan hain txikiak izanik; segurki hala ere jefeek, ikusiz gero beharrean, bere enpeinua kontuan hartuko zuten, gerora begira. Alta, inork ez zituen ustezko operazio haiek dirijitzen, eta bera zen aldean inork ez zuen halako grinarik azaltzen.

Bonberoak heldu zirenean, leihoetatik emakume arraituek eupaka hartu zituzten. Xanen ondoan, aulki banatan jarrita bi langile, euren artean gailegoz ari eta, bera bertan zenez zahatoa eskaini zioten, Xanek, ez hartu arren, estimatu

ziena. Orain bulegora atezaina sartu zen: aldamaldaka, belaunetaraino bustita, izerdi zuritan, koadro handi bat ekarki: bibote zuri luzeko gizon ahaltsu, aspaldiko baten erretratua zen. Kontuz-kontuz hura paretaren kontra laga eta, arnas-estuka: «Behera joateko», esan zuen; «Bonifaziok esan du». Engoiti bulegoan zirenak, banaka edo talde txikitan, erdi etsian, erdi dibertiturik, hasi ziren erreskadan bulegotik irteten. Xan ere bazihoala, ba, eskailera-buruan, botak lokaztuta baina arropak lehorrik zituela Gari ikusi zuen. Garik besotik atxiki eta: «Nora hoa?», galdetu zion. «Behera...». Garik ordea, keinu batez isilarazi, izan ere lepo-zuri bat beren aldamenetik igaro zen, gero: «Behera? Laga itzak», esan zuen; «hiri zer dik horrek? Ez duk hire afera»; Xan zalantzan gelditu zen; egia zen, hura bere afera ez zela; hala ere, bere balizko inserzioari begira, zerbait egin zezan lagungarria zitekeen. Hori ordea ez zuen Garik ikusten; hark dudagabe problema garratzagoak zituen; izan ere: «situazioa», xuxurlatu zuen, «oso gaiztotuta zagok»; prezisatu zuenez: «lepoa moztuko zigutek»; Xanek perplejitatez begiratu ziola, Garik, beti

boz-apalki: «mantenimendukoak responsabilizatu nahi gaitiztek orain, gertatu denaz; eta Leo, gure jefea, ez zakiat non deabru sartu den... Hi berriz, arropak ez dituk oso bustiak, nora sartu haiz?». «Goian bizi den emakume horren etxean, hain zuzen arropak pixka bat lehortu bitartean...». «Raissaren etxean?», harritu zen Gari; «harekin egon haiz...? Badakik nor den ezta?»; Xanek ez zekiela eta: «Bonifazioren emaztea duk... Lehen tailerrean aritu naizen trajedun burusoil harro hori... Enkargatua duk bera». Garik burua kordokatu zuen; agian grazia egiten zion Xan han egon izana; agian, bere lehengo kezketara itzuli zen. Han ziren behintzat biak, estai beretik zein goikotik beherantza zihoazenei begira, haiek ere eurak ikus zitzaketela. Guztiaz ere, beren egotemodu hura ez zitzaion Xani egokia iruditzen: zer esan behar zuten besteek, eurak hantxe geldirik, txutxumutxuka ari zirela ikusita? Gari belarrian ari zitzaion: hain gertutik, kasik inpudikoa zen. «Ez al gara joango?», galdetu zuen Xanek. «Horren perrakeriak entzuteko?», esan zuen Garik; «ni ez noak; hik nahi duana egin ezak»; baina, Xanek inorakorik egiten ez zuenez,

berriz ere besotik atxikiz, pieza handi batera eraman zuen; «hemen egongo gaituk», esan zuen, «erauntsia pasatu bitartean».

Pieza iluna oso, hala ere mahai luze batzuk suma zitezkeen, zenbait makina, egur handi batzuk. Gari mahai haietako baten ondoan, lurrean jarri eta, zigarro bat piztu zuen. Xanek berriz, apenas jartzea egin zuen eta, piezara tipo batzuk sartu zirela aditu zuen. Garik zigarroa lurrean itzali zuen, biek arnasari eutsi; zeuden hartatik ez zitzaketen sartu zirenak ikusi. Nonbait piezaren fondorantza joan, aulki batzuk lekuz aldatu zituzten. «Lababoa ataskatuta zegoen...», esan zuen boz kejati batek. «Ostias, Leo», xuxurlatu zuen Garik. «Potrojorran zegoan», esan zuen beste boz, boz erlats batek. «Eta ez haiz noski ezertaz enteratu», esan zuen hirugarren bozak. «Bonifazio», xuxurlatu zion Garik Xani, besoan kolpetxo bat jo, ate alderantza irristatzen hasi zen; hain isilik, hain azkar, narrasti bat bezalaxe zihoan. Xan ez zen istantean deziditu; gero, ikusiz-eta Gari ateaz hara zela, bera ere etzan, emeki-emeki herrestaka hasi zen... «Hireak egin dik», esaten ari zitzaion Bonifazio

Leori. «Baina ni...», kejatu zen Leo. «Urrutira joan beharrik ez daukak», esan zuen Bonifaziok, «aski duk hona berriz ez azaltzea». «Eta nora joango naiz?», esan zuen Leok. «Orain ez haiz negarrez hasiko», esan zuen boz erlatsak. Krak bat aditu zen. Xan zen. Laster zuen bere gainean tipo hura: korbata luzea, foka aurpegi bat. «Hik zer egiten duk hor?», galdetu zion; saihetsean ostiko-puntako bat jo, jaikiarazi zuen; Xani hankak huts egin zion, erori zen, berriz ere jaiki; «honek ere ez dik bere larrua berton utzi nahi izango», esan zuen. Bonifaziok, ikusi zuelarik: «Hago», esan zuen; «hi ez al haiz lehenago Garijorekin zebilena?»; Xan akongojatuta zegoen; bitartean Leok mukiak zurrupatu zituen; bistan da biktima bakarra ez izateak kontsolatu egiten zuela; «okupa hadi horretaz», esan zion Bonifaziok bere lagunari, eta Xani: «hi etorri nirekin».

Bulego batera eraman zuen. Bera jarri, Xan zutik zegoela: «Nola duk izena?», galdetu zion; buru soil hanpatu eta misformea, bibote mehea, begirada ankerra zuen. «Ez», esan zuen Xanek, «ni ez naiz... berez ni... ez naiz lanean ari». «Baina hik lehenago ez al duk izena eman...?».

«Bai, neska batek galdetu dit...», esan zuen Xanek. «Hori ba», esan zuen Bonifaziok; bere perspikaziaz harro, irribarre egin zuen, hortz zuri-zuriak erakutsiz; Xani begira, esku bateko hatzekin bibotexkak lixatzen zituela, pentsakor gelditu zen; haren kopetan zimur batzuk agertu ziren; sudurretatik hats-aldi bat botaz, interpretatzen gaitza zena: «nik hi... lehendik ezagutzen haut, ezta?», galdetu zion; Xanek lepoa apur bat luzatu, sorbaldak apur bat kixkurtu zituen; «hi ez al hintzen hemen aritu... denbora batean?», galdetu zion; Xanek ezezkoa egin zuen; Bonifazio purutxo bat piztuz entretenitu zen; haren eskuan eraztun batek diz-diz egin zuen; Xani Raissa gogoratu zitzaion; ez ote zuen hura zela-ta Bonifaziok hara eraman; inondik inora jakin ote zuen, bere etxean izan zela?; ez zen probablea; eta, Bonifazio hori jakin gabe zegoela, Xan lasaiago zegoen: nahiz hura enpresako buruzagietarik izan, eta nahiz bera orain, era batera, haren menekoa zen, haren emaztea... nolabait, une batez, berea izan zuen; «eta», esan zuen Bonifaziok, «hire lehenbiziko egunaz zer balantze egiten duk?». Xanek, ustez-eta aukera bat zuela: «Nik...

ba, honekin... Bo, ez dut ezer askorik egin», esan zuen; ez zuen Gari, ez zuen teilatuko matxura ere aipatu nahi izan. Bonifaziok, Xani tinki begira, bere nahasiarekin gozatu egiten zuela zirudien. Trataera behintzat, batez ere Xanen errugabetasuna kontuan izanda, ez zen begirune handikoa. «Noski», esan zuen Bonifaziok, «ez duk berebiziko balantzea»; nahigabezko hasperen bat egin eta: «ez hintzen», esan zuen, «behar zen garaian, behar zen tokian». «Niri», saiatu zen Xan, «inork ez dit esan... nik... toki jakinik ez nuen...»; argudio haiek ordea, hain ziren ahulak, hain ziren lekuz kanpokoak, Xanen boza motelduz joan baitzen, azken hitzak berak ere apenas entzun ahal izateraino. Ez zuen behinik-behin Bonifazio komentzitu. «Agian alferra izango haiz», esan zuen hark, «edo agian babua; kezkatu egiten naik», erantsi zuen, «hire nortasunaren alderdi horrek». Xanen begi ertzean malko bat ageri zen: samin handikoa, suminezkoa ere bai. «Zuk», ekin zion, «zer dakizu nitaz?». Bonifaziok ostera, jaramonik egiteke: «Puntu bat galdu duk», esan zuen; horrek Xan inpresionatu zuen; dardar egin zuen; puntu

batto... zenbatetarik?; bazituen, hala ere, puntu batzuk oraindik?; «dena dela», esan zuen Bonifaziok, «puntu hori dezisiboa zuan. Printzipio kuestio bat duk»; berak, Xanek, ez baitzuen, bistan da, printzipiorik; «eta orain, hoa hemendik!», bota zion Bonifaziok.

ELI ETA KONKORRA. PITITA

Arratsaldean, zerua gris, ateri zegoela, bide zuzena ibili barik, mendi mazeleko karriketatik barrena itzuli bat eginez inguratu zen Xan Henriren anaiaren etxera. Bazekien nontsu zen, bazekien nora zihoan; izan ere, auzo hura, kale haiek, nahiz oso kanbiatuak izan, ezagutzen zituenak ziren; bertan izan zuen, denbora batean, bere bizitokietako bat, bertako ostatu batean egin zituen lagun pasajero batzuk.

Herrenka zihoan, baten batek jarraitzen ote zion behin edo behin gibelera miran. Ez zitekeen batere fida. Behin, bere atzean, oso hurbil, itzal baten presentzia sumatuz, eskaparate bati so gelditu zen, bere begitazioa izan zela komentzitu zen arte. Gero, kale nagusira heldu zelarik (bera zihoan kalea bertatik ikusi zezakeela), berriz ere atzean norbait zuela begitandu zitzaion; ez zuen seguru ere esango. Kale hartan jende asko zebilen. Edozertara ere, bertan zegoen ostatu batean sartu, haren kristalen atzetik, disimuloz, kitziketan egon zen. Denbora gutxi egin

zuen han; eskatu zuen ardoa trago batean edan eta, irten egin zen. Prudentki hala ere, etxe-sailari itzuli bat egitea pentsatu zuen.

Berriz ere, orain gorago, kale nagusira heltzera zihoala, bertan zen parke txiki batean, zuhaitz batzuen azpian, lagun batzuk bilduta zeudela ikusi zuen. Lagun haiek, hogei bat, gehiagorik ez, semizirkulo baten hastapena bezalako lerro bat osatzen zuten: oro isilik, oro kale nagusira begira. Xan, jakinminez, gelditu egin zen. Bertan lagun haiek zerbaitek, segurrenik ideia, edo kausa batek batu zituela zirudien; antza beren isilaz zerbaitegatik protesta egin, zerbaiten alde edo kontra zeudela adierazi nahi zuten. Inoiz ez elkarri begira, inoiz ez elkarri mintzo, bazitekeen aldez aurretiko erabakiz, baina bazitekeen lotsaz, bazitekeen elkarrenganako estimarik ezaz. Batzuk zamarraz eta kirol-zapatillez jantzita, beste batzuk beroki luzeez eta oinetako sendoez, elkarrengandik aski diferenteak izan eta, ez pankartarik ez beste erakusgarririk zutela, bista batera, elkartzen zituen zer bakarra hain zuzen ere isiltasun hautsigaitz hura zen. Bestalde, Xani ere, aurrena beraien aurretik igaro zenean, eta

gero, zuhaitz baten atzean gelditu zenean ere, ez zioten begiratu, edo egin bazuten, oso begierdiz, ez ikusi irudia eginez egin zuten; agian hotzak lepo-zurrunduta zeuden. Zierto, bera parketik kanpora zegoen, haiengandik urruntxo; zierto, bera ere kuxkubilduta zegoen, zuhaitz azalzimur baten atzean, ez oso gordean, baina apenas aurpegiaren perfila, agian zapaten muturrak agertzen zituela. Bestalde, arrats iluna zen, eta bertako farolek ez zuten parkea erabat argitzen.

Zuhaitz haren atzean goaitean zegoela, bada, halako batean, bertatik ez urrunegi, kale nagusian bertan, gorago, tiro-hots batzuk aditu zituen. Kale nagusiko oinezkoek gora begiratzen zuten, lerroan zirenek ere bai; orain txutxumutxu pixka bat egin, oinetakoak astindu zituzten. Laster oso, kale nagusitik barrena gazte andana bat lasterrean etorri, batzuk beherantza segitu, beste batzuek parke-inguruan posizioak hartu zituzten. Lerrokoak une batez elkarrengana inguratu ziren, geroxeago, egonean egon ziren bezain isilik, emeki-emeki, inguruko karriketara barreiatu ziren. Gazteek, batzuk aurpegiak estalian, beste batzuk ez, parke bazterrak beren

mende hartu eta, espantu handiak eginez, gora begiratzen zuten. Hantxe zegoen kafetegi batetik emakume batzuek, soinean larruzko berokiak zituztela, kaleratu eta, antxintxika txikian kalean behera jo zuten. Aurki kalean oinezko bakan batzuk baizik ez zebiltzan, haiek ere urduritxo, bizibizi urratsa. Xan beretik, zegoen zuhaitzetik aldendu eta, berehalaxe erretira egitera deziditu gabe, bertan aparkatuta zegoen jeep batean apoiatu zen; alde batera hankan min handi samarra zeukan; bestera berriz, ikusmina ere bazuen. Anartean gazteek kotxe bi kruzatu, kontainer bat irauli, nonondik harri batzuk eskuratu zituzten. Etxeetan balkoiak itxi eta, kortinen atzetik pertsona bat edo beste zelatan zegoen. Kale nagusian, goian, poliziak ikusten ziren: aho-zabaleko eskopetekin armatuak, parke alderantza tiro tiraka. Laster gauzak, arma primitiboak zerabiltzatenentzat, oso gaizki jarri ziren. Ke artean erretiratzen hasi ziren. Gazte batek, eskuan botila bat zuela, ez-lasai, gora begira bizkarka zetorrela, Xanekin topo egin eta errebeska, mesfidantzaz begiratu zion. Ja parkearen gainean poliziak agertu ziren, ja gazte gehienek beherantza

egin zuten, ja lagun bik baino ez zuten barrikada defenditzen. Bat-batean Xanek bere burua oso bakarrik ikusi zuen: gelditzen ziren kafetegi hartako atean gizon ez-inplikatu batzuk, gelditzen ziren parkeaz hara hiru-lau mutil-koxkor, gelditzen zen, jeeparen babes ez oso seguruan, bera.

Poliziek, gazteak uxatu eta kalea despejatu eta gero, kantoi bitatik, behetik harriak eta su-ziriak jaurtitzen zizkieten gazteei disparatzen segitu zieten. Parke parean establezitu zen kalma relatiboa aprobetxatuz, oinezko batzuk, nondik-handik, beren ezkutalekuetatik irten, nora-hara abiatu ziren. Une egokia zelakoan, Xanek ere, jeepetik aldenduz, poliki-poliki, hanka herrenka, burua makur, su biren artean harrapaturiko hiritar arrunt bat legez, kalea kruzatu zuen. Ja beste aldean, ja gorantza, ahal zuen arinen, izkina batera heltzen ari zela, polizia bat begira zuela iruditu zitzaion. Hark bere aurpegirik ez ikusteko, Xanek bista apur bat gehiago bajatu zuen. Orduan bere atzean, boz sendo batek: «Tú», esan zuen. Zierto eta garbi zekien berari ari zitzaiola. Hala ere segitu zuen ibiltzen. Bizkarrean kolpe bat sentitu zuen. Buelta-erdia egin eta, oso

makur, begiak itxita, burua besoarekin babestuz: «No me pegue, yo no he hecho nada», esan zuen. Barre batzuk aditu zituen. «Déjale», esan zuen polizia batek, «es un pobre hombre». «Venga, muévete», besteak. Xanek lotu-lotuan, herren handiarekin, kalean gora segitu zuen.

Tiro-hotsa atzera laga eta, hanka herrestan zuela urrundu, borrokaren aztarrenik ez zen kale-gurutze batera iritsi zen. Orain, helbide jakinera lehenbailehen iristeko asmoz, kale batean sartu, hura bide itxia zela-ta, apur bat gora egin, gero eskumara sartu zelarik, ohartu zen berriz ere bidea erratu zuela. Kale estu, ilun batean zegoen. Bat-batean bere atzean, oso bertan, baten bat zuela sumatu zuen. Jiratu zen. Bekoz beko beroki iluneko gizon ile-zuria zuen. Ikarak paralizatu zuen. Gizona beragana zetorrela-ta, Xan, atze-atzeka joan eta, hormigoizko eskailera baten kontra jo, estropezu egin, erori, hortzak gora zituela, farola baten argiak itsutu egiten zuela, jarrera gaiztoan gelditu zen hantxe. Gizona bere aurre-aurrean gelditu zen; atxiki gabe baina, Xanek edozein mugimendu egitera bere esku gotorrez atzemateko prest; bere sorbalda

gainetik kaleaz alde bietara begiratu zuen; ez zen inor begi-bistan. Gero begiak Xanengan tinkatu zituen; halako satisfazioa, halako mespretxua zegoen haren begiradan. Xan, eskaileraren kontra estututa, begi izuak gizonaren aurpegitik apartatu ezin zituela zegoen.

«Zer ari zara?», esan zuen gizonak erdeinuz; «berriz ere legez kanpo jarri nahi al duzu, ez al duzu ikasi...? Noiz eta orain, ustez ondo-bidean zinela, zeure bizitza hondatu nahi duzu...? Kide zaharrak atzeman nahian al zabiltza...? Haiek galdu dira, haiek zure imajinazioan beste inon ez dituzu bizi... Ez al dakizu erakundea bere azkenekotan dela, ez al zara ohartu?»; haren ezpain meheetan irribarre anker bat dibujatu zen; «edo beharbada», esan zuen, «independentziaren kimera horrekin egiten duzu amets; he! Zer uste duzu, zuri horrek zer ekarriko dizu? Kondena igual-igual beteko duzu»; aita-doinu zuri, zital hura... puñal bat zen haren frase bakoitza; Xan ezpainak lotuta zegoen; «Etxezuriak», segitu zuen gizonak, «lege onez eskaini zizun baimena aprobetxatuz ihes egin duzu; badakizu zer dakarren horrek... Eta hala ere, oraindik ez zaude ze-

haro galduta. Zuzendaria prest dago zu barkatzeko, orain, zeure kabuz, nirekin itzultzen bazara. Informean, kolaboratzen baduzu, pena arintze aldera, esango dugu, konparazio, nahasketaldi batean, hirira zeure ama ikusteko asmotan etorri zarela; bestalde, biok dakigunez, ezinezkoa dena... Alferrik tematuko zara. Kanpoan inor ez duzu, han duzu zeure benetako familia, besozabalik hartuko zaituena...».

Xanek azken hitzak apenas aditu zituen. Bazekien gizonak zioen informe hura ez zela osasun-informe bat izango, ezpada informe judizial bat, eta berak handik hara esan zezakeenak bere pena larritu baizik ez zuela egingo... Eta, guztiarekin, gizon hark, eta beste saripekoek, egun haietan jarraitu, berari buruz asko bazekiten ere, ez bide zekiten printzipala, ez bide zekiten Henri zela bila zebilena; Henriz, baina, berak sekulan ez zien informazio koskorrenik emango.

Halako batean gizonak, berokia zabalduz, gerri-gibeletik eskuturreko batzuk atera zituen. Istant hartan aditu zituen Xanek, handik ez urrun, tiro bi, garrasi batzuk. Lepoa okertuz, kale muturrean gazte batzuk agertu zirela ikusi zuen.

Haiek ordea, harantza begira eta gainera, beraiengandik urrutitxo zeuden. Hala ere Xanek, laguntza eske, eskua jaso zuen; esan ere, esan nahi izan zuen: lagundu!, bere eztarritik ordea bele-arrazka bat atera zen. Gizona, arriskua sumatuz, makurtu egin zen; eskua heldu nahian, Xan pilota bat eginda zegoela, besotik tira eginez arrastaka ibili zuen. Gero bat-batean, gizonak laga egin zuela nabaritu zuen. Begiak ireki, mutil aurpegi-zorrotz bat sorbalda astintzen ari zitzaion. «Ondo al hago? Ondo?», galdetu zion hark. Xan poliki, nekez jaiki zen. Ile zuriko gizona konorterik gabe, lurrean tripagora zegoen. Xanek beste hitz batzuk murduskatu eta, abiatu egin zen...

Kale jakinean inor ez zebilen. Garik aipatu zion oinetako-konpontzailearen tailerraren ondoko portaletik, une hartan, lagun batzuk irteten ari ziren: aurretik umemoko bat, gero emakume bat, sudur handia zuena, kasu egin ziona, azkenik gizon moreno bat, Xanen praketara begira pasatu zena. Bebarrura sartzera zihoala, kale izkinan bi pertsona azaldu ziren. Ez ote berari begira, ez ote beragana zetozenak? Goreneko

pisua, esana zion Garik. Larri-larri igo zituen eskailerak. Gora iristen ari zela aditu zuen, beldur zenez, bebarruan jende-hotsa. Atea irekita zegoen, burua sartu zuen. Pasiloan baten bat urruntzen, fondoan argi baten isla nabaritu zuen; osterantzean iluna zegoen. Erabat sartu zen. Urratsak gora zetozela-ta, kuarto batera egin zuen. Leihotik sartzen zen argi pixkarekin mueble zahar batzuk, lurrean kartoi pila bat, ohearen gainean zenbait manta nahaspilatu ikusi zituen. Bat edo batzuk, isil-isilka, apartamentura heldu zirela sumatuz, Xan ohepera sartu zen herrestan. Pasiloan ahots batzuk oso bajutik, sekretuka bezala ari ziren. Xanek arnas-hotsari eutsi zion. Lagun bat, gero beste bat sartu ziren gelan. Argirik pizteke: «Aquí está», esan zuen emakume baten bozak. Xanek begiak itxi zituen. Presio bat sumatu zuen: baten bat ohe gainean jarri zen, uxumuxuka hitz batzuk esan zituen, run-run bat aditu zuen. Ez ziren, antza, beragatik ari. Bazen nonbait baten bat ohatzean, manta nahaspilatuen azpian. Orduan baina, zutik gelditu zenak, pixka bat makurtuz: «Aquí hay otro», esan zuen; Xanek hankak bildu zituen; neska batek, somie-

rra apur bat jasoz, lagun gisa: «e, qué haces tú ahí?», galdetu zion. Xanek, orain beldurrez baino gehiago lotsaz, erresistentzia pixka bat egin zuen. Alde guztiz, ez zirudien neska hura etsai moduan zetorrenik. Noski etxekoa behar zuen. Nolanahi ere, atzeman egin zuten. Halaz ere berak, burua pixka bat agertuz: «Xxx», esan zuen. Neskak barre egin zuen. Azkeneko behintzat, Xan irten egin zen, baldarki zutundu. Bere aurrean neska lodixko bat zeukan, ohean beste neska bat zegoen eserita, haren aldamenean, manten artean burua ikusten zitzaiola, mutil bat itxuraz. Hura, berriz, lo gogortuta zegoen. Hartan, ohe gaineko neskak: «Xan?», galdetu zuen; intziri batean esan zuen, Xanek ez zuen ezagutu; isilaldi baten ondoren, irri pixka bat egin eta gero: «ez nauzu ezagutzen?», galdetu zion neskak. Noski dibertituta zegoen. Xan, pixka bat harengana makurtuz: «Eli?», galdetu zuen. Neskak berriz ere irri, Xanek dardar egin zuen. Ile luzeak aurpegia ia erabat estalian, beti barre-doinuan: «Zer egiten duzu hemen?», galdetu zion Elik. «Esan didate», balbalkatu zuen Xanek, «hemen bizi dela... Henriren anaia». Beste neskak min-in-

tziri txiki bat egin zuen, pixka bat tolestu zen. «Eseri», esan zion Elik hari; neska eurengandik aldendu, leihoaren ondoan, aulki batean jarri zen; «nire ahizpa da», esan zuen Elik; isilaldi bat izan zen, Xanek ikusi zuen Elik eskua lo zegoen haren buruaren gainean ipinita zeukala; hargatixe: «ez duzu ezagutzen?», galdetu zion Elik; Xanek ezezkoa egin zuen; «bera duzu Henriren anaia»; Eli haren aldamenean, beroki handi baten barruan, hankak bilduta, txikortua, figura txikitxo bat zen; «zergatik sartu zara hor?», galdetu zion Elik, irritsu. «Beldur nintzen...», esan zuen Xanek, bista apaldu zuen. Hurbildu egingo zen Eligana, haren kontra estutuko zen, ez balitz urrutitxo egon, ez balitzaio Henriren anaiari eztieztia burua laztantzen arizan. Ez hona eta ez hara zegoela: «Jarri», gonbidatu zuen Elik, eskuaz ohea seinalatuz. Xan, kartoi batzuk apartatuz, ohearen oinetan, izkina-izkinan jarri zen, bizkarra paretaren kontra. Orain Eli eskueran zuen, ez zen haatik ukitzera ausartu, ez zen, seguru aski, une hartan halakorik komeni. Anartean ahizpa liburu bat zabaldu eta, kanpo-argi motelaren pean begiztatzen hasi zen. Xanek, apur bat

zer egin ez zekiela, bere sudurra, gero bere kokotsa igurtzi zituen. Elik zigarro batto eskaini zion; sua emandakoan pixka bat elkarrengana bildu, gero berriz ere bereizi ziren. Biek erre zuten. Halatan, bada, lagunak ziren, ez zen elkarren artean beharbada besterik. Pasiloan urrats batzuk aditu ziren, norbaitek atea pixka bat ireki, barrura begiratu, ezer esateke, atzera pasiloan ezkutatu zen; Elik eta bere ahizpak ez zuten erreparatu, ez zioten behintzat hari garrantzirik eman. Euren berokiak erantzi gabe, ez ziren segurrenik luzerako etorri. Xan apur bat mendratuta zegoen: ez-leku samarrean, pixka bat lotsatuta ere. Eli-ta, zertara ailegatu ziren hara? Zer zen ere, Xan ez zen behintzat hasiko galdezka. Zeren zain zeuden? Henriren anaia esnatzeko zain, agian; hura, ordea, manten azpian lo-lo, hotzak kuxkubilduta bezala zegoen. Puxka batean hala egon ziren. Istant batez, Xani iruditu zitzaion Elik irribarre egiten zuela. Zer pentsatzen ari zen? Ez zekien, agian, berak ere zer egin; eta halaz ere kontrolatu egiten zuen, era batera, situazioa. Neska misteriosoa zen. Bazuen zerbait, Xani barren-barrenera heldu, erremedio gabe zerama-

na; zena zela, handia zen bien arteko une hartakoxe distantzia; hankak bilduta, isilik erretzen zuen Elik. Zergatik, ahapeka bada ere, ez zion ezertxo ere esaten? Ez zekien Xanek zer pentsatu hartaz. Agian ez zituen bere sentimenduak erakutsi nahi, bere ahizparen aurrean; edo agian ez zuen berari zer esatekorik, ez-normala zena, kontuan izanik beren arteko historia labur, bai, baina gozoa. Hala ere, lasai ematen zuen neskak; haren besoa ezpainetatik hautsontzira elastizitatez bildu eta luzatzen zen, pipaldi bakoitzean. Azkenean: «Eta zu?», galdetu zuen Xanek. «Ni?», galdetu zuen Elik, amets batetik aterata bezala. «Zer moduz zaude?», galdetu zuen Xanek. «Ondo esan beharko». Distraitu antzean esan zuen; bista, bistan da, beste horizonte batzuetara ipinita zeukan. Artean Henriren anaia mugitu egin zen, gero manten artetik soina atera eta, nagiak ezaxolaz, lotsa gutxiz atera zituen. Mutil handi, gaztetxo, bizkar-konkor, ezpain-lodi, bixarguri, Eliri begi-kilimusi bat egin zion. Noski lagun onak ziren, ez baziren amanteak, alde batera, mutilaren adina, bere fisikoa, bere xabarkeria kontuan izanik, estona-

tzekoa zena, eta bestera berriz, Xanentzako mingarri samarra. Alabaina, mutil lañoa zela zirudien; lasai eta gozoa, menturaz, esperientzia eta arrasto gutxikoa, hala ere. Guztiarekin, desabantailatsua zen Xanen posizioa; ezen, bera Eligandik urrutitxo zegoen, eta konkorra berriz, oso haren arrimuan. Isilantzeko solasean hasi zirela nabarituz Xanek, pudorez, begirada apartatu zuen. Handik pixka batera, armarioko ispiluan, ilun hartan, Elik eta konkorrak elkarri musu bat ematen ziotela begitandu zitzaion; edo, halakorik izan ez bazen ere, behintzat bien bisaiak oso juntu egon ziren momentu batez. Gerotxoago berriz, Eli zigarroa hautsontzian uztearren jiratu zelarik Xanek ikusi zuen, konkorra bere belarria Eliren eskulepoaren kontra marruskatzen ari zela. Baziren, beraz, une hartan behinik-behin, bata bestearentzat, nahiko nabarmenki. Eta Elik hala ere, ez zuen bera erabat gaitzesten: konkorragana zalutasunez desplazatu zelarik, zango bat luzatu zuen, botarekin Xanen izterra ukitzeraino. Xanek ahizpari begiratu zion; hark bere aulkian, liburuari begira, hasperen egin zuen: min hasperen, neke hasperen? aurki zain zego-

en, Xanek ez baitzekien zeren. Atzamar birekin ferekatu zuen Eliren bota, pentsatuz ezen, denborarekin agian, haren orkatilaraino iritsiko zela. Bitartean Elik eta konkorrak, ohearen buruan bat eginda, apal-apalik berbetan segitzen zuten. Guztiarekin, beharbada ez zuten bizitzari buruz elkarrekiko guztizko xederik, beharbada lagunak besterik ez ziren. Konkorrak, halako batean, manten artetik erabat irtenda, jaiki eta pasilora egin zuen. Elik bere jarrera berkonponitu zuen: atzera zangoak bilduta, atzera zigarro bat piztu, Xani eskaini ziolarik, honek, ez epelegia, ez, agian, sendikorregia ematearren, eta halaz ere eztiki: «Orain ez», errefusatu zuen. Izan zuen hark, agian, bere eragina. «Esan didate», esan zuen Elik, «Olaben zinelarik, ura sartu dela...». Xanek harrituta begiratu zion. «Bai», esan zuen; «porzierto: konfusioarekin, guardasola han utzi dut». «Guardasola? A»; ez zuela inporta, keinu bat egin, gero pausa bat, gero, irri maltzurtxo batez: «Raissa ezagutu duzu», esan zuen. Ilunean, Eliren begiak bilatu zituen Xanek. Zer esan nahi zuen? «Berak esan dizu?», galdetu zuen Xanek. Elik keinu anbiguo bat egin zuen. «Eta»,

esan zuen, «zer moduz harekin?». Bazen haren doinuan inkirin pixka bat, bazen, agian, zelorik ere zerbait. «Ondo», esan zuen Xanek, esan nahiz bezala: besterik gabe; Elik barre txiki bat egin zuen; agian berarekin burlatzen ari zen, betiere fineziaz; Xanek burua makurtu zuen, boz apal-apalarekin: «zurekin gogoratu naiz», esan zuen. Isilune baten ondoren: «Ni ere gogoratu naiz zurekin», esan zuen Elik; ez zen, ordea, hitz haietan halako poz edo xagrinik; konstatazio sinple bat zen; eta, hala bazen ere, baziren haiek egiaz beteriko hitzak. Eta, berriz ere, Xanek inpresioa izan zuen Eli haur hauskor bat zela. Aurpegitxoa hartu, laztandu egingo zion; ez zatekeen hala ere momentua. Nolabait bere atxikimena erakutsiz, Xanek hautsontzia hurreratu zion. Elik begirada galdua zeukan. Xanek zerbait esan nahi izan zuen, eztarrian baina korapilo bat zeukan. Orduan sartu egin zen atzera konkorra, gela erdian plantatu zen, eskuak poltsikoetan zituela, bertso bat bota behar zuela zirudien. Xani keinu arraro bat egin, gero Eliri: «Listo», esan zion; larri antzekoa zuen ahotsa, triste eta maliziosoa, agian, begirada; Elik zigarroa itzali, han-

kak luzatu, ohearen ertzean jarri zen; «iluntze nabarrean?», galdetu zuen konkorrak; jijimajia pixka batekin hitz egiten zuen. «Bale», esan zuen Elik; Xani bizkarra emanda, bere poltsatxoan zeozeren bila, konkorra bere aurrean akuriko jarri zen; berba-marmar pixka bat egin zuten. Ez ote, berataz ari? Eta, Elik irri pixka bat egin zuen. Irri hark behintzat, Xan pixka bat mindu zuen. Eli beragandik hain urruti zegoen. Begiak lausotzen ari zitzaizkiola nabarituz, Xanek beste aldera begiratu, ahizpa ikusi zuen. Hura, beti liburu hari begira zegoen, orrialderik, ustez, pasatu gabe, min-arrasto bat aurpegian. Eli baino beteagoa zen, beldurti samarra menturaz. Beroki, agian, urdin ilun bat, larruzko bota luzeak jantzita zegoen. Gero begiak Eliren bizkarrean atxiki zituen; haren gorputzaren parte harekin konformatu behar zuen; bizkar hura, pentsatu zuen, oraindik pixka bat berea zukeen; neskaren bularrak, berriz, konkorrarenak izan. Alabaina Xanek, Eli ikusten segitu nahi izanez gero, handik goiti, nolabait, konkorrarekin konpartitu beharko zuen, neskaren oniritziz. Sobra ere konkorra tipo berezia zen. Gisa batera, Eli ere berezia zen, neskak

berak ez zekien, beharbada, noraino. Biak ere bereziak, nahiz fisikoz hain diferenteak izan, bazuten elkarrekiko entendimendu arraro bat, bazuketen elkarrekiko nolabaiteko antza, umore beretsua. Xanen begian malko bat zegoen. Orduan: «Ai», lamentatu zen Eliren ahizpa; eta berehala: «ai, ai», lamentatu zen. Eli harengana joan zen. «Goazen», esan zuen. Ahizpa jaiki zelarik, Xan ohartu zen hura haurdun abantzatuxea zela; joan behar zuten, menturaz, ospitalera oraintxe. Xan ere jaiki zen. Elik bere ahizpa konkorraren besoetan laga eta, berari etorri zitzaion. Begian malkoa ikusi zion, hatz batekin xukatu zion. Hark pixka bat kontsolatu zuen Xan. Ez zuten hitzik esan. Dena esanda zegoen. Eli ja bereizten ari zen. Agian apur bat nahastuta zegoen, Xanen sentimenduen indarraren aurrean. «Egongo gara», esan zuen. «Bai», esan zuen Xanek; ez zegoen oso sinetsia.

Atera ziren haiek, Xan eta konkorra buruz buru gelditu ziren. Konkorrak despistatuta ematen zuen, preokupatuta agian, ez agian oraindik erabat esnai; gero betaurrekoak jantzi zituen eta, zurrun Xani begira: «Hi haiz, hortaz, Xan»,

esan zuen; Xanek mormor batekin eman zuen baietza; «...Motan zeldari su eman ziona»; Xanen begiek diz-diz egin zuten; «Etxezurian latzak pasatuko hituen...», esan zuen; Xanek ez baitzuen ezer esaten: «etorri», esan zuen, «goazemak sukaldera. Hemen satorrak ematen diagu»; gero, pasilo luzean zebiltzala: «orduan... Lazarorekin izan hintzen?», galdetu zion. «Bai», esan zuen Xanek. Konkorrak barre-karkara batzuk egin zituen, bere karkasa osoari eraginez. «Hobea dik anaiak», esan zuen, «hark ez jakitea non den... Egoera ez zagok brometarako».

Sukaldean, zuri-beltzezko telebistan, trajedun mutil bat, alboan neska gona-laburtxo bat zuela, esaten ari zen: «Y ahora, señoras y señores, vamos a saber a quién corresponde este magnífico premio...». «Honek zer utzi dik...», esan zuen konkorrak; bolumena kendu, pertsiana ondo itxita zegoela konprobatu, argia piztu zuen. Ezkerrean, telebistaren aurrean sofa txiki bat zegoen; eskuinean sukaldea, mahaia, mahaiaren gainean zumogailu bat, ogi erdi bat, ardo botila bat erdiaz gora beterik, baso zikin bi zeuden. Sabaian tranpilla bat ireki zen, handik

buru txiki bat agertu zen, hark konkorrari: «Zer habil?», galdetu zion. «Hi...!», esan zuen, saludo gisa, konkorrak, segidan buru txikia gorde zen, tranpilla itxi, sabaian urrats batzuk aditu ziren; «eseri», esan zion konkorrak Xani; baso zikinak erretiratu, baso garbi bi atera zituen; «ez zakiat zerbait ote den», esan zuen; «a, hemen duk»; armario batetik txorizo luzanga bat atera zuen, kutxilo bat eskainiz: «hamaika buelta emanda egongo haiz eta... jan!», esan zuen. Eskua kopetan zuela, motibo aparenterik gabe sukaldean itzuliño bat egin, gero Xanen ondoantsu jarri zen. Kristal lodien atzean begi marroi hitsak, gorrikara masailak, beheko ezpaina pittin bat eroria, soinez handi-delikatua, mutil baldarxka zirudien, ez agian oso kartsua, ero samarra menturaz. Xanek txorizo mutur bat eskaini ziolarik hark, esku-palmak erakutsiz retxazatu zuen. Gero, bizkar-konkorraren zamapean beso-aurreak mahai gainean ezarrita, nondik-handik ateratako erretzeko puskak atondu zituen. «Heuk ere», ekin zion Xanek, «ez dakik, orduan, anaia...». «Ez jakin eta ez jakin nahi ere», esan zuen konkorrak; gero, boza apalduz: «orain»,

esan zuen, «askok esana duk, hirian ote den...»; eta, boz ozenarekin: «nik ez nikek baietz karraturik esango!»; bekainak goititu, sorbaldak jaso zituen, kanutoa egiteari lotu zitzaion; Xanek basoa kup batez hustu eta, usu bete zuen atzera; «guk ez diagu behinik-behin ikusi», esan zuen konkorrak, papera listuaz hezetuz; «nik azkenekoan», esan zuen eta, korkotxak permititzen zion hartaraino bista gora emanik, kixkortuta begiak, segundo batzuk pentsakor eman zituen, gero: «aitaren entierroaren egunean ikusiko nian; bai, orduan izan zuan»; zigarreta piztu, segitu zuen:

«Bi egun lehenago etorri zuan etxera. Orduan bera ihesi baina lokalizatzeko moduan zegoan eta nik, lagunen bidez aita ingresatuta eta oso gaizki zegoela abisua helarazi nioan eta, hala etorri zuan. Anaia zaharra kanpoan zegoan eta etxean, haren seme-alaba txikiak eta ama eta ni neu gintuan. Bazkalaurrean etorri zuan, lagun batekin: Pitita, igual ezagutuko duk»; Xanek ezezkoa egin zuen; «eta, bezperan izan zuan, jendarmeek hiru lagun utzi baitzituzten hemengo polizien esku, haietako bat Asier, auzo-

koa, eta huelga deia eginda zegoan, goizaldetik zeudean karreterak moztuta. Hamaikak aldean zibilak trenbidea garbitzen aritu zituan, eta trenez etorri zituan ba haiek»; konkorrak erre egin zuen; belarrak bizkortuta: «atea ireki nuenean», esan zuen, «hasieran ez nian ezagutu. Pitita ere apenas ezagutzen nian orduan eta, Henri berriz, antiojo beltzak eta lehenago ibiltzen ez zituen bibote luzeak ere bazitian eta, amak ere ez zian ezagutu aurrena. Hilabeteak zeramatzaan hark ere ikusi gabe, Henri ez baitzen aldegin zuenez geroztik etxean azaldu. Pitita bazter batean gelditu zuan, eta amak, bera ere ziztrinduta eta ohean zegoan eta, ezagutu zuenean oihu bat egin zian eta besarkatu zian eta, lehenbiziko gauza: ‘Ene! Kontuz etorriko zineten!’, esan zioan; ‘ez al dituzue atzean izango...!’. Ama horrelakoa baita, bar-bar-bar, eta: ‘Ri-ra joan zinen, guk ez genekien ezer, gauean etorri ziren’, hala etorri zituan-eta beste gau hartan sekretako txakurrak, atea hautsi, aita sutan jarri zuan, ateratzeko! ateratzeko etxetik eta pertsonak sartu behar diren bezala sartzeko! Buruan kolpe bat jo ziotean, gero Henriren gela azpikoz goiti jarri zi-

tean, paper eta zinta batzuk hartuta joan zituan; eta, handik bi-hiru egunera osaba Eusebio etorri zuan, hark esan ziguan, ondo eta toki seguruan zela Henri, geroztik ama gau-ta-egun begira zegoan, ordu-orduoro irratiko boletinak aditzen zitian, bat hil zutela hemen, bi detenitu zituztela han... Eta, Henri etorri zen beste hartan, bada, amak: ‘Baina esan, esan: ondo jaten ematen al dizute?’; ez zakiat zer pentsatzen zuen, pentsio batean zela edo...; eta: ‘horko hori, laguna al duzu?’. ‘Bai ama’, eta: ‘Zerbait jango duzue’; eta niri: ‘jarri, jarri zerbait bazkaltzeko’; eta: ‘atera sagardoa’; eta: ‘ekarri arropa horiek, ez? labadoran momentu batean... ene! zer duzu hori?’; Henrik gerrian pipa zekarrean eta, amak hura ikusi zuenean hitza galdu zian; ito larrian jarri zuan; osasunez makal samar zebilean eta, susto hark ez zioan on handirik egingo; boz apal-apalarekin: ‘zertarako daramazu hori?’, galdetu zioan; Henrik hari buruan maite-maite eginez, nola-hala kontsolatu zian; ‘ze, orain ere joango zara ala?’, galdetu zioan amak, esperantza poxi batekin. ‘Bai ama, oraingoz... hauxe da nire tokia’. Garbi esan zioan. Gero ama lo goxoak

hartu zian, gu badaezpada ere eta mahaia ere hala zegoelako jarria, haren oinetan jarrita bazkaldu genian. Henri, Pitita eta hirurok bazkaldu genian, eta mahai txiki batean, Jon eta Alaine, gure ilobatxoak. Espagetiak, nik prestatu nitian»; beste zupako bat jo, Xani eskaini zion konkorrak zigarreta; «han ari ginela, bada», segitu zuen, «amak begiak zabaldu zitian eta: 'Henri', esan zian. Ez zian ikusten, uste zian joan egin zela eta hots egin zioan. Henri aulkiño batean jarri zuan ohearen ondoan, ama besoetan hartu zian, kulunkatu zian, hura berriro lokartu zen arte. Eta, Henri atzera mahaira etorri zenean, hutsik atzeman zian bere platera. Pitita, sabelustel hark, bereekin ez aski eta, Henriren platereko spaghettiak ziplatu zitian. 'Hor hozten eduki gabe', esan zian eta, zapla barrura; ileak harro, aurpegia zikin, estanpa bat zuan; ni harekin aluzinatuta nengoan; 'redios!', esan zian, halako batean. Noski Alainek tomate-saltsarekin galtzak zikindu zizkioan... Kirol poltsa batekin, zerbait ari ote ziren, nik orduan ez nekian ezer. Susmoa banian noski, ez ninduan itsua»; zigarreta itzalia arrabiztu zuen, bere azazkal horixka biribilen ar-

tean kondar hari heldu, azkenaurreko zupadako bat eman eta, segitu zuen:

«Gure aita handik hilabetera abantxu hil zuan. Elizara ez zuan Henri azaldu, baina gero hilerrira bai. Gorro bat jantzita, zuhaixka batzuen atzetik begira egon zuan. Bazituan tipo arraro batzuk tunba baten gainean jarrita; haiek txakurrak zituan, deskarado. Gero, jendea barreiatu eta tipo haiek ere joan, eta ama eta anaia zaharra eta haren emaztea eta haurrak eta ni neu gelditu ginenean: ‘Henri non dago?’. Bila hasi gintuan eta... Zuhaixken atzean lo gelditu zuan. Bazeramaan bi gau lorik egin gabe eta, simaur pilo batean ere egingo zian lo...! Aterarazi genian behintzat bere gordelekutik... Orduan aitaren tunbaren atzean katu beltz bat hexur bat marruskatzen ari zela ikusi genian. Gero, etxera ailegatu eta ama bastante deprimituta zegoela, aber katu beltz hark deprimitu ote zuen, galdetu zioan Henrik. ‘Ez, ez’, esan zian amak, ‘hori oso ondo egon da’. Arratsalde berean kamioi bat galtzerdi erosi zian, hori zian bere negozioa. Lan egin behar zuela, esaten zian. Sobera ez egiteko, esan zioan Henrik, eta berak: ‘Orain egin behar

da...'. Bera ere begi bat tunban, bestearekin berriz negozioei begira zegoan. Iluntze nabar hartan, terrazatik, hil eta gero bere hezurrak non lurperatzea nahi zuen, erakutsi ziguan, etxeko jardinean: aurreko aldean, halako tokian, eta gero, bertan zuhaitz bat aldatu behar genuela. Eta nik: 'Orain aldatuko dugu', esan nioan. 'Ez', esan zian amak, 'orain ez, lege batek galarazten du-ta'. 'Lege batek? Zera!', esan nioan nik. 'Bai', esan zian amak: udaltzainak esan ziola eta hala zela. Eta nik: 'Orduan, horko pinu hori... Eta gainera: inspektorea nola etorriko da, ba! Eta, batez ere: orain galarazia bada, gero ere hala izango da...'. Amak ezetz; eta espero zian Henri bere alde jarriko zela, baina Henrik: 'Bai', esan zian, 'absurdo samarra dirudi'».

Konkorrak zigarreta zapaldu zuen hautsontzian. «Harrezkero», esan zuen, «guk ez diagu ikusi. Handik gutxira berriz, kasernako leherketa hura izan zuan eta... hi orduantsu atzeman hinduten ala?»; Xanek baiezkoa egin zuen; «ba, beharbada jakingo ez duana duk, Henrik egun haiek, edo aste haiek, ez zakiat, herritxo batean eman zituela, hemendik ez urruti. Eta, leherketa

izan zen egun hartan, herri hartako ostatuan zela, ostalariari (nire ezaguna dena, nik hau berak esanda zakiat) esan ziola, tipo bat han bazterretan ostuka ikusi zuela; bere kusan ote zebilen; eta gure etxeko telefonoa eman zioan, edozer gertatzera guri abisu emateko»; apur batean isildu egin zen, gero jaiki egin zen eta: «egon hadi pixka batean», esan zuen.

Haren urratsak pasiloan isiltzearekin, Xanek ardo zurrut bat edan zuen, telebistara begira gelditu zen. Une hartan, bezperan Lazaroren gurasoen etxean ikusi zituen, kalean hil zuten neska haren irudiak ematen ari ziren; gero berehala gaueko kale-irudi batzuk: barrikadak sutan, auto irauliak, banketxe partzialki fundituak; pantailako azpiko aldean, irudien gainean ezarrita, zer-non izan zen argitzen zen. Eta, segidan: oihal zuri batez estaliriko mahai sinple batean, atzean ikurriña zutela, beltzez jantzitako txanodun bi agertu ziren: bat lodikara, txikixeagoa bestea. Xan jaiki, bolumena igo zuen. Txanodun txiki hura, uhu-uhu eztul pixka bat egin eta hasia zuen frasea amaitu zuen: «...beraz, gobernuarekin kontaktuak etenda daude».

Une hartan telefonoak jo zuen. Aparatoa telebistaren ondoan zegoela, Xanek hartzekoa egin zuen, berehala ordea, ez hartzea hobe zukeela pentsatu zuen. Alabaina, hiru bider jo eta gero eten, eta gero oso segituan berriz jotzen hasi zenez, kontsideratu zuen komeni zatekeela hala ere erantzutea, zena zela ere enkargua hartzeko edo, txarrenera ere, zerbait ez-beharrekorik igarriz gero, deus esan gabe eskegitzeko. Hala bada, hartu egin zuen aparatoa. Hartu eta bertan baina, eten egin zen komunikazioa; eta hala ere, kableaz beste aldean baten bat zegoela aditzeko betarik izan zuen, menturaz hitz bat esaten hasi zena. Berak eskegi eta oso sarri berriz, atzera jo zuen. Eta berriz ere Xanek istant batez duda egin, eta berriz ere azkeneko hartu. «Mmm?», esan zuen. «Oui?», emakume batek, kableaz haraindik. «Nor da?», Xanek. «C'est moi», emakumeak. «Mmm», Xanek. «Oui?», emakumeak. «Qui?», Xanek. Xanek ez zuen noski ezagutzen, besteak berriz ez zion bistan zenez bere izenik eman nahi. «Qui êtes-vous?», galdetu zuen emakumeak. «Ni?», esan zuen Xanek, «no... moi...». Xanek ere ez zuen bere

izenik esan nahi. Hala ere, arazorik handiena berak frantsesez ez jakitea zuen, hartara ez zituen emakumeak esan zituen beste zenbait hitz ulertu. Laster ageri zen solasak irtenbide gutxitxo zeukala. Alta, bat-batean Xanek bere gibelean norbait zela sumatu zuen. Itzuli eta, aurrez aurrean gizon moreno, ihar bat zeukan. Hark telefonoa hartu eta: «Oui?», esan zuen, handik goiti berak segitu zion, frantses aisean, Xanen solas etenari.

Xanek pauso batzuk egin zituen atzeraka, sofa txikian jarri, izterpean zuen liburuxka bat hartu zuen. Gain-miratu zuen, kimika liburuxka bat zela zirudien. Hura alde batera laga, loguraz ahoa zabaldu, begiak ertitxian gizon iharrari begira egon zen. Mokasin marroi distirantak, oihal argiko galtzak, elastiko urdinaren gainetik agertzen zitzaion alkandoraren lepoko zuria.

Telefonoa eskegi zuenean, gizon iharra ere telebistari so gelditu zen: bolumena igo gabe, eskuak patriketan, irribarre leun bat ezpainetan. Pantailan zenbait gizon mahai obalatu baten inguruan eserita zeuden. Dudagabe politikoak, batzuk ez-bertakoak itxuraz, beste batzuk euskal-

dunak; arranguratuxe agian, azkenekook; irri-zabalka, satisfazio-plantak eginez hala ere; paper bat zerabilkiten eskuz esku, bertan firma bana ipini, akordio batera heltzen ari zirela zirudien. Ikusi batera errepresentazio arrunt, ez oso interesante bat ematen zuen; gizon iharrak, ordea, eztul txiki pixka bat egin eta, Xanengana amiñi bat itzuliz, hargatik begiak pantailatik kendu gabe: «Soka tenkatzen ari dituk...», esan zuen. Hain zorrozki, hain sujerikor, halako segurtasunez esan zuen... Xanek abisu bat zela konprenitu zuen: iharrak bazekien antza bilera hark zein ondorio ekarriko zituen, eta bazekikeen orduan bere zeregina zein izango zen ere; behintzat, hitz haien alkantzea arrunt barneratu gabe: «Bai», musukatu zuen Xanek. Gero iharrak, telebistari saihets emanik, berari begira: «Eta, zer moduz aurkitu duk herria?», galdetu zion. «Kanbiatuxe», erantzun zuen Xanek, ez biziki eroso; segurrenik gizon hark konkorrarekin topo egin zuen, honek bere historia kontatu zion. «Gauza asko kanbiatu duk», esan zuen iharrak, «eta hala ere... igualtsu segitzen dik denak»; isilaldiño bat izan zen, gero atzera iharrak: «eta hi heu,

zelan?». «Ondo edo», esan zuen Xanek, begierdiz telebistari so; apur bat larritu egiten zuen iharraren begirada trankil, bai, baina zorrotzak. «Orain gauzak lasai hartzea onena», esan zuen iharrak, berriz eztultxo pixka bat egin eta, berak ere begiak telebistaren gainean atxiki zituen.

Eztul hura, ordea... kolpetik Xanek argi ulertu zuen, gizon hura eta telebistan arestian azaldu zen txanoduna, pertsona berbera zirela. Iharra, hain zuzen ere; hori zuen ez-izena; ikusia zuen nonon haren argazkia, buruzagi zaharretakoa zen. Xan harri eta belarri zegoen. Non zen? Noski konkorra ere erakundearen inguru-marietakoa zen. Xan fijatu zen Iharra ernerik zegoela. Itxuraz lasai baina, hanka-besoak tink, buruan katramilaren bat zerabilela zegoen. Sobra ere situazioa kezkatzekoa zen; beharbada erakundea suetena haustekotan zen; ez bazuen dagoeneko hautsi... Gero bere pentsamenduak inprezisoagoak, hautemangaitzagoak bihurtu ziren; lo gelditzen ari zela konprenitu zuen; ez zuen kontrako ahaleginik egin, utzi zuen loak eramaten; alde batera makurtuz, burupean kojin bat paratu

zuen. Geroxeago, Iharra manta mehe batekin estaltzen ari zela nabaritu zuen.

Iharrak esnatu zuen. «Nahikoa egin al duk?», galdetu zion; gero, berehala: «altxa, bagoazaketa». Xan sofan eseri eta, begi bat itxita zeukala, eta bestea ez oso zabalik: «Ni, besteare-kin...», hasi zen; konkorragatik, ez baitzekien haren izenik ere. «Hura joana duk», informatu zion Iharrak, «orain gurekin hator»; orduan ikusi zuen Iharraren atzean neska bat zegoela; «vasy», esan zion Iharrak hari.

Sabaiko tranpilla zabalik zegoen, esku-eskailera bat erabiliz hara igotzen hasia zen neska. Xanek baldarki jarraitu zion, hirurak ganbaran zirela Iharrak eskailera gora jaso eta tranpilla itxi zuen. Korridore batean barrena abiatu ziren. Iharra aurrean, linterna bat zuela, gero Xan, gero neska. Gain apaleko korridorea zen, makurtu gabe apenas ibili zitekeena. Azpian egurrak krak egiten zuen, baziren gora eta behera aldapa txikiak. Orain ezker, orain eskuin, kontuz eta isilik zihoazen. Lantzean behin Iharra itzuli egiten zen, Xani eta neskari zuloren bat, koskaren bat argiztatzeko, konprobatzeko ondo zihoazela. Bede-

ren-bederen, puska on batean ibili ziren hala, Xan apur bat zuntzunduta zihoan. Bazitekeen beti edifizio berean izatea, probableagoa zen behintzat etxez etxe ibiltzea. Azkenik, leihoxka batetik teilatu batera irten eta, handik terraza batera salto egin zuten. Giro muxina zegoen. Iharrak ateño bat ireki zuen eta, hirurak estu-estu zama-igogailu suerte batean sartu ziren. Neskak zerbait esan zuen, Xanek ez baitzuen ulertu. Barru-patio batera iritsi ziren; baziren han edari-kajak, zerrauts-zakuak, upel txiki bat ere. Handik-eta pasabide bati jarraiki, beste ate bat ireki zuten. Lababo batean, gizon narras bat ispiluaren aurrean bere burua orrazten ari zen. Beste ate bat ireki zuten. Kafetegi batean zeuden.

Kafetegi handi, biziki argitua zen, eurak sartu ziren alderditik ikusita alderantziz ipinitako L baten forma zuen barra zabalekoa, kaletiko sarrerak haranzko eta eskuma aldean zituena, eurak arribatu ziren espazio karratu-antzekoan berriz, zortzi-hamar bat mahai egurrezko, bakoitzak bere intimitatea zuela: alde bietara aulki fijoak, plastiko gorriz tapizatuak. Mahai haietariko

bi baizik ez zeuden hartuta. Batean lau emakume, lan-uniforme zuriak jantzita kafe-kruasanak hartu, kalaka ari ziren. Bestean mendi-arropekin jantzitako gizon mustur-ilun, sendo, burusoil bat bakarrik zegoen. Haren mahaira eurak iritsitakoan hura, zer nahi zuten galdetu eta, bera eskearekin barrara zihoala, Iharrak Xani: «Ezagutzen al duk?»; Xanek ezetz, eta: «Pitita», esan zuen Iharrak.

Barran gizon dezente bazegoen ere, batzuk agian gaupasa eginda, zalapartaka, eta barran kamarero bakarra, Pititak hari deiadar sendo bat eginik ziztu bizian erakarri zuen. Iharra eta neska frantsesez ari zirela, Xan paretan zegoen koadro txiki bati begira egon zen, gero beste nonora, harik-eta Pititak bandeja batean gosaria ekarri zuen arte; esertzen ari zela: «Eta?», galdetu zion Iharrari laburzki; honek irribarre misterioso batez erantzun zuen. Neska eta Xan barrari bizkar emanda zeuden, Xan txokoan, parean Iharra zuela. Gero Iharrak eta Pititak izan zuten solasetik Xanek ez zuen ezer aditu; diskretuki, bolloa kafesnetan beratu, jan egiten zuen. Iharra berbetan, Pitita adi-adi zegoen; ezagun zen lagu-

nak esandakoak gogotik asimilatzen ari zela edo, haiek ordenak baziren, lehiaz eta txintik atera gabe beteko zituela. Neska: gaztea, hezurtsua, kokots luzeduna, pixka bat ruborizatuta zegoen; beroa zen, agian, edota momentuko kezka; barran abarrotsen bat aditu eta, inkiet hara itzuli zen. Pititak berriz, Xani begiratzen zion; ez oso zuzenean, tentuz, eta halaz ere kuriositate disimulagaitzaz; noski oraintxe Iharrak berataz hitz egin zion; noski lehenago ere bere berri aditu zuen; noski bazekien zelan heldu zen ihesi. Halako batean: «Goxoa zegoan?», galdetu zion Xani, eta: «beste bat hartuko duk»; Xanek ezetz adierazi arren, Pititak, lau emakumeen mahaia jasotzen ari zen kamarero musu okerrari: «ekatzak beste bollo bat», agindu zion; hozten ari zitzaion kafearen aurrean antxumatuta besoak, ezpainetan irribarrerik ez, begirada altzairu urdinezkoa, dudagabe egoskor handi bat zen. Iharrak purito kaja bat atera zuen, Xani eta neskari eskaini zien; Xanek: «Orain ez», esan zuen; neskak berriz, bere zigarro gorrietarik nahiago zuen. Kea uxatzearren eskutzarrari eraginez: «Dagoeneko erretzen», esan zuen Pititak erremuska. Alabai-

na Iharrak, barra aldera zorrozki begira, ez ote zion han zenen bati, bekainak jasota keinu bat egin; gero bere erlojuari begiratu eta, neskari frantsesez zerbait esan zion. Neskak zamarra barrenetik paper bat atera, mahai gainean zabaldu, Pititari erakutsi zion. Iharrak eztul pixka bat egin zuen eta: «Orain Pititak eramango hau», esan zuen. «Nora?», asaldatu zen Xan. «Henrirenera», esan zuen Iharrak, irribarre samur bat eginez; gero berehala: «paperik baduk?». «Paper bat...», hasi zen Xan, baina, zeukan paper hura zein zen gogoratuz: «ez», esan zuen, «balio duenik ez». Pititak, neskarekin ari baina, sobra ere hura aditu egin zuen eta, biengana itzuliz: «Lasai horregatik», esan zuen. Xan ordea, ez zegoen oso lasai. Agi denez azkenik bere helburua iritsi behar zuen; hala ere... kezkatuta zegoen. Iharrari begiratu zion; hau baina, ke-laino batean murgilduta, begiak puntu atxikigaitzen batean jarrita, orain perspektiba luzeagoko kalkuluak egiten ari zela zirudien. Xanek gauzak zertan zeuden, su-etenaz galde egingo zion, nabari zuen ordea, bere hitzak laburrak eta ez egokiak izango zirela. Estrainio samar

sentitzen zen; lagun haien prestutasuna, haien sua, haien dezisioa; baina bai haien janzkera, haien begiradak, haien umorea, haien keinurik sinpleenak ere... beste denbora batekoak balira bezala zen; hain zuzen, Xanen beraren denbora-koak... Izan ote zen, su-etenik, inoiz?

Halako batean Pititak, papera bildu, zutundu, jesarlekupetik bizkar-zorro bat atera zuen: biz-kar-zorro gorri bat, aski ibilia itxura zenez. Eta, hura bizkarrera jasoz: «Goazemak», esan zuen. Eta, neska ere zutundu zenez, bistan dena Xani pasoa emateko, Pitita eta biak abiatzeko tenorea zela ulertu zuen Xanek. Neskak bostekoa eman zion Xani: hala nola, ofizio-lagunak izanik, nego-zioren bat arrañatu berri balute bezala; Iharrak berriz, jaiki gabe, eskua jasoz baina kontaktua, menturaz, ebitatuz: «Ez adiorik», despeditu zuen.

Goiz-sentia zen, hotz handia egiten zuen. Ka-fetegitik irten eta kale aldapatsu, luze batean goiti jo zuten, Pitita botatzarrekin, bizkar-zorroa zeramala bizi-bizi aurrean, Xan bi-hiru pausoz osterago, eginahaletan burusoilari jarraitzeaga-tik. Hankak min pixka bat ematen ziola zebilen,

Pitita baina, ez zen hartaz ohartua; haren nahia inondik ere kale haren azken muturrera lehenbailehen ailegatzea zen: hiritik irteteko, nonbait; izan ere, han aurrean, laino trinko baten pean, mendi baten irudia igarri zitekeen. Alta, Pititak bere buruari jomuga bat, ordutegi bat ezarri zion, eta bete egingo zuen. Horrek, alde batetik, konfiantza ematen zion Xani: tipo adoretsua eta beldurbakoa zen, erne askoa bestalde: zorrotz zeharkako kaleetara begira, begi-belarriak alerta. Bestetik baina, abiadura hark kezkatu egiten zuen, bai baitzekien, hala segitzera, mina gaiztotu egingo zitzaiola. Momentuz behintzat, ez zuen deus esateko modurik, ez zuen kaleko xehetasunik hautemateko betarik ere; arreta guztia Pititarengan ezarrita zeukan. Auto gutxi zela, bai. Horrek eman zion atentzioa. Jende gutxi zebilela ere bai: gizonak banaka, maldan behera. Azken hori berriz, orduari atxiki zion. Eta, gizon bat ez ote zen beraiei begira gelditu. Pititak baina, hartan erreparatu bazuen, ez zuen erakutsi, ez zion behintzat garrantzirik eman, brasta-brasta segitu zuen.

Gero azkenean kale hartatik irten, zenbait etxe apalen artean mendian gora jo zutenean, Xani hanka huts egiten hasi zitzaion. Hartan Pititak zerbait esan zuen. Xanek baina, atze samarrean zihoan eta, ez zion entenditu. Gero Pititak Xanek entenditu ez zuen beste zerbait esan zuen. Handik goiti ez zuen beste hitzik esan: arin-arin, ordoki txiki batera heldu zirenean, gero malda behera gozoan, Xanek, mainguka bada ere, lortu zuen hari pixka bat hurbiltzea, Pititak ordea, erritmoa moteldu, edo zeramanari eutsi gabe, biziago ekin ote zion. Eta, Xanek hala ere, ahalegin handi bat eginez, zerbait hurreratzea lortu zuelarik, Pitita itzuli egin zitzaion eta: «Aparteago», esan zuen. Xan baratu egin zen. Nonbait ez zen komeni elkarrekin ibiltzea. Badaezpada Xan dezente atzerago ibiltzea komeni behar zen. Handik aurrera bata besteagandik aski bereizi ibili ziren. Pitita zalu-zalu, Xan berriz, herren eta zabuka. Gurdibide batean, berriz ere gora, txabola baten ondoan zela elurra hasi zuen. Orduko Pitita, Xanek nahi izango zukeen baino askoz urrunago zen. Elurra zela-ta, une batez Xanek esperantza izan zuen, Pititak itxoin

egingo ziola; edo, indarrak berritzeko ez bazen (hura behinik-behin, ez baitzebilen eskasean), bederen mendizaleen artean hala zelakoz usantza, mokadu bat jateko geldituko zirela. Ez zen halakorik izan. Han zihoan, bada, hura, eta bakan oso Xan, hasgeldika, herrenka. Elurra goian-behean, oinak bustitzen hasita, bide luzea ote zuten egiteko oraindik? Eta, nora zihoazen...? Henrigana, noski; harekin oroituz, pentsatuz-eta laster eta azkenean hura ikusi egingo zuela, Xanek aldi batez bizkorrago ekin zion, luze gabe baina, flakezia handi batek hartu zuen. Elurretan lerra-lerra, geroz eta nabarmenkiago gelditzen ari zen atzean. Bestalde, txiza egiteko gogoa zeukan. Abisua emango zion Pititari, zain egoteko esango zion, izan balitz gertuxeago hura. Esku zurrunduez brageta ireki, zakilari eragin, txiza egiten ari zela berriz, kaka egiteko premia larria sumatu zuen. Hantxe zeuden harri mokor batzuen ondoan, sasi batzuen artean jaitsi zituen galtzak. Makurtu zelarik berriz, irrist egin zuen, sasietara erori; eta, handik ateratzearren egin zuen ahaleginean, sasitan barrenago joan zen. Madarikazio bat bota zuen, esfortzu

handi bat eginez atera, elurraz ipurdia garbitzen ari zelarik, Pitita une batez ikustea iruditu zitzaion; haren figura baina, berehalaxe elur-lainotan ezkutatu zen; uste ote zuen bada hark berak bazekiela bidea? Eta, Xanek bideari berrekin eta handik pixka batera berriz, bidea bitan bereizten baitzen, zalantza egin zuen. Ez zen oin-arrasto ebidenterik han, aztarna bat baino gehiago zegoen, guztiak elurrez estaliak. Beherantza baina, behor eta beste abere-aztarnak zirela zirudien. Xanek gorantza egin zuen, puska batean Pititaren ustezko oin-arrastoei jarraitu zien. Lauoinka, eskuekin belar-muilo bakanei helduta aldapa piko bat igotzen ari zela, irristatu egin zen; atzera aldapari ekin, atzera irristatu, zulo batean ez aurrerako eta ez atzerako gelditu zen. Elurrez erdi estalian, oinak eta eskuak, musua eta belarriak ere hozminduta zeuzkan. Orduan ikusi zuen behean borda bat. Bilin-balanka, burua erdi txorabiatuta iritsi zen hara.

Han ez zen Pitita, galduta zegoen. Borda bestalde, kandado batekin itxita zegoen, eta haren teilatuaren hegalak eskaintzen zuen aterpea oso badaezpadakoa zen. Ezin zen han egon, izoztu

egingo zen. Behera zihoan bideari segitu zion. Hanka beti herrestan, puxka batean elur-maluta handiek erdi-itsututa ibili zen. Pinudi handi bat igaro eta gero errepide batera iritsi zen, handik eta beheraxeago trenbidera, haren ondoan bazegoen kobertizo bat, zeinaren tximiniatxoari ke pixka bat zerion. Elur-izpika ari zuen orain, errepidea kapa lodi batez estalita zegoen. Xanek, kobertizora inguratuz, haren leihatila ertirekitik, barruan, estufa baten ondoan, mono horidun enplegatu bat potajea jaten ari zela ikusi zuen. Enplegatuak bera ikusi zuelarik, apur bat inkorporatu zen, leihatila gehixeago ireki, ahoa beteta zeukala, izutu-antzean begira gelditu zitzaion; Xanez nahikoa inpresio txarra hartua behar zuen. «Hola», marmarkatu zuen Xanek; enplegatuak buruaz ihardetsi zion; «non nago?», galdetu zuen Xanek; enplegatuak Xanek inoiz aditu ez zuen izen bat esan zuen; Xanek hala ere, konprenitzekoa egin zuen, eta: «ba al dago trenik?», galdetu zuen. Enplegatuak eskuaren atzearekin ahoa garbitu zuen eta: «Hemen trenak ez dira gelditzen», esan zuen. «A», esan zuen Xanek; enplegatua begira gelditu zitzaion; agian espero

zuen beste informazioren bat nahi izango zuela, agian zain zegoen, Xan aldendu zedin, potajea lasai jaten segitzeko; Xanek ordea, ez zuen besterik esan; ahoa ere apenas ireki zezakeen, hotzak hormatuta zegoen; ez zuen baina, arrazoi berberagatik, berehalaxe handik aldentzekorik egin; zain zegoen, enplegatuak beste zerbait esango ote zion; edo, agian, jateko zerbait ez bazen, kobertizoan babes pixka bat eskaini ziezaion; enplegatuak baina, berak ere ez zuen ezer esaten; hartaz: «on egin dizula», esan zuen Xanek eta, trenbidea kruzatuz, errepide zuriari jarraitu zion. Errebuelta handi bat egin eta gero, auzo txiki batera heldu zen. Auzo zaharra, etxeak erdi botata zeuden. Errepidearen erdian zegoen zakar meta baten gainean baldar zebilela, hiru haur ijito berari begira gelditu ziren. Forma zehatzik ez zuen kale bati jarraitu zion. Etxeak okreak, beigeak, gorrixkak ziren. Baserri baten aurrean asto bi, astakume bat, txakur bat zeuden. Txakurrak, etzanda, penaz begiratu zion Xani. Itxitura batean neska batek: oiloei jana ematen, aurpegia gorri-gorri, bera ikusi zuenean, jakinminez, agian gurari pixka batez begi-

ratu zion. Ukuiluko atean berriz, gizon bat zegoen: buruan txapela, eskuan aitzurra, muturtsu, betosko ilunarekin. Xanek ezkerrera estrata bati jarraitu zion, handik pixka batera berriz ere trenbideko kobertizoaren aurrean zegoen. Enplegatua orain leihatilan apoiatuta zegoen, zigarro bat erretzen. Xanek, distantzia batetik, errepidea bestalderantza eskuaz seinalatuz: «Harantza zer dago?», galdetu zuen. «Hor badago herri bat», esan zuen enplegatuak, korrok egin zuen. Pausaldi baten ondoren: «Handia al da?», galdetu zuen Xanek. Enplegatuak ez oso handi, ez oso txiki zela esan nahizko karantza egin zuen, gero: «Plazan bada ostatu bat», esan zuen.

Elurra gelditu zuen. Maldaxka batean gora, Xan hanka sentitzen ez zuela, argiarekin begiak erreskinatuta zihoan. Etxe multzo batera iritsi zen. Etxe handiak, karratuak ziren; pobreak ematen zuten hala ere bertako lagunek; arropa zaharrak janzten zituzten, oihuka mintzatzen. Gehienak pixka batean berari begira gelditzen ziren, gero segitzen zuten oihuka. Xan ostatuaren bila balebil bezala zebilen. Poltsikoak hutsik zituen-eta, ez zuen hura atzemateko interes par-

tikularrik; hala ere, hura zen ohitura. Eta, edariiragarki txiki bat zuen etxe aurre batean gelditu zenez, painuelodun emakume batek: «Ostatua han da», esan zuen, «elizaren ondoan»; eta, Xan harantza zihoala, emakumeak lagundu zion: gibelatuxe, apartexko; eta, elizara iristen ari zirela: «hor, hor», esan zuen emakumeak. Barrutik gizon batzuen ahotsak helduki ziren. Xan baina, bertara sartu gabe, kanpoan, estalpean zegoen aulki luze batean jarri zen. Hainbesterekin, emakumeak errespetatu egin zuen bere erabakia. Hura ere han gelditu zen, neska bati hizketan. Neskak triste ematen zuen. Xanek begiradaz, une batez, bere estima adierazi nahi izan zion; neskak berriz, idor begiratu zion. Plazara gizon gazte batzuk etorri ziren lasterka, elur pilotekin jolasten aritu ziren. Kaskamotzak ziren, seguru aski soldaduak, permisoarekin etxera etorri zirenak. Neska, Xan bezala, haiei begira zegoen; une batez hark lotu zituen. Gero ostatutik hiru gizon atera ziren. Bularrutsik, han inguruan non-edonon lanean ari zirenak. Disimulo handirik gabe begiratzen zioten berari: nor zen? nondik zetorren? zer ari zen han? Eta, batez ere: eurak be-

zalako pertsona bat al zen, ala txoro samar bat: zamarra zikin, galtza urratu, zapata basitu haiekin, zozo-zozo inora begira? Xanek bista apaldu zuen. Aulkiaren azpian animaliaxka bat ikusi zuen. Molusko antzeko bat zen, itxuraz arnasa hartzeko problemak zituena. Harri bati atxikita, ahoxka alde guztietara zabaltzen zuen, airean ziratekeen jaki mikroskopikoen bila. Hari begira makurtuta zegoela, Xan erori zorian egon zen. Oso nekatuta zegoen. Bizkarra paretaren kontra jarrita, begiak itxi zituen; koloretako marrazkitxoak ikusi zituen. Begiak ireki zituen. Eguzkia zegoen. Esfortzu handi bat eginez jaiki zen; atzera begiratu gabe, pauso xeheka, mainguka, errepidera heldu zen.

Aski denboraz ibili zen hala, eguzkia aurrean zuela, norabide hautemangaitzean. Zelaietan elur zuri-zuria zegoen, errepidean berriz, auto batzuk igaro ziren. Sobra ere bide hark hiriko suburbioetara zeraman. Urrun fabrika batzuk begiztatu zituen. Beragandik hurrago, pareta altuekiko eraikin handi bat. Hara heldu, pareta haren ondoan zebilela, ja ate nagusira iristen, hantxe, bizkar-zorro gorri bat ikusi zuen. Ez ote...? Xan,

baldartuta, bizkar-zorroaren ondoan gelditu zen. Zer zela-ta...? Bizkar-zorroa ireki zuen; barruan pakete bat zegoen: gaileta-kaja baten tamaina-koa, paper zakarrarekin estalia, listarekin itxia. Ahots bat aditu zuen. Gora begiratu zuen, garita batetik soldadu bat hoska ari zitzaion. Argi handi bat ikusi zuen.